ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA BULEGOA E.A. - ESTUDIO DE ARQUITECTURA Y URBANISMO S.A.
Marques del Puerto 9, 3. esk. - 48008 - Bilbo 944160600
Arkitektokideak - Arquitectos Asociados
Mikel Aguirre Perez - Anton Agirregoitia Aretxabaleta - Eduardo de Felipe Alonso - Iñaki Peña Gallano

Kimar
Consultores Ambientales, S.L.

Juan de Ajuriaguerra 17, 1º D 48009 BILBAO ● Tel. 944 230 677 ● Fax 944 239 025
e-mail: consultora@kimar.es ● www.kimar.es

IZENBURUA

INGURUMEN JASANGARRITASUN TXOSTENA

GETXOKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA

ERAGILEA	**GETXO UDALA**
ERREF.	**II-RG0101**
DATA	**Bilbo, 2015ko Iraila**

KALTEA LEIOAN BIZARRA DAGIANAK

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK 1

2. METODOLOGÍA 2

3. PLANAREN HELBURU NAGUSIAK ETA BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIN LOTURAK (ANEXO II 'A' DEL 211/2012 DEKRETUAREN II 'A' ERANSKINA) 6

3.1. PLAN OROKORRAREN BERRIKUSTE PREMIAREN HELBURUA ETA JUSTIFIKAZIOA 6

3.2. PLANAREN HELBURU NAGUSIAK 7

3.3. BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIN LOTURAK 9

4. NAZIOARTEKO, ERKIDEGOKO, ESTATUKO, AUTONOMIA, FORU EDOTA TOKIKO BARRUTIETAN FINKATUTAKO INGURUMENA BABESTEKO HELBURUAK. PLANGINTZAN HELBURUAK INTEGRATZEA (D/211/2012 II ERANSKINA 'B') 27

5. INGURUMENAREN EGUNGO EGOERAREN ETA IZAN DEZAKEEN EBOLUZIOAREN ALDERDI ESANGURATSUAK (D/211/2012 II ERANSKINA 'C') 31

6. MODU ESANGURATSUAN KALTETU DAITEZKEEN EREMUEN INGURUMEN EZAUGARRIAK ETA LEHENDIK DAUDEN INGURUMEN ARAZOAK (D/211/2012 II ERANSKINA 'D' ETA 'E') 34

7. INGURUMEN UNITATE HOMOGENEOAK, INGURUMEN KALITATEAREN BALORAZIOA ETA ERABILERA AHALMENA (D/211/2012REN II ERANSKINA 'F') 87

8. PLANAREN EFEKTUEN BERRIKUSKETA PROGRAMA (D/211/2012 II ERANSKINA 'G') 95

8.1. KONTROLAREN HELBURUEN DEFINIZIOA 95

8.2. JARRAITUKO DIREN INGURUMEN ALORRAK IDENTIFIKATZEA 96

8.3. ADIERAZLEEI JARRAITZEKO BEHARREZKOAK DIREN DATU KUANTITATIBOAK ETA KUALITATIBOAK 100

8.4. PARAMETRO KUANTIFIKAGARRIETARAKO MUGAKO EDO ERREFERENTZIAKO MAILAK 101

9. INGURUMENEAN EGON DAITEZKEEN ONDORIO ADIERAZGARRIAK. EKOSISTEMEK EMATEN DITUZTEN INGURUMEN-ZERBITZUAK (211/2012/D II ERANSKINA 'H') 107

9.1. JARDUERA DESBERDINETARAKO INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA IRAGARPENA 107

9.2. EKOSISTEMEN ZERBITZUAK 112

10. NATURA 2000KO TOKIETAN ERAGINDAKO ONDORIOEN BALORAZIOA (211/2012/D II ERANSKINA 'I') 113

11. ALTERNATIBEN ANALISIA (211/2012/D II ERANSKINA 'J') 114

11.1. PLANTEATUTAKO GARAPEN EREDUAK 114

11.2. "0 ALTERNATIBA" EDO "ESKUHARTZE EZA" ETA AURREIKUS DAITEKEEN EBOLUZIOAREN DEFINIZIOA 119

11.3. ALTERNATIBAK BALORATZEKO INGURUMEN IRIZPIDEEN DESKRIBAPENA 119

11.4. BESTE PROPOSAMENAK 137

11.5. HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA 149

12. AURREIKUSITAKO INGURUMEN-INTEGRAZIOKO NEURRIAK (D/211/2012 II ERANSKINA 'K') 150

13. LABURPEN EZ TEKNIKOA (D/211/2012 II ERANSKINA 'M') 163

14. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA (D/211/2012 II ERANSKINA 'N') 179

15. DOKUMENTAZIO GRAFIKOA (D/211/2012 II ERANSKINA 'N') 180

I ERANSKINA: ERREFERENTZIA-DOKUMENTUA ETA AURRE KONTSULTEN PROZESUARI ERANTZUNAK

II ERANSKINA: ORKIDEEI BURUZKO (ORCHIDACEAE FAMILIA) AZTERLANA GETXOKO UDALERRIKO HIRU ALBITZ-BELARDITAN

1. AURREKARIAK

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, *211/2012 Dekretua*n araututako ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren pean egongo dira *Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legea*ren I. eranskinean aipatutako planak eta programak. Horien artean, honako hauek daude: "*Hiri-antolamendurako plan orokorrak eta urbanizatu ezin diren lurzoruei eragiten dizkieten aldaketak*".

211/2012 Dekretua betez, GETXOKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPENAREN ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura abiarazteko *Hasierako Dokumentua* idaztea ezarri da, Dekretuaren 8. artikuluan aipatutako informazio osoa bildu beharko duena.

Beraz, Arkitektura eta Hirigintza Bulegoa S.A eta KIMAR Consultores Ambientales S.L. enpresek, Getxoko Udaleko teknikariekin batera, Hasierako Dokumentu hau idatzi dute batera, norberak bere jakintza arloa ekarrita, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari Erreferentziazko Dokumentua eskatzeko.

Hasierako agiria 2014ko maiatzean idatzi zen eta **ERREFERENTZIA DOCUMENTUA** 2011KO ABUZTUAREN 11N IGORRI ZEN ETA GETXOKO UDALAK SUSTATUTAKO GETXOKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN LEHEN BERRIKUSKETAREN INGURUMEN JASANGARRITASUN TXOSTENAREN NORAINOKOA ZEHAZTEN DU.

Dokumentu hau JASANGARRITASUN TXOSTENA da, aipaturiko Erreferentzia Dokumentuaren xedapenen arabera idatzia, **KIMAR, Consultores Ambientales S.L.** enpresak egin du eta bere edukiaren arduraduna Mar Basagoiti Royo (83 zenbakidun biologo elkargokidea). Hirigintzari dagozkion alderdiak **Arkitektura eta Hirigintza Bulegoa E.A.** enpresak idatzitako Aurrerakin dokumentuarekin aztertu dira

2. METODOLOGÍA

211/2012 Dekretuaren arabera **INGURUMEN JASANGARRITASUN TXOSTENAREN** edukia 11. Artikuluan jasotzen da

1.– Organo sustatzaileak, erreferentziako agiriaren edukiaren arabera, ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostena egingo du. Bertan, planaren helburuak garatzea ahalbidetuko duten aukera teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarriak zeintzuk diren identifikatu, deskribatu eta ebaluatuko du, eta, era berean, aukera horiek ingurumenean izan litzaketen eragin garrantzitsuak identifikatu, deskribatu eta ebaluatuko ditu.

2.– Ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostenean, gutxienez, dekretu honen II. eranskinean adierazitako informazioa jasoko da, erreferentziako agiriak zehaztutako xehetasun-mailarekin eta txostenaren kalitatea ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen den informazioarekin. Txostenean, halaber, tokiko estrategietan beraietan helburuak planean edo programan nola integratzen diren islatuko da, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Esparru Programan nola integratzen diren ere.

211/2012 Dekretuaren II Eranskinean IJTren eduki gisa ondorengoa adierazten da:

a) Planaren edo programaren edukiaren eta helburu nagusien laburpen bat, bai eta ingurumenean kontrako sinergien eta metatze-efektuen sorreran eragin dezaketen beste plan batzuekin eta konexuekiko dituen erlazioak ere, hierarkiako eta zeharkako harremana identifikatuta.

b) Nazioarteko, erkidegoko, Estatuko, autonomiako eta/edo tokiko esparruetan finkatutako ingurumen-babeseko helburuak, plan edo programak izan litzakeen ondorio nabarmenekin zerikusia dutenak, erreferentziako agirian jasota, eta plan edo programa horiek lantzean helburu horiek eta beste edozein ingurumen-alderdi nola hartu dituzten kontuan, hala badagokio, ezarritako edo proposatutako adierazleen eta mugen erabileran oinarrituta.

c) Ingurumenaren oraingo egoeraren alderdi nabarmenak, plana aplikatu ezean denbora horretan izango zuten bilakaera kontuan hartuta.

d) Eragin garrantzitsua izan dezaketen zonen ingurumen-ezaugarriak.

e) Planerako edo programarako aipagarria den edozein arazo, eta hor sartzen dira, besteak beste, natura-gune eta espezie babestuei buruzko legeria aplikagarriarekin bat etorriz izendatutako ingurumen-garrantzi bereziko edozein zonarekin zerikusia duten arazoak.

f) Lurraldearen ingurumen-unitate homogeneoak definitzea, paisaia-ezaugarrien, natura-baliabideen, ondare historiko-artistikoaren eta abarren analisi integratutik abiatuta. Unitate horien ingurumen-kalitatea baloratzea eta erabiltzeko gaitasuna aztertzea.

g) Planaren edo programaren ondorioak ikuskatzeko programa bat; bertan adierazleak deskribatuko dira eta, hala badagokio, ondorio nabarmenen erreferentziako muga-balioak (positiboak eta negatiboak), bai eta ikuskatzeko ardura duten pertsonak eta programa txertatuko den dokumentu planifikatzailea ere, edo, horrelakorik ezean, plan edo programaren jarraipenaren iraupena eta maiztasuna.

h) Ingurumenean egon daitezkeen ondorio adierazgarriak, honako alderdi hauek sartuta: biodibertsitatea, biztanleria, giza osasuna (faktore horren inguruan, datuak sexuka banakatuko dira, betiere horretarako datuak daudenean), fauna, flora, lurra, ura, airea, faktore klimatikoak, kultura-ondarea, ondare historikoa, paisaia eta faktore horien arteko elkarreragina barne direla, eta, kontuan hartuak izateko, eragindako ekosistemek ematen dituzten ingurumen-zerbitzuak ebaluatuko dira. Behar izanez gero, beste alderdi batzuk azalduko dira, baldin eta haien ebaluazioa egokiagoa bada prozesuaren aurreragoko beste fase batzuetan, ebaluazioak bikoiztea saihesteko.

i) Beharrezkoa bada, Natura 2000ko tokietan eragindako ondorioen balorazioa, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean ezarritako araudiari jarraiki, eta kasuak behar duen xehetasun mailarekin (Habitatei buruzko

92/43/EEE zuzentarauaren 6. artikuluaren 3. eta 4. paragrafoen xedapenei buruzko metodologia-gida, 2. fasea, ebaluazio egokia).

j) Alternatibak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitu bat, bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumen arlokoa eta planaren helburuekiko bat-etortzea eta proportzionaltasuna justifikatuko dituena, batez ere ingurumen-helburuekikoak. Halaber, alternatiben ebaluazioa eta azken hautaketa nola egin ziren deskribatu beharko da, hautatutako gainerako alternatibak aukerarik onentzat hartu ez izanaren arrazoiak zehaztuta eta balioetsitako alternatiba bakoitzak ingurumen-helburuak lortzeko egindako ekarpena azpimarratuta. Ebaluazio horren erreferentzia-esparrua plana aplikatu ezean (0 alternatiba) alderdi garrantzitsuek izango duten bilakaera izango da, c) puntuan aipatutakoa. Proposamen teknologikoen kasuan, aukeren artean hautatzeak berekin dakar aukera horietako bakoitzaren egoerari buruzko laburpen bat ere; hautaketaren arrazoiak justifikatu egin beharko dira, kasu bakoitzean erabilgarri dauden teknika onenen aldean.

k) Plana edo programa aplikatzeak ingurumenean izan lezakeen edozein eragin negatibo garrantzitsu prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den neurrian, konpentsatzeko aurreikusitako ingurumen-integrazioko neurriak, bai eta horien kostu ekonomikoaren estimazioa eta gauzatzeko denboraren planifikazioa ere. Gainera, beheragoko mailako planetan edo horiek garatzeko egitasmoetan kontuan hartu beharreko neurriak ere zehaztuko dira.

l) Eskala proportzionaleko kartografia c), d), e) eta f) idatzi-zatietan jasotako alderdiei dagokienez, baita alternatiben kokapenari buruzkoa ere.

m) Aurreko lerrokadei jarraiki emandako informazioaren laburpen ez-teknikoa, alderdirik nabarmenenak kartografikoki islatuta.

n) Hautatutako alternatibaren/alternatiben bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena, baita plan edo programaren ondorio negatiboak prebenitzeko, murrizteko edo arintzeko neurriena ere, horien ondoriozko ingurumen-kostuak nazioartekotzea bermatuta.

Ingurumen Inpaktuaren Azterketetan erabilitako metodologia garatuko da azterketan eta honako legedi honetan ezarritakora egokitzen da:

- Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Lege Errege Dekretua
- 1988ko irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; horren bidez onartzen da 1302/1986 Lege Errege Dekretua exekutatzeko araudia
- Euskadiko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorra
- 2000ko urriaren 6ko 9/2000 Lege Errege Dekretua; horrek aldatzen du 1986ko ekainaren 28ko 1302/1986 Lege Errege Dekretua, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzkoa
- 2001eko ekainaren 27ko 2001/42 Direktibaren II. Eranskina, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean dituzten efektuen ebaluazioari buruzkoa
- 2001eko maiatzaren 8ko Legea, ekainaren 28ko 1302/1986 Lege Errege Dekretua aldatzen duena, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzkoa
- 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua; horren bidez arautzen da Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren prozedura
- 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 legea, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzkoa
- 211/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena

Era berean, azterketaren baitan, aplikatu beharreko sektoreko ingurumen legedia hartu da aintzat, ingurumena babestearekin eta natura, ura, zarata, hondakinak eta abar zaintzearekin lotuta, baita oro har onartzeko arauetan edo azterketa teknikoetan ezarritako gida balio gisa ere.

Aurrekarien atalean aipatu lez, Erreferentzi Dokumentuak erabakitakoa ere jasotzen da.

3. PLANAREN HELBURU NAGUSIAK ETA BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIN LOTURAK (Anexo II 'a' del 211/2012 Dekretuaren II 'a' Eranskina)

3.1. PLAN OROKORRAREN BERRIKUSTE PREMIAREN HELBURUA ETA JUSTIFIKAZIOA

Getxoko hiria antolatzeko plan orokorraren berrikusketaren funtsezko helburuak ondorengoak dira:

- Hiri lurzoruko zehaztutako antolamendua eraberritu, berriztatu eta osatu
- Hiri lurzoruko esparru libreen eta ekipamendu publiko eta pribatuen maila hobetu
- Sustapen publikoko etxebizitza politika aurreratu bat ahalbidetzeko hirigintza oinarriak ezartzea
- Estimaturiko premien arabera, bizitoki eta jarduera ekonomikoen garapenaren kuantifikazio egoki bat definitzea
- Natura eta ingurumen balioen, baliabide naturalen eta udalaren kultur ondarearen babesa ezarri

Zehaztapen arauemaileak ingurumen eta hirigintza legediak definiturikoaren arabera ezarriko dira, jasangarritasun memoriaren eduki arauemailearen eta plan orokorraren hirigintza arauen bidez.

Azpiegitura zehaztapenak hiri kalitatearen hobekuntza irizpideen arabera ezarriko dira.

Planaren aukerak 8 urteko epealdi baterako ezartzen dira.

Aurreikusitako inbertsioak jarduketa integratuen hirigintza kostuen batez besteko ratioekin bat etorriko dira.

Plan orokorraren berrikusketa gauzatzeko beharra, 14 urtez indarrean daroan plan orokorraren antzinatasunaren ondorioz eta hirigintza plangintza 2/2006 Lurzoru eta

Hirigintza Legearen eta lurralde antolamenduaren zehaztapenetara egokitzeko beharraren eraginez dator.

Dauden aukera elementuak, inbertsio pribatuen ahuleziaren eta babes ofizialeko etxebizitza kopuru handi baten benetako eskaintza posible egiteko soluzioen eskaera kontutan hartzearen ondorio dira.

Hiria antolatzeko plan orokorrak, kontsiderazio zabalenaz interes publikoaren alde egotera derrigortua dago.

3.2. PLANAREN HELBURU NAGUSIAK

Izaera espazialeko plan orokorraren zehaztapen nagusiek, udal lurraldearen gainean lurzoruaren erabileren antolaketa ezartzen dute, lurzoru urbanizaezin bezala sailkatutako lursailetan lurralde antolamenduak ezarritakoa errespetatuz.

Aipaturikoa, udal lurraldean zona ezberdinen mugak ezarri eta hauetariko bakoitzean hirigintza kalifikazio orokorra zehaztu edo erabilera nagusi, onartu eta debekatuak zona bakoitzaren esparru espazialean zehaztean laburbildu daiteke

Kalifikazio orokorra ezartzeaz gain, plan orokorrak izaera orokorreko zuzkidura publikoak ezartzen ditu, eremu publiko eta pribatuak berezituz. Ekipamendu, azpiegitura eta hiriko aisia eta hedapena aire zabalean alorretan administrazio publikoak hiritarrei eskaini beharreko zerbitzu publikoen kalitateari buruzko udal politika ezartzea ahalbidetuz.

Kalifikazio orokorraren gainetik lurzoruaren sailkapena ezarriko da, lurzoruaren jabetzaren erregimena eta eragile urbanizatzaileek eta administrazioak sailkapen mota bakoitzean bere gain hartu beharreko betebeharrak ezagutzeko bidean

Hiri lurzoruak, hirigintza legediak ezarritakoaren arabera hiri eraldaketa jasan duten eremu publiko eta pribatuetako lursailak barne hartzen ditu.

Lurzoru urbanizagarriak urbanizazio berriko eremu publiko eta pribatuetako lursailak barne hartzen ditu. Hauek udalbatzak ezarritako hirigintza politikaren irizpideak jasotako hiri lur izaerako lurzoruen erabileren kuantifikazio aukerak betetzeko beharrezkoak direnak izango dira, Bilbo Metropolitarreko lurraldearen zatiko planak eta lurralde antolamenduaren beste lurraldearen plan sektorialak ezarritakoa errespetatuz.

Plan orokorraren “izaera espazialeko” zehaztapen hauek, hiri lur izaerako erabilerak eta hiri eraldaketa prozesuak ezartzea onartzen ez den udalerriaren beste lurzoruetan kalifikazio orokorreko zehaztapenak ezarriz osatzen dira. Lursail hauek lurzoru urbanizaezin bezala sailkatzen dira.

Lurzoru urbanizaezineko lurzoruak bitan banatzen dira: Baliabide naturalen ustiapen erabilerei lehentasuna ematen dioten lursailak eta erabilerek, lursailek dauzkaten ingurumen balioak kontserbatzea eta hobetzea eragozten dituzten lursailak. Kontserbazio eta hobetzeari lehentasuna emango zaio kalifikatzeko orduan.

Kalifikazio orokorrean eta honen garapenerako definituriko esparruetan hirigintza exekuzio prozesuen lurralde antolamendua, hirigintza antolamenduaren garapen eta exekuzioaren denbora programazioaren bidez ezartzen da. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezarritakoaren arabera, inbertsioen eta lurzoruaren erabilera berrien ezarpenen prozesu ordenatu eta sekuentzial bat ezarriko da.

Plan orokorrean definitu beharreko azpiegiturak, kalifikazio orokorrak definituriko eremu publikoen lurzoruaren erabileren gaur egungo eta proiektaturiko egoeraren premiei dagozkienak izango dira. Hauen helburua garraio eta komunikazio, energia banaketa eta zaborren jasotze eta tratamendu beharrak betetzea da, lurralde antolamenduaren tresnek ezarritakoaren arabera.

Plan orokorraren hirigintza arauek bereziki, zona bakoitzeko kalifikazio orokorra ezartzeari erantzuten diote, publiko edota pribatua izan, erabilera nagusia eta onarturiko beste erabilerak ezarriz eta zona bakoitzean onarturiko erabilera guztien ezarpenaren intentsitatea zehaztuz

Plan orokorraren exekuzioaren programazio epeekin eta zonabanatze eta kalifikazio orokorrarekin koordinaturik egiturazko antolamenduaren kalifikazio orokorra garatzeko esparruak ezartzen dira, hiri lurzoruan areak eta lurzoru urbanizagarrian sektoreak definituz. Esparru hauek hiria antolatzeko plan berezien eta plan partzialen bidez garatuko beharko dira.

3.3. BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIN LOTURAK

Atal honetan lurralde antolamenduaren tresna nagusiak eta hauek Planaren proposamenetan dituzten ondorioak aztertzen dira.

BILBAO METROPOLITARRAREN LZP

Bilbo Metropolitarreko Lurraldearen Zatiko Plana, irailaren 26ko 179/2006 Dekretuaren bidez behin betiko onartua. LZP hau, Bilbo Metropolitarreko Eskualde Egituraren egitura definitzeko eta lurralde eredua arautzeko LAGtik abiatuta garatutako lurralde antolamenduaren tresna da. Era berean, udal hirigintza antolamendua zehazteko erreferentzi tresna da.

Bilbo Metropolitarreko Eskualde Egituraren LZPren helburu nagusiak *ingurune fisikoarekin eta hiri espazioaren transformaziorekin eta jarduera ekonomiko berriarekin jarrera eraginkor eta konprometitu bat lortzea da, 16 urteko denbora epe baten lurraldean eragina duten ekintzak koordinatuz, Eskualde Egituraren garapen jasangarria bermatzeko. Laburbilduz, helburu nagusia "metropoliaren eraikuntza" da.*

LZPren jarduketa estrategiak Ekintza Egituratzaile eta Operazio Estrategiko jakin batzuetan zehazten dira.
Helburua *Eskualde Egituraren garapen jasangarria bermatzea* izanik, ondoren Getxoko udalerrian afekzioa duten Ekintza Egituratzaileak eta Operazio Estrategikoak adierazten dira.

<u>Ekintza Egituratzaileak</u>

Bide artikulatzaileak Eskuineko Ibaiertzeko Barnebidea. (AE.5)

Metro. Gaur egungo sarearen hobekuntza (AE.16)

Natura ibilbideen sarea Sare Berdea (AE.19)

Ibaiertzeko parkeak (AE.20)

Itsasadarraren nabigagarritasuna (AE.21)

Getxon ontzi handien porturatzea (AE.22)

Bidegorri sarea (AE.23)

Operazio Estrategikoak

Uribe Kostako garapen berriak. (OE.12)

Kostaldeko Parke Metropolitarra (OE.20)

Hiri hondakinen tratamendua (OE.21)

Hondakin arriskutsuen tratamendua eta kutsaturiko lurzoruak (OE.22)

Burbuila Atmosferikoa (OE.24)

NEKAZARITZA ETA BASOZAINTZAKO LPS

Irailaren 16ko 177/2014 Dekretu bidez, Euskal Autonomi Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzen da.

LPS honen helburu nagusiak ondorengoak dira:

- Nekazaritza-lurra definitzea eta babestea, nekazaritza- eta basogintza-jarduera orekatu baterako ezinbesteko baliabide gisa.

- Egungo landa-egoera zehaztea: Nekazaritza-jarduerak, ustiategi produktiboenak, lehentasunezkoak, uzte-arrisku handienekoak, mehatxu handienak… non dauden jakitea.

- Plangintza landa-irizpideetatik planteatzen duen lurralde-antolamendu bat bultzatzea. Zentzu honetan, LAGen Ingurumen Fisikoaren Gidalerrotik abiatuta, nekazaritza eta basozaintza beharrizan eta ikuspuntuak jaso beharko ditu. Honela, hainbat erronka planteatzen dira:

  1. Nekazaritza- eta basogintza-jarduerak ingurumenaren kontserbazioa bermatuko duten funtsezko faktoreen artean finkatzea.

2. Kantitateari eta kalitateari dagokienez, nekazaritzako eta basogintzako jarduerak bideragarritasun-baldintzetan garatzeko behar diren azalerak ziurtatzea.

3. Landako eragile eta populazioak antolamendu- eta babes-politiketan inplikatzea.

4. Landakoaren zeregina berriz ere definitzea, industriondoko fasean sortutako esparru sozioekonomikoaren ikuspegitik: herri-erabilera, bizikalitatea, etab.

- Jarduketa tresna baliozkoak eta aplikagarriak planteatzea, sektorea eta bere baliabideak babestuko dituztenak nekazaritza eta basozaintza ez diren erabileren aurrean (nagusiki azpiegiturak eta bizitegi edo industria erabilerak), eta konbergentzia eremuetan planeamenduen arteko koordinazioa segurtatuko dutenak.

- Nekazaritza eta Basozaintza Plan Estrategikoak, LAG, etab. aurre dokumentuetan jasotako planifikazio eta lurralde eta sektore antolamendu gidalerro eta irizpideak jaso.

- Udal planeamenduak jaso beharreko lurzoru urbanizaezineko zonifikazioaren irizpideak eta kontzeptuak gomendatu, LAGek proposaturiko Ingurumen Fisikoaren kategorizazioa LPSn eginez.

- Nekazaritzaren babesa ingurumenekoarekin bateratzea.

- LPS honen emaitzen ezagutza segurtatu lurralde kudeaketa eta plangintza dokumentuetan aintzat hartzeko. Tresna honek nekazaritza eta basozaintza politika, gainerako politika sektorialekin lurralde eremu bateratu baten integratzeko ematen duen aukera aprobetxatu.

LPS honen barnean, udal plangintzaren Lurzoru Urbanizaezinaren kategorizazioan, oinarri gisa LPSk proposaturiko *Antolamendu Kategoriak* erabiliko direla finkatzen da, haien mugaketa udal errealitatera eta eskalara doituz.

Bestalde, Balio Estrategiko Altua azpikategoriaren mugaketak izaera loteslea izango du. Gainerako mugaketak gutxi gorabeherakoak dira eta plangintzak behar bezala justifikatuz aldatu ahal izango dira.

Era berean, Erabilera Publikoko Mendien eta mendi babesleen mugaketa loteslea izango da eta bere legedi sektorialean finkatutako termino eta prozeduren bidez bakarrik aldatu ahal izango dira.

EAEKO IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO LPS

EAEko ibai eta erreka ertzetako antolamenduari buruzko Lurraldeko Plan Sektoriala 1998ko abenduaren 22ko 415/1998 Dekretu bidez onartu zen behin betiko. LPS honen Aldaketa azaroaren 19ko 449/2013 Dekretu bidez behin betiko onartzen da.

LPSren aplikazio esparrua Euskal Autonomia Erkidegoko ur-ibilgu guztien alde bakoitzean kokaturiko 100 metro zabalerako lurzoru banda multzoak osatzen du, bai Kantauri zein Mediterraneo isurialdean, baita haien urtegi, laku eta aintziren inguruan kokaturiko 200 metroko lurzoru banda ere.

Hirigintza garapen berrik izan daitezkeen eremuetako ibaiertzetako zehetasunezko araudian, LPSk ondorengo atzerapenak finkatzen ditu:

Niveles de tramos de cauces	Superficie cuenca afluente km^2	Retiro mínimo de la edificación metros	Retiro mínimo de la urbanización metros
VI	600 < C	35	20 (25)
V	400 < C ≤ 600 km^2	30	15 (20)
IV	200 < C ≤ 400 km^2	26	11 (16)
III	100 < C ≤ 200 km^2	20	8 (10)
II	50 < C ≤ 100 km^2	16	6 (8)
I	10 < C ≤ 50 km^2	12	2 (4)
0	1 < C ≤ 10 km^2	12	2 (4)

LPSan identifikatutako ibaien bideak Nerbioi ibaia, udalerriaren hego-mendebaldeko muga finkatuz, Gobela, udalerriaren zati handi bat zeharkatuz ipar-hego norabidean, eta honen zenbait ibaiadar ekialdetik isurtzen dutenak (Itze edo Eguzkiza eta Larrañazubi edo Bolue).

Plan honek aztertutako alderdi ezberdinen arabera, aipaturiko ibaien bideak ondoren adierazten den modura deskribatzen dira:

⇒ **Ingurugiroari buruzko alderdiak:** Ez dago alderdi honi dagokion kategoriarik ertzetan, hala ere, eremu osoa *Akuiferoen urratze-arrisku handia edo oso handia duten eremu* gisa adierazita dago.


GOBELA 7
GOBELA 6
GOBELA 5
GOBELA 3
GOBELA 2
GOBELA 1


GOBELA 0
GETXO
NERVION 2
NERVION 3
NERVION 4
NERVION 5
SESTAO

⇒ **Hidraulikari buruzko alderdiak**: Nerbioi ibaiak VI mailako emaria dauka (>600 km^2), gainera gaur egun bideratuta dago udalerrian. Gobelak 0 (1<C< 10 km^2) eta I (10<C<100km^2) arteko ur emaria aurkezten du, hau ere zati baten ubideratuta dago (lerro gorriak), bai erdiko tarteetan zein azkenengo tartean. Identifikatutako zergadunek 0 maila aurkezten dute.



⇒ **Hirigintzari buruzko alderdia**: Ibaien ibilgu guztiek *Eremu garatuetan dauden ertzak* (marra gorriak) aurkezten dituzte. Gobelaren tarte txiki batzuetan bakarrik *Hirigintza garapen berriak izan ditzaketen ertzak* (lerro laranjak). *Landa-eremuko ertzak* ere identifikatzen dira Larrañazubin (berdea).



Ezaugarri hauen arabera, araudiak atzerapen minimo batzuk ezartzen ditu.

Osagai hidraulikoa	**Hirigintzako osagaia**				
	ALOR GARATUETAKO ERTZAK (eraikuntzaren atzerapen minimoa m-tan)		*HIRIGINTZA GARAPEN BERRIEN POTENTZIALA DUTEN ERTZAK*		*LANDA-EREMUKO ERTZAK (atzerapena m-tan)*
	Mugatze lerroarekin edo bideratzea definiturik	*Mugatze lerrorik gabe edo bideratzea definiturik*	*eraikuntzaren atzerapen minimoa (m)*	*hirigintzaren atzerapen minimoa (m)*	
VI (C>600 km^2)	15	30	35	20(25)	50
I (10<C<100 km^2)	10	12	12	2(4)	30
0 (1<C<10 km^2)	10	12	12	2(4)	15

***Landaretza egoera onean duten ertzekin* bat datozenean, parentesi arteko parametroa aplikatuko zaie.

Atzerapen hauek eraikuntza berrientzat izaera loteslea izango dute eta lehendik dauden eraikinetako ordezkapen, birmoldaketa edo kontserbazio operazioetarako izaera indikatiboa. Proposamen hau lurzoru bakoitzaren sailkapen zehatzaren menpekotasunik gabe egiten da, lurzoru urbanizagarrietan salbu, hauetan atzerapen eremuak lurzoruaren lagapentzat hartu daitezke, nahitaezkoak eta doakoak, tokiko sistema gisa.

Ingurugiroari buruzko alderdiei dagokienez, akuiferoen urratze-arriskua duten eremuetan, aintzat hartu beharreko irizpide nagusia, higadura prozesuen garapenari aurre egiteko oinarrizko tresna gisa, landare-estalkia mantentzea izango da, hondatuta edota landaredirik gabe dagoen kasuetan hobekuntza edo landaredia jarriz. Era berean, landare-estalkia hondatu dezaketen edota lur mugimenduak eragiten dituzten jarduerak ekidingo dira. Akuiferoak kutsatu ditzaketen isurien arriskua modu berezian zainduko da. Eremu hauetan, lurzorua eusteko duten ezaugarrien arabera aukeratutako zuhaitz edo zuhaixka espezieak landatzea edo ereitea ahalbidetuko da. Higadura-prozesuak ekiditeko kultura prozedura egokienak jarraituko dira.

Getxoko udalerrian, Gobela ibaiari dagozkion uholde-arriskuaren guneak identifikatzen dira 10, 100 eta 500 urteko aldietarako etorbideentzat.

Lurraldeko Plan Sektorialaren aldaketak ***E1 LURZORUA ERABILTZEKO IRIZPIDEAK URAK HARTZEKO ARRISKU MAILAREN ARABERA*** atalean adierazten duen moduan, Plan alorrean kontuan hartu behar litzateke honako hau:

- **10 urteko birgertatze aldiko uholdeak izaten dituzten eremuak:**

Egun urbanizatu gabe dauden eremuak. Lursail zati horretan mantentze lanekin eta ibaiko ekosistemarekin eta gaitasun hidraulikoarekin estu lotuta ez dagoen hirigintzako erabilera oro baztertu beharko da. Ibai ertzetako jarduerak eragiten dieten ibaiaren tarteko egoera ekologiko ona lortzera edo mantentzera bideratuta egongo dira.

Gaur egun finkatutako hirigintza duten eremuak. Tarte horietan lehendik dauden eraikinen migrazioa bultzatuko da eta eragindako lurren kalte-ordainak eta erabileraren berrikusketa jorratzea ahalbidetuko duten balioespenekin planak egingo dira.

Inolaz ere ez dira eremu horien eraikuntza edo hirigintza ekarriko duten aprobetxamendu berriak baimendu behar.

- **10 eta 100 urte arteko birgertatze aldiko uholdeak izaten dituzten urak hartutako eremuak:**

Egun urbanizatu gabe dauden eremuak. Eremu horietan ez dira onartuko bizitegiko, merkataritzako eta industriako eraikuntza erabilerak eta ibilguekiko paralelismoaren joerarekin diseinatutako azpiegitura linealak. Egokiak izan daitezke aisialdirako, balio naturalak areagotuko dituzten berdeguneetarako eta abarretako. Nolanahi ere, larrialdietarako, iragarpenetarako eta ebakuazioetarako prozedura egokiak egon behar dute.

Gaur egun finkatutako hirigintza duten eremuak. Horietan, beste irizpide batzuen artean, eraikuntzen birkokapena bultzatu behar da eta zaharkitutako instalazioen eta eraikuntzen arrisku gutxiagoko eremuetarako migrazioa sustatu.

- **100 eta 500 urteko birgertatze aldiko uholdeak izaten dituzten lerro artean kokatutako eremuak:**

Egun urbanizatu gabe dauden eremuak. Hirigintzako jarduera berriak baimendu ahal izango dira, baina beste lursailen eskuragarritasunik eza behar adina justifikatzen denean bakarrik. Irizpide hauek jarraituko lirateke:

Hirigintzako aprobetxamendu multzo zabala onargarria litzateke, oinarrizko azpiegitura publikoak izan ezik, hala nola ospitaleak, suhiltzaileak edo antzeko zerbitzu publikoak.

Hirigintza aprobetxamendu onargarri horien kokapena 500 urteko birgertatze aldian urak hartzeko arriskutik libre geratzeko moduko kotan garatu beharko da.

Gaur egun finkatutako hirigintza duten eremuak. Eremu horietan dauden erabilerak gorde ahal izango dira, nahiz eta arriskuaren gainean jardutea ahalbidetuko duten isolatutako neurri zuzentzaileak hartzea gomendatzen den eta horren joera kalteen maila murriztea eta lehendik dauden eraikinen zaurkortasuna ezabatzea izan.

- **500 urteko birgertatze aldiko uholdeen orbanetik at geratzen diren eremuak:**

Gaur egun urbanizatu gabe dauden eremuak. Ez da erabilerako murriztapenik finkatzen, jardueraren ondorioz egoera naturalean isurketak duen balioarekiko edo lehendik duen egoerarekiko areagotzea ez eragitea bermatzea salbu.

Eremu horiek ezin hobeak dira ospitaleak, suhiltzaileak eta antzeko beste azpiegitura publiko batzuk jartzeko.

Egun finkatutako hirigintza duten eremuak. Drainatze iraunkorreko diseinuak infiltrazioa bultzatzeko eta ibilguetara emarien sarrera atzeratzeko joera duten hirigintzen berrikuntzan sartzea egingarria gertatzen den kasuetan jarriko da.

HEZEGUNEEN LPS

Euskadiko hezeguneen lurraldeko plan sektoriala Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak onartu zuen 2004ko uztailaren 27an 160/2004 Dekretu bidez.

LPS honek hezeguneen inbentario bat egiten du. Getxoko eremuaren kasuan II taldeari dagokion hezegune bat jasotzen da “Bolueren haraneko istiltzeak”, B10B3 kodearekin eta LPSren araudiak erregulatua. Antolamenduaren helburua hezegunea mantentzea da eta hasitako birgaitze eta kontsolidazio jarduketa jarraitzea. Eremu hau, hirigintza presioaren

pean desagertu edo aldatutako Bolue eta Gobela errekastoen padura gunearen lekuko da, era berean, bere mantentzeak sortu duen interesa aprobetxatu eta bultzatu nahi da.

LPSk finkaturiko zonifikazioa ondorengoa da:

1 Zona. Ur lamina eta ertzak.
Bolueren ibilgu nagusia, ubide sekundarioak, zuhaitz eta lezkadiz jositako ertzak eta betetze bideetan larre hezeak.

2 Zona. Gertuko banda.
50m zabalerako babes banda ipar eta ekialdeko zonetan, alboko landazabal eremuetan eta Uribe-Kosta korridoreak ukitutakoak.

3 Zona. Ingurunea.
Aurrekoaren zentrokide den 100 metroko banda. Gainazaleko elikatze azpi-arroa aintzat hartuko da hezegunearen hornidurarako ziklo naturalak ziurtatzeko.

Eguneratutako hezeguneen zerrendaren arabera, 2011ko maiatzaren 3ko Agindua, hezegunea III Multzoan identifikatzen da “Gorrondatzeko Putzua” gisa. Hezegune honek ez dauka babes espezifikorik, beraz udal plangintzaren bidez babestu eta kudeatuko da.

BIZKAIKO ERREPIDEEN LURRALDE PLAN SEKTORIALA

1999ko apirilak 15ko Foru Arau Bidez onartua, eta ondorengo aldaketak onartuak:

- ⇒ *112/2002 Foru Dekretua, ekainak 25koa, “Itsasadarraren ardatza”-ren ibilbide zuzena aldatzen duena.*
- ⇒ *4/2005 Foru Araua, martxoak 10koa, Metropoli Hegoaldeko Saihesbidea sartzeko.*
- ⇒ *208/2007 Foru Dekretua, azaroak 20koa, Zorrotzaurreko Penintsularen garapenean sartu beharreko hirigintza zehaztapenak jasotzeko.*

LPS-ren onarpen Foru Arauaren 30 artikuluaren arabera, errepideen eraginpeko eremu ezberdinak.

- **Jabari publikoko eremua**: Errepideek okupatutako lurrak eta haien elementu funtzionalak eta errepideko lur-zerrenda bat osatua. Lur-zerrenda horrek zortzi metroko zabalera izango du autobide, autobia, automobil-bide eta lehentasunezko sareko errepide arruntetan; gainerako errepideetan, berriz, hiru metroko zabalera.
- **Zortasun eremua:** Jabari publikoak mugatutakoa gehi autobide, autobia, automobil-bide eta lehentasunezko sareko errepide arruntetan 25 metro eta gainerako errepideetan 8 metroko lur-zerrendak osatzen du.
- **Eraginpeko eremua:** Zortasun eremuak mugatutakoa gehi autobide, autobia, automobil-bide eta lehentasunezko sareko errepide arruntetan 100 metro, oinarrizko sarearen errepideetan 50 metro eta gainerako errepideetan 30 metroko lur-zerrendak osatzen du.
- **Eraikuntza lerroa:** Autobide, autobia, automobil-bideen galtzadaren kanpotik 50 metrora kokatzen da, lehentasunezko sareko errepide arruntetan eta oinarrizko sarearen errepideetan 25 metro, eskualde errepideetan 18 metro eta tokiko sarearen errepideetan 12 metro. Hiri saihesbideen kasuan 50 metrora finkatzen da.

LPS honetan, Getxoko udalerriaren barnean ondorengo errepideak aurkitzen dira:

- Oinarrizko sarea.
    - BI-637 (Uribe Kostako barne-bidea)
- Tokiko sarea:
    - BI-3722
    - BI-3737
    - BI-3730

LPPk ondorengo hobekuntza jarduerak definitzen ditu azpiegitura hauentzat:

- Uribe Kostako Barne-bidea izeneko trazaduran, Mimenaga-Sopela bide-zatian galtzadaren bikoiztea aurreikusten da (1 Fasea).
- Hondartzetako Sarbide azpiegitura berriak.
- Uribe Kosta- Ballonti ardatza bide-zatian, Lamiako Korridorean azpiegitura berriak.

EAEKO TRENBIDEEN AZPIEGITURA ANTOLATZEKO LPS

2001ko otsailaren 27an onartua. Udal antolamendurako tresnak trenbideen azpiegitura antolatzeko LPS-ra egokitu beharko direla ezartzen da, trenbide erabilerako garraio sistema orokorrerako beharrezkoa gordez. Era berean, otsailak 22ko 34/2005 Dekretu bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planaren barruan Bilboko metropoliko eta zenbait udalerritako trenbidearen antolamenduari buruzko aldaketa behin betiko onartu zen.

Errepideen LPS-k bezala, Plan honek eragin banda batzuk finkatzen ditu:

- Jabari publikoko eremua, zabalera aldakorra eta titulartasun publikokoa.
- Zortasun eremua, hiri lurzoruan 8 metro eta gainerako lurzoruetan 20 metroko lur-zerrendak.
- Eraginpeko eremua, hiri lurzoruan 25 metro eta lurzoru urbanizagarri eta urbanizaezinean 50 metroko lur-zerrendak.

Getxok Bilbo-Plentzia Trenbide Metropolitarraren trenbide azpiegitura du, LPS-ren zehaztapenen arabera exekutatua.

Azpiegitura honi dagokionez, ondorengo proposamena definitzen da:

- Getxoko saihesbidea: Indarrean dagoen udal plangintzaren planteamenduaren arabera Getxoko Andra Marin BTM-ren ibilbide aldaketa jasotzen da. Hala ere, gaur egungo BTM-ren korridorea mantentzea beharrezkotzat jotzen da, Martiturriko geltoki berriaren eraikuntza ahalbidetuz.

KOSTALDEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO LPS

Martxoaren 13ko 43/2007 Dekretuaren bidez, behin betiko onartzen da. Kostaldea babesteko eta antolatzeko LPS-ren antolamendu eremua bat dator estatuko Kostaldearen Legean (22/1988 Legea) definituriko Eraginpeko Eremuarekin: “Itsasertzaren barne muturretik neurtuta 500 metroko zabalera minimoko lur-zerrenda”. Eremu hau ibai

ertzetatik, marearen eraginpeko zonara hedatzen da. Euskal Herrian eraginpeko zona hau 5 metrotako kotari dagokio.

LPS honen helburuak ondorengoak dira:

1. Itsasertzeko zerrendaren antolamendua definitzea, eta Lurraldearen Antolamendurako Artezbideetako ingurune fisikoaren antolamenduaren artezbidea garatzea.
2. Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko administrazioaren programak eta arloko planak bateragarri egin ahal izateko administrazio-koordinazioko programa zehaztea.
3. Itsasertza leheneratzeko ekimenak eta hirigintza eta administrazio arloko ekimenak bilduko dituen jardun-programa integratua adostea, inplikatutako organismo eta erakundeen eskumen-erantzukizunaren ikuspuntutik ez ezik, planteatzen diren inbertsioen erantzukizun ekonomiko-finantziariotik ere.

Getxoko udalerrirako LPS-k ondorengo zonifikazioa egiten du:

- Babes berezi zorrotza
- Babes berezi bateragarria
- Ekosistemen hobetzerako eremuak
- Basokoa
- Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko eremua
- Hiri hondartzak

KULTUR ONDAREKO LPS

Kultura Ondareko Lurralde Plan Sektoriala egun tramitatzen ari da (Aurrerakin Dokumentua 2001ko ekainak 13 Onartua).

Getxon ondarearen elementu desberdinak nabarmentzen dira: Galea Lurmuturreko Itsasargia, Aixerrotako Errota (Andramari), Errotaetxeko Ur-errota Bolue errekan,

Mimenagako Ur-errota (Andramari), Boluzarretako Ur-errota, Ibarreko Errota Ur-errota, Kukullaga Bekoa Ur-errota, Arriluzen Itsasargia, Algortan Iturria, Negurin Iturria, Karmengo Eleizan Iturria, Areetan Iturria, Zubi Esekia iturria. Bizkaiko Zubi Esekia, Gizadiaren Ondare izendatua (UNESCO 2006) eta Getxoko Elizateko Eremu Berezian Monumentu Multzoa nabarmentzen dira.

Getxoko udalerrian balizko arkeologia gune gisa sailkatututako eremuak ere aurkitzen dira.

KOSTALDEARI BURUZKO LEGEA

Kostaldeari buruzko 22/1988 Legeak (aldaketa *2/2013 Lege* bidez) itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren eta bereziki itsasertzaren zehaztapen, babes, erabilera eta polizia finkatzeko helburua du.

Kostaldeari buruzko Legearen arabera itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren ondasunak, besteak beste, ondorengoak dira:

- Itsasertzak eta itsasadarren ertzak:
  - ❖ itsaso eta lehorraren arteko eremua, eskoratutako itsasbeheraren edo ekinozioko marea bizienaren lerroaren eta ezagutzen den denboralerik bortitzenean olatuak heltzen diren puntuaren edo gainditzen badu, ekinozioko itsasgora bizienaren arteko espazioa da. Eremu hau ibai ertzetatik, marearen eraginpeko zonara hedatzen da.
  - ❖ Hondartzak
- Jurisdikziopeko urak eta barneko urak, bere ohe eta zorupearekin
- Portuak eta estatuaren portu instalazioak

Kostaldeari buruzko Legearen arabera ezartzen diren zortasunak ondorengoak dira:

- **Babes zortasuna:** esparruan dauden itsasadar tarte guztiak hiri lurzoruan aurkitzen dira, beraz Itsasertzeko lerrotik 20 metroko distantzia batera definituriko lerro paralelo batekin mugatzen da. Babes Zortasun eremu honetan, Kostaldeari buruzko legediaren Xedapen Iragankorraren arabera,

lehendik dauden erabilerak eta eraikinak errespetatuko dira eta zortasunaren eraginkortasuna bermatzen bada eta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoari kalterik egiten ez bada, indarrean dagoen antolamendu plangintzaren arabera erabilera zein eraikin berriak baimendu ahalko dira.

- **Bide zortasuna:** Itsasertzeko lerrotik 6 metroko distantzia batera definituriko lerro paralelo batekin mugatzen da. Kostaldeari buruzko Legearen arabera, eremu hori uneoro libre egon beharko da, lurzoru zein hegal aldetik, oinezkoen zein zaintza eta salbamenduko ibilgailuen pasorako.
- **Itsasora sarbide zortasuna:** Itsasora sarbide publiko eta doakoaren zortasuna, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren aldameneko lurretan emango da, sarbidearen izaerak eta helburuak eskatzen duten luzera eta zabalerarekin.

Bestalde, 500 metroko eraginpeko eremu bat ezartzen da muga jakin batzuekin.

Getxon Sopelako mugatik Galea Lurmuturreraino ILJB-ren ondasunen mugaketa onartuta dago. Galea Lurmuturretik Leioako mugarainoko tarterako, mugaketa espediente bi izapidetze lanetan daude.

Lurralde loturari dagozkion espediente hauek bukatzerakoan, beharrezko zuzenketak egin beharko dira.

PORTUEI BURUZKO LEGEA

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko 27/1992 estatu Lege sektorialak, *itsas portu deritzo lehorreko eremuen, itsas uren eta instalazioen multzoari, baldin eta, itsasertzean edo erriberan kokatuta, multzo horrek portuko trafikoaren eragiketak gauzatzea ahalbidetzen dituzten baldintza fisiko, natural edo artifizialak eta antolakuntza baldintzak betetzen baditu, eta Administrazio eskudunak jarduera horiek gauzatzeko emandako baimena lortzen badu*. Lege honek Bilboko Portua interes orokorreko portu gisa sailkatzen du.

27/1992 Legearen 18.1 artikuluaren arabera:

"Portu-eremuaren gainean baterako eskumenak dituzten Administrazioen arteko beharrezko koordinazioa bideratzeko, hirigintza-antolamenduko plan orokorrek eta gainerako tresna orokorrek estatuko portuen zerbitzugunea portuko sistema orokor gisa kalifikatu beharko dute, eta ezin izango dute jaso portua ustiatzeko eskumenen egikaritzari begira nahasmenduak edo kalteak eragiten dituzten xedapenak."

Irailaren 5ko 2/2011 Legegintzako Erret Dekretuak, Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen du.

Uztailaren 20ko FOM/2492/2006 (Sustapen Ministerioa) Agindu bidez behin betiko onartutako Portuko Espazioen Erabilera Planaren arabera:

a) Portu erabileren lurreko eta uretako espazioak definituz, zerbitzu gunea mugatzen da.

b) Aurreikusitako erabilerak esleitzen ditu :

-ur geruzaren gainean: Portuko Uren Eremua (Barneko eta Kanpoko)

-lurraren gainean: Lurreko Zerbitzu Eremua

Getxoko udalerrian, area bi besterik ez dira kokatzen, 2. area "Bilbotik Abraraino itsasadarra" eta 3. area "Abrako eskuineko ibaiertza", azken honek osotasunean udalerriari eragiten dio.

4. NAZIOARTEKO, ERKIDEGOKO, ESTATUKO, AUTONOMIA, FORU EDOTA TOKIKO BARRUTIETAN FINKATUTAKO INGURUMENA BABESTEKO HELBURUAK. PLANGINTZAN HELBURUAK INTEGRATZEA (D/211/2012 II Eranskina 'b')

Erreferentzi Dokumentuak, abiatze dokumentuan jasotako zehaztapenak eta erreferentzi helburuak egokiak direla adierazten du, baita Planaren elaborazioan ondorengo ingurumen irizpide estrategikoak gehitu beharko direla:

1. Beharrak aztertzea, aurreikusitako garapenak ez daitezen izan neurriz kanpokoak.
2. Lurzoru antropizatuak berrerabiltzea sustatu eta horri lehentasuna ematea, lurzoru natural urbanizatu gabeak artifizialdu ordez. Herriko jatorrizko guneetan eraikita eta urbanizatuta dagoen ondarea berroneratu eta hutsik dauden etxebizitzak erabili.
3. Lurraldearen harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak etab. ebaluatzeko aukera ematen duen udalerriaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egitea.
4. Erabilera ugariko hiri-egitura itxi, trinko eta konplexuak sustatzea. Hurbiltasunezko hirigintza indartzea eta joan-etorriak egiteko beharrak murriztea.
5. Lurzoruaren neurriak ezarri eta lurzorua sailkatu eta kalifikatzean eskuragarri dauden ur-baliabideak eta lurraldearen zama-edukiera aintzat hartzea. Uretako baliabideak eta ingurunea babestu, zaindu eta oneratzea (ur kontinentalak, lurpeko edo lurrazaleko urak, ibai-oheak, ibilguak, ur-bazterrak eta ertzak, trantsizioko urak eta kostaldeko urak).
6. Hiriguneko berdeguneen eta ibai-tarteen kalitatea hobetzea.
7. Lurralde-plangintzan, hirigintza-plangintzan eta plangintza sektorialean sartu eta onartzea 500 urteko errepikatze-aldirainoko uholde-orbanak, eta hirigintza-garapen berriak ezartzea saihestea.
8. Landa-lurzoru urbanizaezinaren erabilera-araubide bat ezartzea, zeina bat datorren lurraldearen natura- eta kultura-balioekin, lurraldearen kontserbazioa bultzatuz. Erabileren araubidetik, tokiko ekoizpena eta jarduera tradizionalak

zaindu eta/edo sustatzea (nekazaritza eta abeltzaintzakoak, basozaintzakoak, etab.) Argi eta garbi ezartzea aisialdiko erabileren eta lurraldeko erabilera tradizionalen arteko aukerak eta bateragarritasun-mugak.

9. Dibertsitate biologikoaren galera geldiaraztea, ekosistemak leheneratzea eta zoruaren artifizialtzeari mugak jartzea.
10. Udal-plangintzan paisaiaren faktorea sartzea. Natura- eta/edo landa-paisaia zainduz; Katalogatutako Ikus Arroak bereziki nabarmenduz.
11. Hondakinak tratatzeko eta kudeatzeko eremu-kopuru egokia aurreikustea.
12. Inguru garbi eta osasungarri bat bermatzea, airearen kalitatea hobetuz.

Aurrerakinaren proposamenen edukian plan orokorraren 7 alternatiba jasotzen dira, 4 herritarren partehartze foroaren Lantaldeak proposaturikoak (L1, L2 L3 eta L4) eta 3, beste bi osagarrirekin, planaren erredaktore taldeak landutakoak (T1, T2/T2' eta T3/T3').

Lantaldeak proposaturiko alternatiben ardatzak ondorengoak dira:

L1 aukera

- Iraunkortasuna gizartea, kultura, ingurumena eta ekonomia arloak biltzen dituen kontzeptua da. Denak bermatu behar egin behar dira iraunkorrak izan daitezen.
- Gaur egun munduko biztanle kopurua behera egiten ari da.
- Ez da lurzoru gehiago bete behar. Hiri lurzoruan, etxebizitzetarako bideratuta dauden eta bete gabe dauden lurzoruak libre utzi behar dira. Horrez gain, espazio libreak eta ekipamenduak ere diseinatu egin behar dira.
- Gaur egungo higiezinen parkearen aukerak maximizatzea: Hutsik dauden etxebizitza guztiak merkatura ateratzea,etxebizitzen zatiketa erraztea, atikoak etxebizitza bihurtzea eta erabiltzen ez diren baserriak edo etxebizitzak birgaitzea.
- Udalerriko kultura-paisaia berreskuratzea.
- Kapital naturala eta biodibertsitatea mantentzea eta aztarna ekologikoa murriztea.
- Ekosistemen zerbitzuak hobetzea.
- Modu egokian kudeatzea eta Getxok turismoaren eta kulturaren arloetan dituen aukerei etekina ateratzea.
- Daukaguna zaintzeak du lehentasuna: dauden baliabideei etekina ateratzea, ondare historiko eta artistikoa berreskuratzea eta babestea. Horrez gain, landa-sektorea sustatzea.

L2 aukera

- Ingurumenean oinarritutako iraunkortasuna.
- Lurzorua hartzeko batez besteko dentsitatea (50 eta 70 etxebizitza artean hektareako).
- Hiri lurzoruaren lohiz betetzea eta Andra Mariako/Azkorriko lurzorua ez ukitzea. Dagoen eskaintza kontuan hartzen denean, etxebizitzak banatzean sortzen diren etxebizitzak, hutsik daudenak, atiko eta lokalen aprobetxamendua eta bestelakoak kontuan hartu behar dira, eraikuntza berriaren bolumena murrizteko. Gutxi gorabehera 1.900 etxebizitzako eskaintza guztira.
- Ekonomia-jarduerak bizitegi-erabilerekin bateragarriak izango dira (I+G+b, merkataritza, ostalaritza, hirugarren sektorea...), erabileren irtenbide trinkoago baten bidez.
- Garrantzitsutzat jotzen dugu ekonomia-jardueretarako bideratutako lurzorua merkataritza-zentroak sortzeko ez erabiltzea.
- Ez da proposatu behar zerbitzurik gabeko eremurik.

L3 aukera

- Biztanleria zaintzeko beharrezkoa den gutxieneko etxebizitza kopurua sortzea, lurzoruan ahalik eta eraginik txikiena izan dezan, eta gazteak kanporatzea saihesteko.
- Getxoko erabilera produktiboa, ekonomikoa, eta enpresa-erabilera sustatzeak lehentasuna du.
- Getxoko ondare historikoaren erabilera sustatzea, ekonomia-jardueraren eragile gisa: Portu Zaharra, Andra Mariako eliza.
- Getxo metropolitzat hartzea.
- Aztarna ekonomikoa muturrik gabe murriztea saiatzea.

L4 aukera

- Biztanleriaren hazkundea bilatzea.
- Lurzorua kudeatuz, urbanizatuz, lurzoru-masa handiak lortzea erabilera publikoko espazio libreetarako eta ekipamendu onetarako.
- Hiri lurzorua lohiz betetzea + 108 hektareako bizitegi-sektorea + 12 hektareako ekonomia-jarduerak. Gutxi gorabehera 9000 etxebizitzako eskaintza guztira.

- Hiri lurzorurako proposatutako dentsitateak murriztu beharko lirateke hiri lurzorua desasetzeko. Hiri lurzoruan batez besteko dentsitatea baino handiagoa den dentsitaterik ez erabiltzea.
- Azkorriko eremuan kostaldeko parke bat proposatzea arlo publikoaren barruan.

L1, L2 eta L3 alternatibak, neurri handiago edo txikiago baten ingurumen irizpide estrategikoekin bat datoz. L4 alternatiba lurzoruaren okupazio adierazgarri baten oinarritzen denez helburu hauetatik aldendu egiten da.

Erredaktore-taldeak aukera tekniko proposatzen ditu. Aukera horien xedea da hiri lurzoruaren kalifikazio orokorraren berezko alderdiak zehaztea, eta biztanleriaren bilakaeraren irizpideak aplikatzea, helburu horretarako Eusko Jaurlaritzak lurraldearen antolamenduko gidalerroak aldatzeko egin duen azken dokumentuan ezarritakoa kontuan hartuz, biztanle kopurua mantentzeko aukera barne.

Halaber, aukera hauetan, foroak hiri lurzoruan ekipamenduak eta zuzkidurak ezartzeko ezarritako irizpideak erabili dira, bereziki sistema orokorrak, ekipamendu publikoak, oinezkoen bide-sistema eta bidegorriak definitzeko irizpideei dagokienez. Horrela, hiri lurzoru osoan oinezkoen komunikazio-sare handia sortuko da, hala badagokie, oinezkoen eta ibilgailuen bideen plataformei gainjarrita, plataforma independente bat izatea ezinezkoa denean, oinezkoen eta bizikleten ibilbide independente bat egitea posible den tarte gutxietan izan ezik.

Ondorioz, alternatiba teknikoak ere ingurumen irizpide estrategikoekin bat datoz, ondorengo ataletan aztertzen diren era askotako soluzioekin.

5. INGURUMENAREN EGUNGO EGOERAREN ETA IZAN DEZAKEEN EBOLUZIOAREN ALDERDI ESANGURATSUAK (D/211/2012 II Eranskina ‘c’)

Azterlanaren eremua Bizkaian Getxoko udalerri guztia da eta Bilbo Metropolitarra area funtzionalean sartuta dago. Getxo kostaldeko udalerri bat da eta EAEko ipar-mendebaldean kokatuta dago. Ipar-ekialdean Sopelarekin muga egiten du; ekialdean, Berango eta Erandiorekin; hego-ekialdean, Leioarekin nahiz Kantauri itsasoarekin eta gainerako mugetan Bilboko itsasadarrarekin.

Erabat hiritarra da udalerria, jendetsua eta bere hiriguneek (Getxoko Andra Maria, Algorta, Areeta, Neguri eta Romo) hiri-jarraipena osatzen dute. Nolanahi ere, udal-lurzoru gehiena hartzen dute eta eraikuntzarik gabe bakarrik iparraldean kokatutako lurzoruak gelditzen dira, hain zuzen ere, itsasertzaren bigarren lerroan, itsaslabar eta hondartzen ondoan.

Ia udalerri guztia Oizko Unitate Tektonikoaren (Gernikako Sektorea) gainean kokatzen da, kostaldeko lerroa, ibaiertzaren eremua eta itsas eta ibai-tartea izan ezik. Sistema Tertziario (Flysch Tertziarioa) (eremuan nagusia), Kretazeo Tertziario (Maastrichtiense-Danienseko Kareharrizko Erak.) (udalerriko ipar-hegoalde ardatzarekiko zeharkako bi lerro txikitan), Kretazeo (kareharrizko flysch detritikoa) (portuko ekialdeko kai-muturraren ondoko zona txikia) eta Kuaternarioak (ibai-inguruneen eta kostaldeko lerroaren nahiz hondartzen gainean) osatzen dute.

Identifikatu diren ingurumen-arriskuei dagokienez, Getxok hondartzaren, dunen eta ibai-ibilbidearen zonetan baldintza geotektoniko oso desfaboragarriak ditu: urpetze-arazoak, putzuak, sostengu-ahalmena eta asentuak. Urpetze-arriskuak 10, 100 eta 500 urteko denboraldietan dira Gobela ibaiari erreparatuz. Muturreko higadura-prozesuak ematen dira udalerriaren barruan oso eremu puntualetan eta akuiferoen poluzioarekiko kaltebera altua eta oso altua da.

Udalerriaren kartografian guztira poluituak egon daitezkeen 42 kokaleku daude, nahiz eta, hasieran, arrisku teknologikoen eraginik ez antzeman.

Udalerriko landaretzari dagokionez, kartografia kontuan hartuta, unitate-barietate zabala definitzen da, presentzia handiena landaretzarik gabeko zonena edo landaretza erruderal nitrofiloarena izan arren. Halaber, belardien eta labore atlantikoen azalerak daude. Garrantzi ekologikoari dagokionez, harizti azidofilo-harizti baso mistoaren, haltzadi kantauriarraren formazioak eta kostaldeak nahiz estuarioak berezkoak dituzten landaretza-konplexuak azpimarra daitezke.

Era berean, Getxoko udalerrian aurkitzen diren flora mehatxatuaren aipamenak nabarmendu behar dira. Eusko Jaurlaritzak kokatzeko kanpainak egin ditu edo EAEko Floraren Zerrenda Gorrian agertzen dira. Hurrengo espezieak agertzen dira: *Honckenya peploides, Euphorbia peplis, Olea europaea, Chamaesyce peplis eta Juncus acutus*.

Modu osagarrian, kartografiak hurrengo habitatak identifikatzen ditu: 1210 Itsas hondar metatuen gainean urteko landaretza, 1230 Itsaslabarrak kostalde atlantiko eta baltikoetako landaretzarekin, 4030 Txilardi lehor europarrak (txilardi lehor azidofiloak), 4040* Erica vagans espezieaz osatutako kostaldeko txilardi lehor atlantikoak, 6210* Belardi lehor sasinaturalak eta kareharrizko substratuen gainean sastrakaren faziesa (Festuco –Brometalia) (orkideak garrantzitsuak diren lekuak), 6510 Sega-belardi pobreak behe altitudean (Alopercus pratensis, Sanguisorba officinalis) eta 91E0* Alnus glutinosa eta Fraxinus excelsiorren baso alubiala (haltzadiak eta lizardiak EAEn).

Getxoko faunari dagokionez, kartografiari erreparatuz, azterketaren eremuan ondorengo espezieak azpimarra daitezke, Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartuak baitaude:

- Schreiber muskerra (*Lacerta schereiberi*) eta baso-igel iberiarra (*Rana iberica*), biak interes berezikoak eta udalerriko azalera guztian zehar banatuak.
- Bisoi europarra (*Mustela lutreola*), iraungitzeko arriskuan, Gobelan, Boluan edo Larrañazubin zehar banatua.
- Txilinporta lepo-beltza (*Podiceps nigricollis*), interes berezikoa.
- Txenada mokobeltza (*Gelochelidon nilótica*), bitxia.
- Belatz handia (*Falco peregrinus*), bitxia.

- Arantzarraina (*Gasterosteus aculeatus*), kaltebera. Interes bereziko gunea
- Benarriz arrunta (*Acrocephalus schoenobaenus*), iraungitzeko arriskuan.

Zona osatzen duten paisaiaren unitate homogeneoak aipatuz, jabari antropogenikoan, hondo izurtuan eta ingurune izurtuaren isurialdearen oinetan hiriko paisaiaren unitatearen nagusitasuna argia da.

Ez dira natur espazio babestuak identifikatzen, ez Igarobide Ekologikoen Sareko elementuak, ezta erabilera publikoko mendiak ere.

“Galeako Lurmuturra - Barrika” eta “Getxo” izenez katalogatutako itsas paisaia gune bi daude.

Kultur ondareari dagokionez, zenbait elementu aurkitzen dira eta horien artean Bizkaiko Zubi Esekia azpimarra daiteke. Izan ere, 2006. urtetik UNESCOren Munduko Ondarea da.

Azkenik, ingurunearen bizi kalitate orokorrari dagokionez, positibotzat hartzen da, kalitate atmosferiko egokiaz. Zarataren foku sortzaile nagusi bezala metroaren komunikazio-azpiegiturak, gainazaleko tarteetan, eta BI-637, BI.3737 eta BI-3730 errepideak identifikatzen dira. Analisiarekin bat, batera hartuta, 65 eta 75 dB(A) mailekin eragiten ari zaio gutxi gorabehera 1.100 biztanleri eta 300 etxebizitza ingururi.

Indarrean dagoen plangintzan lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoru azalera handia dago, beraz, HAPO-ren Berrrikusketa egin gabe, udalerriak izan dezakeen eboluzioa, alderdi natural esanguratsuenen babesa murriztea eta lurzoruaren okupazio handiago bat eragitea da.

6. MODU ESANGURATSUAN KALTETU DAITEZKEEN EREMUEN INGURUMEN EZAUGARRIAK ETA LEHENDIK DAUDEN INGURUMEN ARAZOAK (D/211/2012 II Eranskina ‘d’ eta ‘e’)

GEOLOGÍA

Ia udalerri guztia Oizko Unitate Tektonikoan, Gernikako Sektorean, kokatzen da, kostaldeko lerroa, ibai-eremua eta itsas nahiz ibai-tartea izan ezik.

Gainazalera azaleratuz honako sistemetako materialak identifikatzen dira: Tertziarioa (flysch tertziarioa), nagusia eremuan; Kretazeo Tertziarioa (Maastrichtiense-Danienseko kareharrizko form.), udalerriaren ipar-hegoaldearen ardatzarekiko zeharkako bi lerro txikietan; Kretazeoa (kareharrizko flysch detritikoa), portuko kai-muturraren ekialdeko zonaren ondoko gune txikian; eta Kuaternarioa, ibai-inguruneen eta kostalde-lerroaren nahiz hondartzen gainean.

Honako material geologikoak agertzen dira:

- Kareharri hareatsuen eta tuparrien flysch-txandaketa.
- Hareharriak eta lutitak.
- Hareharriak, mikrokonglomeratuak eta lutitak; mikritak, kalkarenitak eta kareharrizko hareharriak; kareharri mikritikoak, tuparriak, kalkarenitak eta kareharrizko hareharriak nummulitesarekin.
- Tuparriak eta tupa-kareharri grisak.
- Tuparrien eta hareharrizko kareharrien txandaketa, mendebalderantz kareharrizko hareharriak eta tuparriak.
- Hondartzaren metaketak.
- Kolubialak
- Alubialen eta alubiokolubialen metaketak.
- Dunak

Geologikoki interesgarriak diren ezaugarriak

Atal hau egiteko ondare geologikoaren eta interes geologikoko eremuen Bizkaiko Foru Aldundiaren inbentarioa eta Geoeuskadi aplikazioaren informazioa aintzat hartu da.

Getxon ondorengo bereizgarriak identifikatzen dira:

0059 LINEA EDO IBILBIDEA

Izendapena:	Kastako ebaketa itsaslabarra
Deskribapena:	Mozketa etena, mota askotako interes geologikoko puntu ugariren erakusketa on batekin (estratigrafikoak, tektonikoak, paleontologikoak, prozesuak, etab.)
Trazu mota:	Linea edo ibilbidea
Interesa:	Oso altua Eskualdekoa
Irisgarritasuna:	Ona
Balorazioa: (1-5):	5

0060 - -LIG 117 INTERES GEOLOGIKOKO PUNTUA

Izendapena:	Galea lurmuturreko sinklinala
Deskribapena:	Bizkaiko sinklinalaren ardatza, sahiets desberdinen buzamenduaren norabide eta zentzu aldaketa ikus daiteke..
Trazu mota:	Puntua
Interesa:	Oso altua Eskualdekoa
Irisgarritasuna:	Erregular
Balorazioa: (1-5):	5

0063 – LIG 132 INTERES GEOLOGIKOKO PUNTUA

Izendapena:	Galea Lurmuturra-Tunelbocako nummuliteak
Deskribapena:	Nummuliteen lumakelak
Trazu mota:	Puntua
Interesa:	Altua Tokikoa
Irisgarritasuna:	Erregular

Balorazioa: (1-5): 4

0062 LINEA EDO IBILBIDEA

Izendapena: Slump

Deskribapena: Slump mailak eta arrailak margokaliza marga jakin batzutan eta kalkarenita terziarioak

Trazu mota: Linea edo ibilbidea

Interesa: Altua Tokikoa

Irisgarritasuna: Erregular

Balorazioa: (1-5): 4

0061 – LIG 096 INTERES GEOLOGIKOKO EREMUA

Izendapena: Gorrondatxe eta Tunelbocako hondartza zementatua

Deskribapena: Egungo hondartza zementatua material artifizialez osatua (fundizio zepak eta eraikuntzarako materiala)

Trazu mota: Area

Interesa: Oso altua Eskualdekoa

Irisgarritasuna: Erregular

Balorazioa: (1-5): 5

0058 – LIG 090 INTERES GEOLOGIKOKO EREMUA

Izendapena: Galea_Barrikako paleozabalgunea

Deskribapena: Galea lurmuturreko zabalgunea. Lehengo abrasio plataforma, gaur egun itsasoaren mailaren gainetik goratua

Trazu mota: Area

Interesa: Oso altua Eskualdekoa

Irisgarritasuna: Ona

Balorazioa: (1-5): 5

0068 INTERES GEOLOGIKOKO PUNTUA

Izendapena: Dish egitura

Deskribapena: Behe Eozenoko hareharritan dish egitura

Trazu mota: Puntua
Interesa: Ertaina Tokikoa
Irisgarritasuna: Erregular
Balorazioa: (1-5): 3

0067 INTERES GEOLOGIKOKO PUNTUA

Izendapena: Maila alderantzikatua
Deskribapena: Hareharri terziarioen estartuen tokiko tokiko inbertsioak
Trazu mota: Puntua
Interesa: Baxua Tokikoa
Irisgarritasuna: Ona
Balorazioa: (1-5): 2

0066 INTERES GEOLOGIKOKO PUNTUA

Izendapena: Taffoniak
Deskribapena: Behe Eozenoko hareharrien gain garatutako Taffoniak
Trazu mota: Puntua
Interesa: Altua Eskualdekoa
Irisgarritasuna: Ona
Balorazioa: (1-5): 4

0065 LINEA EDO IBILBIDE GEOLOGIKOA

Izendapena: Ebaketa
Deskribapena: Hareharri terziarioetan egitura tektonikoen eta geomorfologikoen erakusketa ona duen ebaketa
Trazu mota: Linea edo ibilbidea
Interesa: Ertaina Eskualdekoa
Irisgarritasuna: Ona
Balorazioa: (1-5): 3

0104 INTERES GEOLOGIKOKO EREMUA

Izendapena:	Dunak
Deskribapena:	Ondo sailkatutako hare metaketak oskolen hondarrekin, gainean eraiki izanaren ondorioz hondatuta aurkitzen da
Trazu mota:	Area
Interesa:	Ertaina Tokikoa
Irisgarritasuna:	Ona
Balorazioa: (1-5):	3

Dokumentu honi erantsitako kartografian bereizgarri hauen kokapen geografikoa adierazten da.

Azaleratutako Galea-Barrikako paleozabalgunea, ezaugarri hauek dituen azalera lau bati dagokio, Kuaternarioan eratua eta itsasoaren mailaren gainetik goratua. Galea lurmuturrean (Getxon) jaiotzen da eta Barrikara heltzen da, 7,2 km-ko banda luzera eta 1 km-ko zabalerarekin (gutxi gorabehera). Lurraldearen zati handi bat urpean zegoeneko 100.000 eta 50.000 urteko fase interglaziar batetik dator. Azaleratutako marea zabalguneak, urratzeen eta atzerakaden edota goratze prozesu tektonikoen eraginez itsasoaren mailaren aldaketen ondorioz garatzen dira. Gaur egun, Bizkaiko kostaldean 20 metro altuerako itsaslabar malkartsuak sortzen ditu.

Oiz-Punta Galea sinklinala, Euskal Arkuaren jabarian Euskal-Kantauriar Arroaren egitura handiek markatzen duten elementu tektonikoetako bat da. Eskualdean ezagututako hiru tolesdura handienetako bat da. Aztarna axialak N120 norabidea eta ardatz subhorizontala dauka. Tolesdurak, dekametrikoak eta hektometrikoak dira, angelu formako geometriaz, alpe luze eta zuzenekin eta biribildutako txangekin. Tolesdura honen aroa eozeno ostekoa da. Sinklinalaren nukleoan loratzen diren materialak Galea lurmuturretik Asbiribiltza lurmuturrera dagoen kilometro urrian ondo antzeman daitezke. Zentimetro bateko bankuetan, kalkarenita, marga eta nummulitezko kareharrien alternantzia bati dagokion Lutetiar Ertaineko (Eozeno) flysch karetsua da. Buzamenduak zehaztasunez aztertuz, Galea lurmuturretik gertuago dauden kapak iparralderantz okertzen direla antzeman daiteke, aldiz Tunel Bocatik aurrera hegoaldera okertzen dira. Honela, Oiz mendira luzetzen den sinklinal bat definitzen da. Itsasotik begiratuta, kalan sinklinalaren ebaketa ikusgarri bat antzeman daiteke. Alderantzizko faila gisa jokatutako angelu altuko faila batek ebagita aurkitzen da. Era berean flyschean, barneko formen arrail tartekazio metriko batzuk antzeman daitezke

PROZESUAK ETA ARRISKUAK

Geoteknia

Udalerriaren zati gehienak aldeko baldintza geoteknikoak ditu. Hondartzaren, dunen eta ibai-igarobidearen zonek oso kontrako baldintzak dituzte, urpetze-arazoak, putzuak, sostengu-ahalmena eta asentuak baitaude. Gainera, itsaslabarren kostalde-lerroak baldintza onargarriak ditu, nahiz eta aldapa gogorren arazoak izan.

Uholdeen mugak

Uraren Euskal Agentziak 2007. urtean egin zuen “EAEko Urpetze Maparen” arabera, Gobela ibaia kontuan hartuta, 10, 100 eta 500 urtera uholdeengatik urpetze-orbanak kartografiatzen dira. Bereziki aipagarriak dira 10 urteko uholdeengatik orbanak, urpetzeko joera duten arearen zatirik handiena hartzen baitute. Orbanek gehieneko hedadura Bolueko edo Larrañazubiko eta Martiturri errekak elkartzen diren tartean dute. Kartografian, ingurumen arrisku nagusien planoan, 500 urteko birgertatze-aldiko uholde arriskua adierazten da.

Gobela ibaiaren moldapen hidraulikorako eta ingurumena hobetzeko jarduerak, besteak beste, Errekaganeko tartean egiten ari dena, kontuan hartuta, informazioa ondorengo faseetan alderatu beharko da, alderdi hori egokitzeko xedez.

Kutsatuak egon daitezkeen lurzoruak

"Euskal Autonomia Erkidegoan lurzoruak polui ditzaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo jasan dituzten lurzoruei buruzko inbentarioa", irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bitartez onartutakoa, kontsultatu da. Hori IHOBE Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoak egin du.

Katalogo horren arabera, Getxon halako 42 kokaleku daude (zenbakizko ordenari jarraiki: 480044-00001etik 480044-00042ra).

Higadura

Euskadiko Lurzoruen Higadura Maparen arabera (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurraldearen Antolamendu Saila. 2005) eta euri uraren higadura eragilearen aldetik benetako lur galerak adierazten dituen (t/ha eta urteko) RUSLE REAL metodoaren arabera, ondorengoa ikusten da:

Ikerketa eremuaren gehiengoa, higadura prozesu baxuak eta lur galera onargarriak (0-5 t/ha eta urteko) dituzten lurzoruek edo higadura prozesurik jasaten ez duten eremuek osatzen dute. Higadura prozesu baxuak dituzten eremuak ere aurkitzen dira, 5-10 t/ha eta urte arteko galerekin, baita muturreko higadura prozesuak dituzten eremuak ere, hauetan higadura errez antzeman daiteke (>200 t/ha eta urteko).

GEOMORFOLOGÍA

Kontuan hartuta, alde batetik, ageri diren materialak edo litologiak, eta beste aldetik, hark sortutako prozesu geomorfologikoak eta morfologikoa, lurraldea sailkatu egin da Sistema Morfodinamikoak deritzen entitateak definitzen dituzten barne antolakuntza eta dinamika dituzten arloetan; izan ere, eskematikoki azaltzen dute eremu jakin batean gertatzen diren fenomeno naturalen berezko jokaera.

Udalerrian ondorengo sistemak adierazita agertzen dira:

- **Mendi hegalen sistema**: Lurraldearen isurialde eta tontor guztiak hartzen ditu, haien maldaren arabera sailkaturik (bizkarrak, muinoak eta mendiak). Getxon bizkarrak ugariak dira eta zenbait muino puntual agertzen da.
- **Ibai-sistema:** Gainazaleko uren zirkulazioak eragindako prozesu dinamikoak ditu ezaugarri (prezipitazioak). Gobelaren ingurunean eta ibaiadarretan kartografiatzen da.
- **Sistema antropogenikoa:** Udalerriari, area urbanizatuei eta artifizial bihurtuei dagokie.
- **Estuarioaren sistema:** Ohiz kostaldeko lerroaren ondoren garatzen da; Getxon bakarrik iparraldeko muturrean agertzen da. Sistema hau sedimentuen metaketan oinarritzen da, mareen eta ibaien maldaren arabera modelatuz. Ibai-fluxuaren eta marearen arteko oreka bat lortzen da.
- **Itsasertzaren sistema:** Kostaldearekin bat dator: hondartzak, 10 m-tik gorako itsaslabarrak eta urradura-plataforma.

Getxon, geomorfologia ikuspuntutik eta zientziarako interesgarria delako, azaleratutako Galea-Barrikako paleozabalgunea nabarmentzen da. Kuaternarioan eratua eta itsasoaren mailaren gainetik goratua, gutxi gorabehera 7,2 km-ko banda luzera eta 1 km-ko zabalerarekin.

HIDROGEOLOGÍA

Azterketaren eremua ez da definitutako jabari hidrogeologikoetan kokatzen.

Iragazkortasuna

Azterketaren eremuak iragazkortasunari dagokionez hurrengo aldaerak ditu:

- Iragazkortasun ertaina porositatearengatik: nagusiki, ibai-ibilbidearekin eta ingurune hurbilenarekin bat dator.
- Iragazkortasun ertaina pitzadurengatik: tipologiarik ugariena da eta, batez ere, udalerriaren iparraldea hartzen du.

- Iragazkortasun txikia pitzadurengatik: udalerriaren hiru zatitan (iparralde eta hegoaldean nahiz zona ertainean) lerroak hartzen ditu.
- Iragazkortasun handia porositatearengatik: hondartza, estuario eta dunen hareari dagozkion gainazaleko metaketekin bat dator.

Akuiferoak kutsatzeko zaurkortasuna

Aurreko puntuarekin jarraituz, udalerriaren zatirik handienak akuiferoen poluzioarekiko kaltebera handia du. Hondartzen, hegoaldeko itsaslabarren eta ibai-ingurunearen areak oso kaltebera handiko zonak dira. Modu berean, puntualki kaltebera ertaineko lerro txikiak agertzen dira.

Ur-puntuak

Guztira 21 ur-puntu identifikatzen dira:

MOTA	IZENDAPENA	OBSERVACIONES
Iturburua	Perure	Kandelu Erreka errekastoaren ohearen aldamenean taparik gabeko adreiluzko kutxatilan jasotako iturburua
	Basarretas	Losa batekin estalitako harrizko kutxatila txiki baten jasotako iturburua, ur-bilketak nitxo itxura dauka.
	Iturgitxi	Harrizko horman burdinezko tutua duen iturria, harraska ere harrizkoa. Adreiluzko eta zementozko biltegian bildutako iturburua. Zezumaga baserria hornitzen du
	Zuzunaga; Zezumaga	Adreiluzko eta zementozko biltegian bildutako iturburua. Zezumaga baserria hornitzen du
Potzua	Eredeune Barri	Ur bilketa proiektua
	Ibar-Berango	Putzu baten zulatzea
	Finca Ollareche	Ollareche finkan putzu artesiar baten zulatzea
	Aldebera	-
	Larrañazubi	Ponparekin prestatutako iturburu-putzua, estalkia eta ornamentuzko eraikuntza dauka
	Lauri	Uraska bat hornitzeko erabilitako zundaketa putzua
	Arenaza	Putzuaren zulatzea
	Errotaetxe-1	Adreiluzko eta zementozko putzua. Lur ureztatuetarako erabiltzen da
	Errotaetxe-2	Adreiluzko eta zementozko putzua. Ponpaketa sistema duen etxola. Errotaetxe baserria hornitzen du
	Errotazar Ondo	Putzua galeriakin, Agra lantegia hornitzen zuen ponpaketa sistemarekin. Gaur egun abandonaturik
	Errotazar Ondo	Errotazar-Ondo izeneko finkan putzu baten proiektua
	Aixe-errota	Putzu baten zulatzea
Zundaketa	Renault	Hesi metaliko batez itxitako laukizuzen formako putzua. Lehengo errota baten aurrietara atxikia
	Zundaketa	
	Fadura-2	-

	Errotatxu/ Gobelaren ibaidar	-
Azaleko urharpena	Gobela	-
	Bolue	Kutsadura handia, hiri hondakin solidoen hainbat zabortegitik datozen fluxuak elkartzen dira. Potentzial ekologikoa, Getxoko Udalaren berreskuratze Plan baten bidez

HIDROLOGÍA

Getxon ibaien ibilgu nagusiak Gobela ibaia, ia udalerri guztia zeharkatuz iparraldetik hegoaldera doana, eta ibaiadar garrantzitsuenak (Larrañazubi edo Bolua eta Eguskiza ala Itze) dira. Halaber, hainbat erreka txikiago dago eta, aldi berean, Gobelari ekarpenak egiten dizkiote.

Horiek guztiak Ibaizabalgo Unitate Hidrologikoan sartzen dira. Behe Ibaizabalgo azpiunitatea, hain zuzen ere, Unitate Hidrologikoa osatzen duten 25 ur-masetatik 4 agertzen dira: Asua, Larrainazubi, Gobela eta Galindoko ibaiak, urak itsasadarrari isurtzen dizkiotenak.

Ez dago Larrañazubi unitatearen urei buruzko kalitate kontrolik, ez da antzeman ingurumen helburuak ez lortzeko moduko presio eta eragin esanguratsurik, ondorioz helburu hauek betetzen direla aurresuposatzen da.



6.a irudia. Getxoko ur-masen kokapena

EAEko ibaien egoera biologikoaren jarraipena egiteko sarearen 2009ko emaitzen txostenaren (Anbiotek-ek 2010ko maiatzean egina URA_Ur agentziarentzat) arabera, gaingiroki 2009ko kanpainan kontrolak jasan zituzten Behe Ibaizabalgo 3 masek haien ingurumen helburuak ez zituztela bete adierazi daiteke. Hauek ez zuten eskuratu egoera ona / potentzial ekologikoa.

Zehazki, Getxoko ibilguak Gobela-A eta Larrainabubi-A masen gain berrerortzen dira. Hauen artean, ondoren, Gobela-A masa analizatzen da.

Gobela-A masaren potentzial ekologikoa, GOB082 estazioak xedatutakoaren arabera, eskasa da eta makroornogabeen komunitateak determinatzen du, nahiz eta bai fitobentoetan zein baldintza fisiko-kimiko orokorretan uraren kalitate ona adierazten duten.

Bestalde, makrofitoek gutxigatik ez dute haien ingurumen helburua betetzen, aldiz osagai hidromorfologikoak ez du askogatik betetzen, egoera txarraren arrazoia kanalizazio eta babesak daudela da, ibai ertzeko landarediaren finkatzea eta garapena eragotziz. Hau dela eta, jasaten duen presio maila altuaren ondorioz, masa honek bere ingurumen helburuak ez betetzeko arrisku handia duela adierazten da.

	Gobelas-A	MASA (GOB082)
Indicadores Biológicos	Macroinvertebrados (MBi)	Deficiente
	Fitobentos (IPS)	Muy Bueno
	Fauna Piscícola (ECP)	--
	Macrófitos (ECV)	Moderado
	ESTADO BIOLÓGICO	Deficiente
Indicadores físico-químicos	IFQ	Bueno
Indicadores Hidromorfológicos	Índice QBR	Deficiente
	Alteraciones hidromorfológicos	Malo
POTENCIAL ECOLÓGICO		Deficiente

6.I. Taula: Egoera ekologikoaren diagnostikoaren laburpena.

Bere eboluzio historikoari dagokionez, estazio hau 1999tik kontrolatzen da, ordutik eta gaur egunerarte bere potentzial ekologikoa txarra edo eskasa izan da. 2004tik aurrera makroornogabeen komunitatearen hobekuntza arin baina aldakor bat antzeman daiteke, hobekuntza hau uraren hobekuntza fisiko-kimiko arinarekin bat dator, hala ere jatorri ezezaguna duen zama organiko bat erakusten jarraitzen du (ikus Industria eta hiriko isurketen ondorioz EAEko ibaietan presioak, 2009). Arrainek ere egoera txarra eta eskasaren artean dabilen diagnostiko bat mantentzen dute eta fitobentoak bakarrik betetzen du maiztasunez bere ingurumen helburua.



6.b irudia. Kalitate adierazleen eboluzio historikoa

EDAFOLOGIA ETA GAITASUN AGROLOGIKOA

Testuinguru edafologikoa eta lurzoruen sailkapena nekazaritza-jokabidearen arabera

Eremuaren zati handia lurzorurik gabekotzat jotzen da, aldez aurretik existitzen den hiri-bilbeak hartzen baitu.

Kostaldea, hondartzak izan ezik, litosol humikoa da eta nekazaritzarako oso ahalmen txikia du. Litosolak azaleko lurzoruak dira, profilaren garapenik gabe, harritsuak, legarrez, harriz eta tamaina desberdineko material harritsuez osatuak. Hondartzek arenosol izeneko lurzoruak dituzte eta beren ahalmena oso baxua da.

Udalerriaren iparraldean, modu berean, cambisol distrikoa deritzan lurzoruaren hedapen zabala aurki daiteke eta neurrizko gaitasuna du. Cambisolak nagusi dira kareharrizko zonetan, neurrizko aldapak edo leunak daudenean. Aldapak handiagoak badira, redzina, regosol eta litosol izeneko lurzoruak agertzen dira, harri amaren erresistentzia mekanikoaren arabera. Lurzoru heldugabeak dira; lurzoru helduetan baino profil leunagoak dituzte, eta jatorrizko materialarekin, margekin kasu honetan. Aldaketako B tarteko horizontea izatea da ezaugarri nagusia, buztinaren genesiak adierazitakoa, burdin oxidoak askatzeagatik (kolore horia edo gorria hartzen du), kaltzio karbonatoa edo hidromorfiaren birbanaketa, eta horren ondorioz, kolore gris nahiko homogeneoak gutxitu edo agertu egiten dira

Ibai-inguruneetan fluvisol eutriko motako lurzoruak kokatzen dira oso erabilera-gaitasun handiarekin. Lurzoru flubisolak gazteak eta emankorrak dira, gordailu alubial berrietatik sortutakoak, tarteka tamaina desberdineko materialak jaso dituztenak. Flubisolak baratz gisa erabili diren ibaien uholde lautadetan daude. Ibaien urpetze-lautadetan aurki daitezke eta, oro har, baratze bezala erabili dira.

Bolueko edo Larrañazubiko ibilbideari jarraiki, Getxo lurraldearen barrualderantz sartzen den tartean akrisol gleikoaren lerro zehatzak, ahalmen txiki edo oso txikiarekin, eta cambisol distrikoa, ahalmen txikiarekin, agertzen dira.

Akrisolak, nagusiki, harri azidoen aldaketa-produktuen gainean garatzen dira eta buztinaren maila altuak, oso aldatuak, dituzte. Ondoren, horiek degrada daitezke. Ondulazio eta muino formako topografiarekin azalera zaharretan nabarmentzen dira, klima heze tropikal, montzoidun, subtropikal eta oso beroekin. Baso soilak dira bere landaredi forma ohikoenak. Profila AEBtC motakoa da. Aldaketak lurren baldintzekin erlazionatuta daude. Gutxi deskonposatutako eta azidoa den azaleko materia organikoko A aukera ilun bat, pixkanaka E aukera horizka batera pasatzen da. Bt aukerak kolore gorri edo hori iluna aurkezten du, E aukera baino ilunagoa. Mantenugai mineralen gabezia, aluminioaren toxikotasuna, fosfatoen adsortzio indartsua eta higadurari sentikortasun handia, bere erabileraren murrizketa nagusiak dira.

Erabilera-gomendio mota bakoitzaren ezaugarri nagusiak

Edafologia-ezaugarrietan oinarrituta, azterketaren zonan honako erabilera-gomendioak azaltzen dira:

- **Kontserbatzea. Kontserbaziorako interes handi:** itsaslabarren kostalde-lerroarekin eta hondartzen formazioekin bat dator.
- **Belardiak:** cambisolaren hedapenen gainean, nagusiki.
- **Sistema antropogenikoa:** lurzorurik gabeko areen gainean.
- **Ustiatzeko landaketak:** lerro zehatzen gainean, bereziki, ur-ibilguetatik hurbil. Batzuek mazelaren ezegonkortasun ertaina agertzen dute.
- **Laboreak:** nekazaritzarako ahalmen handia duten lurzoruen gainean. Urpetze-arriskuarengatik mugekin.

Landa azpisistema

Nekazaritza ustiapenei eragindako afekzio posibleak adierazteko landa azpisistemaren plano bat landu da (10 zenbakia).

Alde batetik, erabilera gaitasun oso handia duten lurzoruak marrazten dira, Gobela eta Bolueren ibar-eremuetako fluvisol eutrikoak.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak emandako datuen arabera, nekazaritza ustiapenak ere adierazi dira, baita baratze gisa erabilitako beste eremu batzuk ere.

Gainera, Nekazaritza eta Basozaintzako LPS-ren arabera balio estrategiko handiko lurzoruak adierazten dira, hauek Bolue ingurunean bakarrik aurkitzen dira.

Azkenik, Getxon *paisaia interesa duen landa eremua* gisa katalogatutako eremu bat aurkitzen da, hau ere Bolue ingurunean kokatzen da.

LANDAREDIA

Landaredi potentziala

Ikuspuntu biogeografikotik (Rivas-Martinez, 1984), ikerketa eremua Eskualde Eurosiberiarrean dago, probintzia Kantabriar-Atlantikoan.

Informazio eta kartografia eskuragarriaren arabera, Getxoko eremua potentzialki honako unitateek osatuko lukete:

- **Itsaslabarretako landaretzak:** kostaldearen lerroan.
- **Artadi kantauriarrak:** unitate nagusia da eta udalerri guztian zehar banatzen da.
- **Paduretako landaretzak:** unitate hau itsasadarraren bokalean eta ingurune hurbilean kontzentratzen da.
- **Haltzadi kantauriarrak:** unitate hau ibai-ibilguetan zehar igarobideetan kokatzen da.

Gaur egungo landaredia

Atal hau egiteko, oinarri gisa 2009 urteko ortofotoa (Eusko Jaurlaritza bere kartografia zerbitzu publikoaren bidez) eta IKTk eginiko landarediaren mapa hartu dira

Kartografian bereizitako unitateak hauek dira:

- Kostalde hareatzetako landaredia

- Txilardi, otadia, irasail atlantikoa
- Kostalde labarretako landaredi multzoa
- Hiri parkeak eta lorategiak
- Harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa
- Baso plantazioak
- Harizti azidofiloen edo harizti mistoen fase gaztea edo degradatua
- Landaredi erruderala-nitrofiloa
- Albitz sailak (Brachypodium pinnatum) edo beste larre mesofilo batzuk
- Baratzeak eta fruta-arbolak
- Lezkadiak eta karize handien formazioa
- Belardiak eta labore-lur atlantikoak;
- Sahastiak
- Haltzadi kantauriarra; Elordia-lahardia
- Elortza edo sasitza

Landarediaren planoan (11 zenbakia) landaredi komunitate hauen eta interes bereziko landarediaren banaketa geografikoa antzeman daiteke.

Arriskuan dagoen landaredia

2005., 2006. eta 2007. kanpainetako Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-kartografia erreferentziatzat hartuta, flora mehatxatuaren espezieek hurrengo orbanak hartzen dituzte (12 zenbakidun planoa):

- *Honckenya peploides*, dentsitate ertaina duen Barinatxeko zonaren orban batean eta Azkorriko hiru orbanetan (bi dentsitate ertainekoak eta bestea behe-dentsitatekoa) aurkitu da.
- *Euphorbia peplis*, Azkorrin dentsitate ertaineko zona batean.
- *Olea europaea*, ale bat aurkitu da Azkorrin.
- *Chamaesyce peplis*, behe-dentsitateko orban batean, Azkorriko ingurunean.

Gainera, EAEko espezie mehatxatuen Zerrenda Gorriaren adierazpen kartografikoaren arabera, aurretik zehazturiko eremuan *Honckenya peploides eta Chamaesyce peplis* espezieen 1x1 km-ko lauki-sareak identifikatzen dira, bestalde ondorengo espezie floristikoen lauki-sareak adierazten dira:

- *Juncus acutus* (Loidi, J., I Biurrun & M. Herrera. 1997) Gobela ibaiaren inguruetan, udalerriaren iparraldean. Halaber, zati batean beste lauki bat aurkitu da Artazako zonan.
- *Honckenya peploides* (Guinea, E. 1949), Arrigunagako hondartzaren zonan.

Juncus acutus espezieari dagokionez, UPV/EHUri kontsultatu zaio kartografian agertzen den laukietan egun presentziarik ba al duen, kokapena zehazteko xedez. Baliteke zonak jasan duen antropizazioarengatik 1997. urtetik ondorengo azterlanetan bere presentziarik ez antzematea.

Horrela adierazi du OTXOA, E., T. OYANARTE, S. PATINO, J. VALENCIA, E. MIGUEL, A. PRIETO & J. ELORZAk (2007) egindako azterlanak, EAEko mehatxupeko espezieen katalogoan aipatutako landareen Bizkaiko populazioak 1:5000 eskalan kartografiatu dituenak. Txosten argitaragabe hori Eusko Jaurlaritzarako egin zuten, baita Sestaoko Natur Zientzien Sozietaterako ere. Bertan espezie horren agerpena Leioa udalerrian, Lamiakoko ibarretik gertu, baino ez da antzeman, hurrengo irudian agertu bezala.

6.c irudia: Arantza ihiaren agerpena Lamiakon (Leioa) (2007)

Nolanahi ere, nabarmendu behar da HAPOk azaleko urei emandako babesak espezie horren biziraupen egokia bermatuko lukeela.

Dena den, HAPO garatzeko geroko faseetan espezie hori antzemateko berariazko landa azterlanak gara litezke.

Flora aloktonoa

Landare espezieak azken urteetan eskualde batetik bestera gehiago transferitzearen ondorioz, espezie exotiko inbaditzaileen hedapena, habitaten suntsiketaren ondoren, biodibertsitatearen mehatxu handienetako bat bezala aitortzen da (Natura Babesteko Nazioarteko Batasuna, NBNB)

“Flora aloktonoa Bizkaian” argitalpenak egindako banaketaren arabera, Getxon guztira flora aloktonoaren 65 espezie daude 1x1 km-ko 15 laukitan banatuak.

Bizkaian espezie aloktono garrantzitsuenen (eraldatzaileak eta batzuk inbaditzaileak eraldatzeko ahalmenarekin) banaketa, argitalpenak eransten duena, zehatzago aztertuta, udalerrian presentzia izan dezaketen honako espezieak identifikatzen dira:

- *Amaranthus deflexus:* komunitate erruderaletako, areketako, alfer-lurretako eta hiri-eremuetako kamefitoa.
- *Amaranthus hybridus:* laboreen komunitate nitrofiloetako, areketako eta ibaien legar-eremuetako terofitoa.
- *Aster squamatus:* lurzoru hezea eta aberatsa duten tokietako terofito eskaposoa (kamefitoa).
- *Baccharis halimifolia:* komunitate azpihalofiloetako fanerofito hostogalkorra paduren, itsaslabarren eta dunen lurzoru hezeetan.
- *Bidens aurea:* areka eta alfer-lurretan komunitate nitrofiloetako hemokriptofitoa.
- *Bromus catharticus:* areka, alfer-lur eta ingurune erruderalizatuetako hemikritofitoa.
- *Buddleja davidii:* areka, alfer-lur eta ezpondetako fanerofito hostogalkorra.

- *Carpobrotus edulis:* duna, txilardi, aerohalino eta itsaslabarretako kamefito krasifolioa.
- *Chamaesyce polygonifolia:* hondartzetan urteko komunitate halonitrofiloetako terofitoa.
- *Chenopodium ambrosioides:* ibaien legar-metaketetako eta lursail mugitu aldatuetako terofitoa (kamefitoa).
- *Conyza canadensis eta C. sumatrensis:* areka, duna (C. sumatrensis), alfer-lur eta legar-metaketetako (C. canadensis) terofitoak.
- *Coronopus didymus:* zona zapalduetako bi urtez behingo terofito edo hemikriptofitoa.
- *Cortaderia selloana:* areka, ezponda, lursail mugitu, belardi, duna, padura, sastraka eta lahardietako hemikriptofitoa.
- *Cyperus eragostis:* erreten, zanga, areka, ibaien harri-metaketa eta urtegi nahiz putzuen ertzetako hemikriptofitoa.
- *Dittrichia viscosa:* habitat erruderal, areka-bide, ezponda, alfer-lur eta sastraketako nanofanerofito (kamefito) erdi hostogalkorra.
- *Erigeron karvinskianus:* pareta, horma eta ezponda harritsuetako kamefitoa.
- *Fallopia japonica:* geofitoa: ibaiertz eta areka hezeetako geofitoa.
- *Ipomoea indica:* kostaldetik hurbil erruderal bihurtu diren heskai eta belardietako nanofanerofito igokari (liana) hostoiraunkorra.
- *Lonicera japonica:* heskai eta lahardietan zuhaitzak eta zuhaixkak gora egiten dituen nanofanerofito igokari (liana) erdi hostogalkorra.
- *Matthiola incana:* kostalde nitrifikatuetan itsaslabar labainkorretako kamefitoa.
- *Oenothera glazioviana:* duna eta ibaiertz hareatsuetako bi urtez behingo hemikriptofitoa.
- *Oxalis latifolia:* soro-komunitate, labore ureztatu eta baratzeetako neofito erraboilakara.
- *Paspalum dilatatum:* sega-belardi, belardi heze eta areketako hemikriptofitoa.
- *Paspalum districhum:* belardi heze, ibaiertz eta putzu nahiz estuarioetan ia halofiloak ez diren zonetako estoloi-geofito. Halaber, labore ureztatuen eta erretenen zonetan agertzen da.
- *Paspalum vaginatum:* hareatza eta paduretan komunitate hidrofilo azpihalofiloetako errizoma-geofitoa.

- *Pittosporum tobira:* itsaslabar eta itsasotik hurbil dauden mazeletako nanofanerofito hostoiraunkorra.
- *Robinia pseudoacacia:* erreketatik hurbil dauden baso eta harizti azidofiloen serietako mesofanerofito hostogalkorra.
- *Senecio cineraria:* kostaldetik hurbil dauden horma eta itsaslabarretako mulu-kamefitoa.
- *Senecio inaequidens:* areka, bide eta alfer-lurretako mulu-kamefitoa.
- *Senecio mikanioides:* kostaldetik hurbil dauden heskai, lahardi eta belardi hezeetako fanerofito igokari (liana) hostoiraunkorra.
- *Solanum chanopodioides:* areka, alfer-lur, heskai, duna eta ibaiertzetan belardi nitrofiloetako nanofanerofito (kamefito) hostoiraunkorra edo ia.
- *Sorghum halapense:* komunikazio-bideen areka hezeetako errizoma-geofitoa.
- *Sporobolus indicus:* areka, belardi-bazter eta hareatza zapalduetako errizoma-geofitoa (hemikriptofitoa).
- *Tradescantina fluminensis:* horma-oinarri fresko, baso-ertz, ezponda eta beste giro ilun batzuetako kamefito hostoiraunkorra.
- *Xanthium strumarium:* areka, labore-zona, ibai-harri, kostaldeko hareatza eta hondakindegietako terofitoa.

92/43/CEE DIREKTIBAREN HABITATAK

Interes Komunitarioko habitaten definizioa 92/43/CEE direktibak eman zuen. Habitat mota horiek banaketa natural murriztua dute edo Batasunaren lurraldean nabarmen gutxitu dira; horrez gain, Europar Batasuneko sei eskualde biogeografikoetako bateko inguru natural nabarmenak eta esanguratsuak ere badira.

Atal hau idazteko, Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioak argitaratutako “Espainian Interes Komunitarioko Habitat Tipoak” dokumentua erabili da, baita Eusko Jaurlaritzaren Biodeibertsitaterako Zuzendaritzarentzako IKT-k eginiko “Habitaten Mapa”, azken berrikuste data 2003 urtekoa duena (abiatze eskala 1: 25.000).

Getxon interes komunitario/lehentasunezkoa (izartxoarekin) duten ondorengo habitatak identifikatzen dira:

- **1210 Itsas hondar metatuen gainean urteko landaretza:** urteko landare-komunitate hauek gazitasunari eta materia organikoz aberastuak dauden lurzoruei moldatuak daude (halonitrofiloak). Hondartzen goiko ertza kolonizatzen dute, marea biziek eta ekaitzek hondar organikoak uzten badituzte. Izan ere, deskonposatzean elikagaiak askatzen dituzte. Nahiz eta hondartzak aldizka garbitzen direnez, habitat hau EAEn urria izan, Azkorriko hondartzari dagokion ekialdeko lerro batean kartografiatzen da, kostaldearen lehenengo lerroraino iritsi gabe.

- **1230 Atlantikoko eta baltikoko kostetako landaredia duten itsaslabarrak:** aldapa malkartsuak eta lursail harritsuak ditu, zuhaitz eta zuhaixken kopuru urriarekin batera. Arroken pitzaduretan flora harkaiztarra kokatzen da eta lurzoru pixka bat gehiago dagoen erlaitzetan mikrohabitat belarkarak eratzen dira. Habitat hori Getxoko itsaslabarren iparraldean agertzen da.

- **4030 Txilardi lehor europarrak (brezales secos acidófilos):** tamaina ertaineko sastrakak dira eta, oro har, txilarraren hainbat espezie (Erica sp.) nagusi da., Halaber, Ulex eta iratze arrunta (Pteridium aquilinum) ageri dira. Zona fresko eta altuenetan ahabiak (Vaccinium myrtillus) eta txilar zuria (Erica arborea) ager daitezke. Klima euritsuak eta lurzoru azidoak dituzten eskualdeetako sastrakak dira. Getxon barrualderantz kokatzen dira, Bolua edo Larrañazubiren inguruko lursailetan.

- **4040*- Kostako Erica vagans-en txilardi lehor atlantiarrak:** formazio egurkara baxuak dira, kuxinaren itxura dute eta itsasotik datorren haizeak eragiten duen giroko lehortasunera moldatuak daude. Kostaldeko itsaslabarren goiko aldean kokatzen da eta bertan lerro estuak eratzen ditu. Azalerari erreparatuz, bere ordezkaritza txikia da, baina bere area potentziala ia oso-osorik hartzen du eta bere naturaltasuna altutzat jo daiteke.

- **6210*- Belardi lehor seminaturalak eta substratu kalkareoetako sastrakaeiteko formazioak (Festuco-Beometalia) (orkideak garrantzitsuak diren aurkintzak):** gramineoak nagusi diren larreak dira eta aniztasun handia dute

konposizio floristikoan. Orkideatan aberatsak direnean, lehentasunezko habitatzat jotzen dira.

Askotan albitz-belarra (Brachypodium pinnatum) da nagusi; beste batzuetan, berriz, zenbait gramineo azaltzen da, besteak beste, Bromus erectus eta Festuca gr. Rubra. Larratzeari uzten zaionean, hainbat zuhaixka eta sastraka iristen dira. Nolanahi ere, horietarantz eboluzionatzen dute denborarekin.

- **6510 Altitude baxuko uztako larre pobreak (Alopecurus pratensis, Sanguisorba officinales):** formazio belarkarak dira eta urte osoan zehar berdeak mantentzen dira. Hala, landazabal atlantikoaren landare-paisaia markatzen dute. Flora nahiko sinplea da eta lurzoru sakonen gainean kokatzen da, ur-erreserbekin, nahiz eta putzuak ez eratu. Horrez gain, elikagaietan eta materia organikoan aberatsak dira.

- **91E0*- Alnus glutinosa eta Fraxinus excelsior-en baso alubialak (haltzadiak eta lizardiak EAEn):** Ohiz, ibaiertzetako basoak dira eta neurri handiagoan edo txikiagoan haltza (*Alnus glutinosa*) da nagusi. Horrekin batera, zuhaixka eta landare belarkara ugari agertzen dira.

  Ibai eta erreketan urpetze-ohearen lurzoru ureztatuen gainean kokatzen da, argi eta garbi ibai-ibilguei lotutako habitata baita.

13 zenbakidun planoan habitat hauek adierazi dira.

6210 habitatarekin kategorizatutako eremuetan orkideen presentzia antzemateko, espezie hauek hartu ditzaketen albitz-belarrezko zoroen azterlan xehatu bat egin da. Azterlan osoa, Ingurumen Jasangarritasun Txostenaren II Eranskin gisa eransten da: ("*Estudio de las orquídeas (familia Orchidaceae) en tres lastonares del término municipal de Getxo*" Amador Prieto 2015 Uztaila**).**

Ondoren, ondorioak azaltzen dira:

Ubicación de las áreas objeto de estudio

Prospekzioak garai egokiaren aldi garrantzitsu baten egiteko ezintasunaren ondorioz, -ingurune honetan agertzeko aukera gehien dituzten espezieen fenologia dela eta- hiru gune hauetako orkidoflora ezin daitekeela zehaztasunez identifikatu aipatu behar da.

Bost espezieen kokalekua zehaztu da: *Anacamptis pyramidalis, Ophrys apifera, Ophrys lupercalis, Orchis purpurea* eta *Serapias cordigera*

Azken hau ugariena da, eta hauetatik bi (*O. purpurea eta O. lupercalis*) fruituak emanda aurkitu dira, baita zimeldurik.

Litekeena da, prospekzioak garai egokietan eginez, taxon gehiago agertu ahal izango liratekeela. Aurreko urteetan inguruneko eremuetan beste espezie batzuen *in situ* behaketak eta aipamen bibliografikoak daude.

Prospekzioa egiteko garaiak izan duen eraginaz gain, alderdi klimatologikoek ere loratzearen aurrerapenean eta geroko ale askoren desagerpenean eragina izan dute (espezie guzti hauek geofitoak dira, hau da, behin aleek fruitua emanda, garai kaltegarria lur-azpian pasatzen dute erraboila formaz).

Bestalde, hiru eremuetan dagoen landarediari buruz eginiko azterketa zehatz batek, albitz-belarrezko zoroez gain, beste landare komunitate batzuek estalitako eremuak daudela erakutsi du, hauen artean kostaldeko txilardiak nabarmentzen dira. Alderdi hau esanguratsua da, komunitate hau 92/43/CEE direktibaren arabera lehentasunezko habitat kontsideratzen delako.

Albitz-belarrezko zoroen zati handi bat (Habitat Direktibak babestutako habitata) lehen belarra mozteko larreak ziren eremuek osatzen dute eta nekazaritza jardueren uztearen ondoren albitz-belarrak kolonizatu ditu.

Ekosistema biek degradatutako eremuak aurkezten dituzte, batez ere itsasertzeko labarren goialdean kokatzen den ingurunean.

FAUNA

Ageri diren komunitate guztien deskribapen orokorra

Azterketa-eremuaren fauna potentziala deskribatzeko, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ornodun Kontinentalen Atlasa (1985) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ornodunen Azterlana erreferentziatzat (1981-1985) hartu dira. Dena den, horrek ez du esan nahi urteko zikloetan burututako xehetasunezko azterlanek aldaketaren bat eragitea.

Espeziak geografikoki kokatzeko UTM erretikula erabiltzen da; erretikula horrek Autonomia Erkidegoa 10x10 Km-ko laukietan zatitzen du. Ikerketa eremu hau VP90, WP 00, VN 99 eta WN09 koadrikuletan dago.

Fauna koloniza dezaketen habitatei lotuta deskribatzen da. Habitatak landaretza-estalkiaren arabera karakterizatzen dira eta hurrengoak erregistratu dira: harizti eta baso mistoa, haltzadiak, koniferoen landaketak, belardiak eta laboreak, txilardi-otadi-iralekua, hezeguneak eta erruderal nitrofiloa.

Getxoko Udalaren Ingurumen Sailak emandako datuekin, Getxoko fauna lan desberdinetan inbentariatuta dagoela ikusten da:

- SEGUIMIENTO FAUNÍSTICO DEL HUMEDAL DE BOLUE GETXO-Bizkaia Xabier Buenetxea Aragüés (2003)
- PLAN DE ACTIVIDADES FAUNISTICAS Y DE GESTIÓN DEL MEDIO NATURAL Humedal de Bolue. Getxo (Bizkaia) Xabier Buenetxea Aragüés, Elena G-S Somavilla, Ziortza Ayaso Choya (2005-2006)
- ESTUDIO Y VALORACIÓN FAUNÍSTICA DEL TRAMO COSTERO ARRIGUNAGA-BARINATXE, EN GETXO (BIZKAIA) Xabier Buenetxea Aragüés, Elena G-S Somavilla, Ziortza Ayaso Choya (2006)
- ESTUDIO Y VALORACIÓN FAUNÍSTICA DEL TRAMO COSTERO ARRIGUNAGA-BARINATXE, EN GETXO (BIZKAIA). Buenetxea, X., Arce, F., Líbano, I., Artaza, S. (2007-2008)
- Actividades Faunísticas y Gestión del Medio Natural en el Humedal de Bolue. GETXO. Buenetxea, X.; Líbano, I.; Artaza, S. (2007-2008)
- Plan de Actividades Faunisticas y Gestión del Bolue . Buenetxea, X.; Líbano, I.; Artaza, S (2009)
- Seguimiento faunístico de Getxo (2009)
- Inventario y Seguimiento de la Avifauna Indicadora del municipio de Getxo (Bizkaia) Xabier Buenetxea Aragüés (2013)
- Sapo corredor (Bufo calamita) Monitorización de la población del municipio de Getxo (Bizkaia) Xabier Buenetxea Aragüés (2013)

Era berean, Udalak katalogatutako fauna espezieen ondorengo zerrendaren ekarpena egiten du:

FAUNA-HABITATAK:

1.- ITSASLABARREN GUNEA/ 2.- KANDARUERREKA ETA INGURUNEAK/ 3.- MARELAREN ONDOKO ZONA/ 4.- ITURGITXIKO ZONA/ 5.- BOLUAKO HEZEGUNEA ETA INGURUAK/ 6.- BOLUA IBARRAREN AMAIERAKO BASO MISTO HOSTOERORKORRA/ 7.- BOLUA IBARREKO HALTZADIA/ 8.- BOLUA IBARRAREN AMAIERAKO BASO MISTO HOSTOERORKORRA (istiltzeekin)/ 9.- MARTIARTUKO BASO MISTOA/ 10.- MARTIARTUKO BASO MISTOA/ 11.- KOSTALDEKO PINUDIAK ETA LANDAZABALAREN TRANTSIZIO-ZONA/ 12.- LARRAINAZUBI ERREKA/ 13.- GOBELA IBAIA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	IZENA	ESPEZIEA		EMEK	ESTATUSA
					X					X			Erlatxoria	Pernis apivorus	Hegaztia	BITXIAK	Igarobidea (sedimentatzen du)
				X	X					X			Argi-oilarra	Upupa epops	Hegaztia	KALTEBERAK	Igarobidea (sedimentatzen du)
				X									Istingor txikia	Lymnocryptes minimus	Hegaztia	UDAL-INTERESA	Negutarra
				X									Mingorra	Gallinago gallinago	Hegaztia	UDAL-INTERESA	Negutarra
										X			Arrano txikia	Hieraaetus pennatus	Hegaztia	BITXIAK	Igarobidea (sedimentatzen du)
					X								Mirotz zuria	Circus cyaneus	Hegaztia	INTERES BEREZIA	Zehaztug.
						X				X			Antzandobi arrunta	Lanius collurio	Hegaztia	UDAL-INTERESA	Ugaltzailea
				X									Zuhaitz-belatza	Falco subbuteo	Hegaztia	BITXIAK	Ugaltzailea
										X			Hegatxabal arrunta	Alauda arvensis	Hegaztia	UDAL-INTERESA	Ugaltzailea
				X									Ipar-ahatea	Anas strepera	Hegaztia	UDAL-INTERESA	Negutarra
				X							X	X	Kuliska txikia	Actitis hypoleucos	Hegaztia	BITXIAK	Zehaztug.
				X			X			X			Apo-hontza	Otus scops	Hegaztia	UDAL-INTERESA	Ugaltzailea
				X									Amiltxori txikia	Ixobrychus minutus	Hegaztia	BITXIAK	Ugaltzailea
				X									Uhalde-enara	Riparia riparia	Hegaztia	KALTEBERAK	Igarobidea (sedimentatzen du)
										X			Kalandria	Melanocorypha calandra	Hegaztia	INTERES BEREZIA	Igarobidea (sedimentatzen du)
				X									Benarriz arrunta	Acrocephalus schoenobaenus	Hegaztia	IRAUNGITZEKO ARRISKUAN	Igarobidea (sedimentatzen du)
				X					X				Lezkari arrunta	Acrocephalus scirpaceus	Hegaztia	BITXIAK	Ugaltzailea
				X									Lezkari karratxina	Acrocephalus arundinaceus	Hegaztia	BITXIAK	Ugaltzailea
				X									Zertzeta arrunta	Anas crecca	Hegaztia	UDAL-INTERESA	Negutarra
X					X					X			Belatz gorria	Falco tinnunculus	Hegaztia	UDAL-INTERESA	Ugaltzailea
	X				X	X	X	X	X	X			Zata arrunta	Caprimulgus europaeus	Hegaztia	INTERES BEREZIA	Ugaltzailea
				X									Zankaluzea	Himantopus himantopus	Hegaztia	INTERES BEREZIA	Igarobidea (sedimentatzen du)
										X			Buztangorri argia	Phoenicurus phoenicurus	Hegaztia	KALTEBERAK	Igarobidea (sedimentatzen du)
X													Ubarroi mottoduna	Phalacrocorax aristotelis	Hegaztia	BITXIAK	
X													Txirri arrunta	Calidris alpina	Hegaztia	BITXIAK	Negutarra/pasabidea
X													Erroia	Corvus corax	Hegaztia	INTERES BEREZIA	Ugaltzailea
X		X											Bordeleko sugea	Coronella girondica	Narrastia	UDAL-INTERESA	

					X	X	X	X	X	X			Eskulapioren sugea	Elaphe longissima	Narrastia	INTERES BEREZIA	
X		X											Iparraldeko suge leuna	Coronella austriaca	Narrastia	UDAL-INTERESA	
		X								X			Txinbo burubeltza	Sylvia melanocephala	Hegaztia	UDAL-INTERESA	Ugaltzailea
X		X											Eskinko hiruhatza	Chalcides striatus	Narrastia	UDAL-INTERESA	
				X									Mokozabala	Platalea leucorodia	Hegaztia	KALTEBERAK	Igarobidea (sedimentatzen du)
				X			X				X		Apoarmatu istilzalea	Emys orbicularis	Narrastia	KALTEBERAK	
				X							X	X	Apoarmatu korrontezalea	Mauremys leprosa	Narrastia	KALTEBERAK	
				X									Koartza gorria	Ardea purpurea	Hegaztia	BITXIAK	Igarobidea (sedimentatzen du)
	X		X		X		X		X				Gabiraia	Accipiter nisus	Hegaztia	INTERES BEREZIA	Ugaltzailea
					X	X	X		X				Katajineta	Genetta genetta	Ugaztuna	UDAL-INTERESA	
X													Belatz handia	Falco peregrinus	Hegaztia	BITXIAK	Ugaltzailea
								X	X				Schreiber muskerra	Lacerta schreiberi	Narrastia	INTERES BEREZIA	
				X							X		Larre-buztanikara	Motacilla flava	Hegaztia	UDAL-INTERESA	Negutarra
										X			Zingira-hontza	Asio flammeus	Hegaztia	BITXIAK	Igarobidea (sedimentatzen du)
					X					X			Hontz zuria	Tyto alba	Hegaztia	UDAL-INTERESA	Ugaltzailea
	X				X	X	X	X	X	X			Tarina	Carduelis spinus	Hegaztia	INTERES BEREZIA	Negutarra
X				X							X	X	Martin arrantzalea	Alcedo atthis	Hegaztia	INTERES BEREZIA	Ugaltzailea
				X			X						Amiltxori arrunta	Nycticorax nycticorax	Hegaztia	BITXIAK	Ugaltzailea
					X	X	X		X				Miru beltza	Milvus migrans	Hegaztia	UDAL-INTERESA	Ugaltzailea
									X	X			Miru gorria	Milvus milvus	Hegaztia	KALTEBERAK	Igarobidea (sedimentatzen du)
X						X				X			Mozolo arrunta	Athene noctua	Hegaztia	UDAL-INTERESA	Ugaltzailea
				X	X				X	X			Txio horia	Phylloscopus trochilus	Hegaztia	BITXIAK	Igarobidea (sedimentatzen du)
							X		X				Ur-satitsua	Neomys fodiens	Ugaztuna	UDAL-INTERESA	Zehaztug.
				X									Dilindaria	Remiz pendulinus	Hegaztia	INTERES BEREZIA	Negut./Ugalt.
				X	X	X				X			Euli-txori beltza	Ficedula hypoleuca	Hegaztia	BITXIAK	Igarobidea (sedimentatzen du)
	X										X	X	Arantzarraina	Gasterosteus aculeatus	Arraina	KALTEBERAK	
	X		X		X	X	X		X				Okil txikia	Dendrocopos minor	Hegaztia	INTERES BEREZIA	Ugaltzailea
					X								Okil handia	Dendrocopos major	Hegaztia	UDAL-INTERESA	
				X									Uroilanda pikarta	Porzana porzana	Hegaztia	INTERES BEREZIA	Zehaztug. (ugalt.)
							X						Baso-igel gorria	Rana temporaria	Anfibioa	UDAL-INTERESA	
					X				X				Baso-igel iberiarra	Rana iberica	Anfibioa	INTERES BEREZIA	
							X	X	X				Zuhaitz-igel arrunta	Hyla arborea	Anfibioa	UDAL-INTERESA	
				X					X	X		X	Uroilanda handia	Rallus aquaticus	Hegaztia	BITXIAK	Ugaltzailea
X													Harkaitz-zozo urdina	Monticola solitarius	Hegaztia	INTERES BEREZIA	Zehaztug. (ugalt.)
					X		X	X	X				Arrabio arrunta	Salamandra salamandra	Anfibioa	UDAL-INTERESA	Zehaztug.

X													Apo lasterkaria	Bufo calamita	Anfibioa	KALTEBERAK	
						X				X			Lepitzulia	Jynx torquilla	Hegaztia	INTERES BEREZIA	Ugaltzailea
							X		X				Uhandre marmolairea	Triturus marmoratus	Anfibioa	UDAL-INTERESA	
X	X		X				X		X	X			Uhandre palmatua	Lissotriton helveticus	Anfibioa	UDAL-INTERESA	
											X		Ipurtatsa	Mustela putorius	Ugaztuna	INTERES BEREZIA	Zehaztug.
	X			X	X		X	X	X	X			Seoane sugegorria	Vipera seoanei	Narrastia	UDAL-INTERESA	
					X	X	X	X	X		X		Bisoi europarra	Mustela lutreola	Ugaztuna	IRAUNGITZEKO ARRISKUAN	Zehaztug.
				X									Txilinporta	Tachybaptus ruficollis	Hegaztia	BITXIAK	Ugaltzailea
X										X			Kurlinta handia	Numenius phaeopus	Hegaztia	UDAL-INTERESA	Negutarra

6.II Taula: Katalogatutako fauna. Iturria: Getxoko udala (2015 uztaila)

Modu osagarri baten Eusko Jaurlaritzaren ingurumen kartografia aztertu da. Dokumentu honen arabera, ondorengo fauna-interes handiko eremuak identifikatzen dira:

⇒ *Babes eremua:*

- Schreiber muskerra (*Lacerta schereiberi*) eta baso-igel iberiarra (*Rana iberica*), azterketaren eremuaren azalera guztian zehar banatuak.
- Bisoi europarra (*Mustela lutreola*), Gobelan, Boluan edo Larrañazubin zehar banatua.
- Txilinporta lepo-beltza (*Podiceps nigricollis*)
- Txenada mokobeltza (*Gelochelidon nilótica*)
- Belatz handia (*Falco peregrinus*)
- Arantzarraina (*Gasterosteus aculeatus*)

⇒*Interes bereziko gunea*

- Benarriz arrunta *(Acrocephalus schoenobaenus)*

Banaketa areak ondorengoak dira:

Schreiber muskerraren babes eremua

Baso-igel iberiarraren babes eremua



Bisoiaren babes eremua



Belatza, txenada eta txilinportaren babes eremua



Arantzarrainaren interes bereziko eremua



Arantzarrainaren babes eremua



Benarrizaren interes bereziko eremua

12 (2) zenbakidun planoan, fauna interesgarriaren multzoa jasotzen da eta apo lasterkariaren banaketa esparrua adierazten da.

Aipaturiko multzoko espezieen artetik, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan jasotakoak zehaztasun gehiagorekin azaltzen dira

Interes bereziko espezieak

Schreiber muskerra (Lacerta schreiberi)

Izaera autoktonoa duen espeziea, EAEko isurialde atlantiarreko mendebaldeko erdian bizi da oro har, eta kostaldeko zenbait lekutan edo Gipuzkoako itsasertzetik hurbil agertzen da noiz edo noiz. Itsas mailatik estai muinotarreraino agertzen da baina azken horretatik gora ez da ia igarotzen. Mendebaldeko endemismo iberiarra da eta penintsularen mendebaldean, erdialdean eta ipar-mendebaldean hedatzen da.

Landazabaleko hainbat ingurunetan agertzen da baina batik bat landaredi ugariko harrizko murruetan eta basoen edo sastrakadien ertzetan aurki daiteke. Artadi kantauriarrean eta horren fase degradatuetan ere aurki daiteke. Itsasertzeko otalurretan ere izaten da; batzuetan, musker berdearekin harremanetan sartzen denean batez ere, eremu higro-turbosotan agertzen da.

EAEn, habitat-galtzeari zor zaio arazo nagusia; oro har, nekazaritza eta baso-erabileren ondoriozko habitataren aldaketa, murrizketa eta hondaketa

Azterketa eremuan, ibaiertzeko landarediari eta larre eta laborantzari erlazionatuta aurkitzen da.

Igel iberiarra (Rana iberica)

Ipar-mendebaldeko jatorria duen endemismo iberiarra da, banaketa urriarekin. 60 metroko altitudetik 450 metrora ikusia izan da, balio ertaina 234,3 metrotan kokatuz. Bere presentzia lurraldean puntuala da: iparmendebaldeko eskualdean maiztasun gehiagoz agertzen da, aldiz iparekialdeko eskualdean gutxiago. Populazio guztiak kantauriar isurialdean kokatzen dira, Gipuzkoako eta Gorbea inguruko behaketa batzuk izan ezik.

Mendi-erreka motako bigarren mailako ur-ibilguetan bakarrik ageri da, ibilgu horiek zeharkatzen dituzten inguruak aintzat hartu gabe; baina nahiago du ibaiertzetako landaredia eta arrokatsua den substratua egotea

Euskal lurraldean espezieak gaur egun daukan egoerari dagokionez, egungo estatusa, gizakion presioengatik baino gehiago, mota ekologikoko faktoreek finkatzen dute. Edonola, bere egoera oso hauskorra da.

Txilinporta lepo-beltza (Podiceps nigricollis)

Espezie honen izaera negutarra da. EAEko kostaldean, non bakana den, nahiz Ulibarriko urtegian aurki daiteke. Espainiari dagokionez, hegoaldean kumatzen du batik bat eta munduko banaketa-area Eurasia, Iparramerika eta Hego Afrikan zehar hedatzen da.

Populazioari dagokionez, kostaldean tamaina eskasekoa da, Txingudin banakako 1 edo 2 behatu dira, Ulibarriko urtegian ugariagoak dira, 1996 urteko neguan kopuru hori 33 aleko zenbateko maximoekin.

Espainia osoan, negutarren zenbaketek ehuneko gutxi batzuen zifrak ematen dituzte eta populazio habiagileen kopurua ez dago behar bezala finkaturik. Europako polpulazioa gutxienez 39.000 bikotekoa da.

Mehatxu nagusienak habitataren eraldatzea, harrapakinak eta gizakiak eragindako eragozpenak dira, guzti hauek habiagintza garaiarekin erlazionaturik. Negutarra denez ez du ematen arazo esanguratsuei aurre egin behar dienik.

EAEn, estuario eta urtegi handietan; izan ere, negualdian babestutako itsasertzeko eremuak eta barne aldeko hezegune zabalak ditu nahiago. Habiagile gisa izaera anitzeko hezegunetan ageri da

Espezie bitxiak

Txenada mokobeltza (Gelochelidon nilótica)

Espezie honen izaera, migratzaile bakana eta nohizbehinkako negutarraren artean banatzen da.

EAEn kostan zehar ikusi izan da, batez ere Bilboko Abran, apirila-maiatza eta iraila-urriko migrazio-garaietan, noizbehinkako negutarren bat edo bestez gain. Bi aipamen egiten dituzte Gipuzkoan, berriz, 7 gutxienez, Abran. Espainian oso lekuturik ugaltzen da, batez ere hegoaldeko erdian, eta negua oso ale gutxik igarotzen dute bertan. Europari dagokionez, aldiz, Mediterraneoaren eta Itsaso Beltzaren inguruan bakarrik egiten du habia; Danimarka eta Alemanian ere ikus daiteke kolonia bakanen bat; umatu ondoren sakabanatu egiten da eta negualdia Afrikan igarotzen du. Espezie honek etenekin kumatzen du bost kontinenteetan zehar.

Populazioari dagokionez, Espainian 1.869 bikote ugaltzaile aipatzen ditu, Europan, berriz, 6.800-16.000 daude, guztira.

Espeziearen erregresioa habitat galerari, plagiziden eraginari, predazioari eta ugaltze-kolonietako giza eragozpenei leporatzen zaie. Espezie honek nabarmen egin du behera Espainian eta Europan iragan mendearen amaieratik, eta beheranzko joera honek jarraitu egiten du azken urteotan

EAEn kostaldean, batez ere estuarioetan aurkitzen da nagusiki bere habitata. Delta, estuario, padura eta urmaeletan kumatzen du, eta habiagintza-garaietatik at mota askotako habitatetan ikus daiteke

Belatz handia (Falco peregrinus)

Mundu osotik hedatua, Ertamerika eta Hegoamerika salbu, eremu klimatiko guztietan. Europan errepresio gogorra jasan du, batez ere nekazaritzako pestiziden eraginez. Gaur egun egonkortuta edo berreskuratze jakin batekin agertzen da. Iberiako zati handi batetik banatuta, eremu askotan nahiko arrunta da. Partzialki migratzailea, urri eta azaroko udazkeneko pasoan urriago ikusten da. Itsaslabarretan eta barnealdeko haitzetan egiten du habia, gure mendi eremuetan, ibai arroiletan eta kostako itsaslabarretan.

EAEko hiru eremuetan erregulartasunez agertzen da, kostaldeko lerroan zehar eta mendiguneen ertzetan.

Zinegetika jarduerak eraginkortasun handiagoz kontrolatuz, harkaitz eta itsaslabarren babes egoki batekin, populazioa mantendu bakarrik ez, handitzea lortu daitekeela uste da.

Espezie zaurgarriak

Arantzarraina (Gasterosteus aculeatus)

Espezie iktikoa da, tamaina txikikoa. Gorputza fusiformea da, alboz trinkotua dagoena. Ez du ezkatarik, xafla dermikoak baizik. Nahiz eta Atlantikotik oso hedatua den, penintsula iberiarrean kantauriar isurialdean agertzen da, gune jakin batzuetan kokatuta. Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan gaur egun arrain honen taldeak bi tokitan daude, bata

Bizkaian (Ibaizabal arroaren ubidea) eta bestea Gipuzkoan (Bidasoa ibaiaren beheko aldea). Gobela ibaian 2 eta 465 ale/100m2-ko dentsitateak zainpetu direla aipatzen dira.

Ibaien beheko aldeetan bizi da, beti mareen eraginaren ingurutik hurbil. Ibaien tarteak okupatzen dituzte, eta baita urtegiak edo idoi txikiak eta hezeguneak ere. Udabarritik udara ugaltzen dira.

Galtzeko arriskuan daudenak

Benarriz arrunta (Acrocephalus schoenobaenus)

Espezie autoktono eta migratzaile udatiar honek kostaldeko lezkadietan egiten ditu habiak. Orokorrean lezkadien ertzetan eta zingiretako bestelako landareetan ere egiten ditu habiak, zuhaitz edo zuhaixkak dauden tokietan, uretatik urrun bada ere.

Mugatze faktore garrantzitsuenak habitata eragiten dutenak dira, nagusiki lezkadien edota habitat zingiratarren aldaketak eta suntsitzeak: suteak eta ebaketak ugalketa garaian.

EAEko populazioa bereziki txikia da, ale oso gutxitara murriztua azken urteotan

Kudeaketa Planak dituzten espezieak

Azterketa alorra bat dator baso igel iberiarraren eta Schreiber muskerraren (Lacerta schreiberi) "lehentasunezko banaketa eremuekin". Hala ere, bere presentzia edo presentzia eza zehaztasun gehiagoz determinatu bitartean, banaketa Bizkaia osoan kartografiatzen dela adierazi nahi da.

Lehenengo espezieen kasuan Kudeaketa Planen proposamenak daude eta horien helburu orokorra espezie horien gaineko mehatxuak ezabatzea da, populazioen lehengoratzea, kontserbazioa eta erabilera egokia bultzatuz eta horien habitaten babesa eta zaintza sustatuz EAEko lurraldean.

Baso igel iberiarraren kasuan, espeziea eragiten duen mehatxu nagusia ibai ibilguen baldintza fisikoen aldaketaren ondoriozko habitataren asaldura da (ibilguen zuzenketa,

bilketagatik emariak kentzea, ertzak egonkortzea, sakontzea edo bestelako aldaketak ibilguan, edo ibaiertzeko landaredia kentzea).

Espeziearen ustezko presentzia edo presentzia segurua duten arroetako babes eta zaintza neurri gisa adierazten da habitatean edonolako esku-hartzeak egitea saihestea, espeziearen edozein fasetan ondorio negatiboak eragin ditzaketenak egitea, hain zuzen.

Schreiber muskerrari dagokionez, EAEn eragin negatiboaren faktore nagusia habitat naturalaren galeran oinarritzen da: baso eta zuhaixka eremuen suntsiketa, ibaietako ibar basoak, zingirak, hesiak, mugak eta abar. Gainera, landazabalaren pixkanakako sinplifikazioak mikrohabitaten kopuruak behera egitea ekarri du.

Hortaz, banaketa eremuan populazioa mantentzea bermatzeko espezieak erabilitako habitat mota zaindu eta mendean hartzen dituzten presioak eta erabilerak murriztu behar dira.

Nolanahi ere, landazabaleko eremuei arreta eskaini beharko zaie Schreiber muskerraren kasuan, eta ur ibilguen inguruko eremuei, baso igel iberiarraren kasuan.

Horrez gain, aintzat hartu da Foru Aldundiaren 2006ko ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretu bidez onartutako **Bisoi europarraren Kudeaketa Plana**, azterketa eremuan egon daitekeen espeziea.

Plan horren helburu nagusia espeziea lehengoratzea da; izan ere, galtzeko arriskua larria da, egungo egoera zaintzeko eta, batik bat, hobetzeko neurririk hartzen ez bada. Horrez gain, honako ildo orokor hauek finkatzen ditu:

- Bizkaiko ibai ibilguen kontserbazioa eta hobekuntza aktiboa.
- Bisoi amerikarraren kontrola.
- Legez kanpoko jardueren kontrola.
- Kudeaketa Planaren aplikazio alorreko ingeniaritza lanen egokitzapena.
- Ezagutzak gizartera bideratzea bultzatzea.
- Kudeaketa planen funtzionamendua egiaztatzera bideratutako azterketak egitea.

- Espezieen biologiako alderdi ezezagunetan edo behar adina ezagutzen ez diren alderdietan azterketa puntualak garatzea.

Interes bereziko arloetan, zuzenean zein zeharka, espeziea kontserbatu edo berreskuratzeari aintzat hartzeko moduko eraginik ekarriko dion edozein plan edo proiektu egitekotan, bera bakarrik edo beste plan edo proiektu batzuekin batera, Nekazaritza Sailaren nahitaezko txostena egin beharko da horri buruz. Izan ere, Kudeaketa Plan honetan azaldutako helburuengan izango dituen eraginak behar bezala balioztatuko direla zainduko da bertan.Balioztatze horrek, beste alderdi batzuen artean, espezieari, uren kalitateari eta habitatari egin liezazkieten eraginak aztertuko dit. Horrela, aurreikusi den eragina kontuan hartuta, berau burutzeko datarik onenak zehaztuko dira, martxoaren 15etik uztailaren 31ra bitartean espeziea ugaltzeko aldi kritiko gisa ezarri dela kontuan hartuta (10 Art.).

Lurraldeko eta hirigintzako plangintza-tresnek bisoi europarraren habitatak gorde, iraunarazi edo leheneratzen direla ziurtatuko dute, eta habitat horiek mugatzea beharrezkoa denean, hori justifikatu beharko dute (12 Art.).

Horrez gain, aintzat hartu da Foru Aldundiaren 2006ko abenduaren 9ko 186/2008 Foru Dekretu bidez onartutako **Arrain Hiruarantzaren Kudeaketa Plana**. Plan honek Gobelaren ibilgua, Bolueko hezegunea barne, interes bereziko aldetzat hartzen du, plan edo proiekturen bat egitekotan, bera bakarrik edo beste plan edo proiektu batzuekin batera, Nekazaritza Sailaren nahitaezko txostena egin beharko da horri buruz. Hiltzeko, arrapatzeko edota haien habitatak suntsitzeko helburua duen baimendu gabeko jarduera oro debekatzen da. Aipaturiko mehatxu nagusiak kutsadura eta uraren kalitatea jeistea, hezeguneen lehortzea, ibilguen morfologia eta emariaren aldaketak, landare estaldura suntsitzea eta espezie exotikoak sartzea dira

Hau dela eta, Plan honen helburuek arrain hiruarantzaren habitaten berreskuratzea eta mantentzea sustatzen dute, baita espezie exotikoak sartzearen gaineko kontrol zorrotz bat.

Planak deskribaturiko mehatxuak ekiditeko edo leuntzeko neurri desberdinak finkatzen ditu:

- Uren kalitatearen kontrola eta hobekuntza Bizkaian arrain hiruarantzari dagokionez interes berezikoak diren aldeetan, ondore horretarako hondakinak dituzten aldeen saneamendua eta arazketa egiteko lan egokiei lehentasuna ematea sustatuz.
- Hezeguneak lehortzea ekiditea.
- Interes berezikoak diren aldeetan espezie horren ugalketa tokietatik gora kokatuta dauden urtegietan hondo garbiketak ekiditea: apirila eta abuztua artean.
- Ubideetan aldaketa fisikoak egitea ekiditea (ubideraketak).
- Arrain hiruarantzaren eta bere habitataren kasuetan interes berezikoak diren aldeetan ustez eragin negatiboak izan ditzaketen jarduketen proiektuen kasuetan aurrez neurri babesleak eta zuzentzaileak prestaturik edukitzea, alde berriek talde horien bideragarritasuna errazteko gutxieneko beharkizunak bete ditzaten.
- Ibaiertz eta ibilguen lehengoratzeak
- Espezie aloktonoen sarrera ekiditea

Azkenik, Gorrondatxe hondartzan **apo lasterkariaren** *(Bufo calamita)* populazioaren beherakada nabarmen bat antzeman zen 2006 urtean. Ordutik Getxoko Udaleko Ingurumen saila, apo populazio honen inguruan lanean hasi zen beherakada honen arrazoiak jakiteko eta kudeaketa neurri jakin batzuk martxan jarriz haien desagerpena ekiditeko.

Hau dela eta, 2007 urtean habitataren hobekuntza eta egokitze lanak hasten dira (lehendik dauden hezeguneen desugerketa eta belar-sastrakak garbitzea). Ugalketa eta negupasa eremuak aurkitzen dira. Populazioaren mehatxu nagusiak zerrendatzen hasten dira. Bisitariei eta orokorrean auzotarrei espeziea, proiektua eta arazoa ezagutzera ematen zaie.

2008 urterako, hondartzan espeziearen populazioaren hazkunde bat ikusten da

Ondorengo urteetan babes lanak mantentzen dira eta 2011n populazioaren monitorizazio bat egiten hasten dira eta dispertsio putzuak hesi hauskor batzuekin iztea erabakitzen da, hesi hauek ez dute putzuetara sartzen uzten.

Populazio honen jarraipenak, apo lasterkariaren populazioa nabarmen areagotu dela erakusten joan da.

KORRIDORE EKOLOGIKOEN SAREA

EAEko korridore ekologikoen sareak (Natura 2000 Sarerako proposatutako espazioak) migrazioa, banaketa geografikoa eta espezie basatien truke genetikoa hobetuko duten paisaiako elementuak kudeatzea du xede, 1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluaren 92/43/CEE Direktibak 10. artikuluan gomendatzen duenari jarraiki.

Korridore horien kokapena EAEko 2007-2010 aldirako Ingurumeneko Esparru Programan jasotako konpromisoa da, naturaren eta biodibertsitatearen babes helburuaren barruan.

Azterketa eremuan, ez da EAEko Korridore Ekologikoen Sareko elementurik identifikatu.

PAISAIA

Getxoko udalerri (Bizkaia), Bilbo Metropolitarra area funtzionalean sartuta dago eta par-ekialdean Sopelarekin muga egiten du; ekialdean, Berango eta Erandiorekin; hego-ekialdean, Leioarekin nahiz Kantauri itsasoarekin eta gainerako mugetan Bilboko itsasadarrarekin.

Itsasoarekin duen konexioaren ondorioz, itsasoak paisaian zerikusi handia du, hondartzak, itsaslabarrak eta aisialdiko portua (kirol portua) nabarmenduz. Kostaldeko mugaren gehiengoa, katalogatutako itsas paisaien artean aurkitzen da, Galea Lurmuturra - Barrika eremua nabarmenduz.

Erabat hiritarra da udalerria, jendetsua eta bere hiriguneek (Getxoko Andra Maria, Algorta, Areeta, Neguri eta Romo) hiri-jarraipena osatzen dute. Nolanahi ere, udal-lurzoru gehiena hartzen dute eta eraikuntzarik gabe bakarrik iparraldean kokatutako lurzoruak gelditzen dira, hain zuzen ere, itsasertzaren bigarren lerroan eta itsaslabar ondoan.

Partzela antropizatuak eta hiri-eraginekoak daude.

Udalerriak ezohizko forma irregular bat aurkezten du, kostaldeari itsatsita bajatzen den zerrenda estu batekin, hegoaldera bajatzen garen heinean estuagoa egiten da, bolue errekastoaren eta Martiartu ibarraren ibilbidearen eremutik zertxobait barrukaldera sartuz, planoan etzundako T baten forma hartzen du.

Iparraldeko mugan, hau da, Galea lurmuturretik Berango eta Sopelako udalerrietaraino itsaslabar malkartsuak ageri dira, kota altuenetan 80 eta 90 metroko altitudearekin, ekialderantz goazen heinean, altitudea jeisten joango da. Area honen eremu guztia kostaldetik oso gertu dagoenez, ez da elementu orografiko esanguratsurik nabarmentzen, honela, kotarik altuena Bolueren haranean aurkitzen da (125 metro inguru), zehatz mehatz Gobelaren adar diren errekasto batzuk zeharkatzen duten Errotaetxe eremuan.

Kostaldearekin jarraituz, kosta linea oso malkartsu bat aurkitzen dugu, non kareharri eta tuparri buztintsuz osatutako itsaslabar bertikalek itsasoarekin mugatzen den eremuan nagusi diren. Hondartza eremu batzuk bakarrik hausten dute itsaslabar linea hau. Mendebaldetik ekialdera, udalerriari dagozkion ondorengo hondartzak aurkitzen ditugu: Ereaga, Arrigunaga, Túnel Boca, Azkorri eta La Salvaje

Sarbide zailak eta buzamendu oso bertikaleko flysch itsaslabarrez inguratuta egotea dira Getxoko hondartzak bereizten dituzten ezaugarriak. Arrigunaga eta Ereaga hondartzen deskripzio labur bat egiteko, Abra itsasadarraren babesean daudela eta honela olatu aldetik babes handiagoa dutela aipatu beharko litzateke.

Gainerako funtsezko beste bi hondartzak, Azkorri edo Gorrondatxe eta La Salvaje edo Barinatxe, itsasoari irekiak dira eta olatuen eragina nabarmenagoa da. Biak, bata bestearen atzean kokaturik daude, Azkorriko Punta malkartsuak banandurik. Azkorrikoak, 810 metroko luzera dauka eta harea larri bat aurkezten du, interes botaniko handia duten duna landaredi komunitate batzuekin. Bestalde La Salvaje, 660 metro baino luzera txikiagoarekin, arezkoa da eta babestu beharreko duna jakin batzuk agertzen dira. Galea Lurmuturra eta Azkorri Lurmuturraren artean Tunel Boca hondartza kokatzen da. Hondartza honetan, kolektore handi bat itsasoratzen da.

Getxoko kokapen geografikoa dela eta, bere ipar-ekialdeko muturra Sopelako eremuan sartzen da; Getxo, bere eremuak nagusiki udalerri osoa jasotzen du; Goierri, ekialdeko barne muturrean eta Barakaldo, hegoaldean.

"Punta-Galea-Barrika" eta "Getxo" izeneko katalogatutako itsas paisaiaren espazioak nabarmentzen dira. Informazio kartografikoan adierazten den arabera kostaldeko eremu gehienak hartzen ditu (14 z. planoa).

Getxon paisaia-mugarri bi nabarmentzen dira: ***Bizkaiko Zubia*** (Zubi Esekia) eta ***Haixerrota Errota***.

AIREAREN KALITATEA

Getxok airearen kalitateari buruzko sarearen honako estazioak ditu: Algorta (BBIZI2), Getxo (Trinitarioak) eta Santa Ana, Behe Nerbioiren zonari dagozkionak.

Eusko Jaurlaritzako datuen arabera, airearen kalitatea "ona" edo "onargarria" den egunen ehunekoa Getxon 2005-2013 denboraldian %86,3koa izan da 2006. urtean eta %99,5ekoa 2013. urtean, beraz, udalerrian airearen kalitateak maila onargarriak mantentzen dituela ondoriozta daiteke.

EGOERA FONIKOA ETA ZONIFIKAZIO AKUSTIKOA

Zarataren bilakaerarako eta kudeaketarako testuinguru legegilea, nagusiki, hauek finkatzen dute: 2002/49/CE Europako Direktiba, Ingurumeneko zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 1513/2005 Errege Dekretuak garatutako Zaratari buruzko 37/2003 Legea eta zonifikazio akustikoari, kalitatezko helburuei eta emisio akustikoei buruzko 1367/2007 Errege Dekretua.

Udalerriaren zati bat BFAko Zor Akustikoaren Zonaren barruan (2013) sartzen da. Zarataren foku sortzaile nagusi bezala metroaren komunikazio-azpiegiturak, gainazaleko tarteetan, eta BI-637, BI.3737 eta BI-3730 errepideak identifikatzen dira. Analisiarekin bat, batera hartuta, 65 eta 75 dB(A) mailekin eragiten ari zaio gutxi gorabehera 1.100 biztanleri eta 300 etxebizitza ingururi.

Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko errepideek (2014) sortutako soinu-mailei buruz landutako datuen arabera, Getxok ondorengo emaitzak aurkezten ditu:



6.e Irudia: Errepideen soinu-mailak Leq eguna



6.f Irudia: Errepideen soinu-mailak Leq arratsaldea



6.g Irudia: Errepideen soinu-mailak Leq gaua

Gainera, Getxoko udalerria Bilboko Metroak igorritako zarataren eraginpean aurkitzen da. Ondorengo irudietan aipatutakoa adierazten da:



6.h Irudia: Metroaren soinu-mailak Leq eguna



6.i Irudia: Metroaren soinu-mailak Leq arratsaldea



6.j Irudia: Metroaren soinu-mailak Leq gaua

Bestalde, Getxoko Udala udalerriko zarata-mapa eta zonifikazio akustikoa burutzen ari da. Ondoren, landutako zonifikazio proposamena azaltzen da:

ELABORACIÓN DE MAPA DE RUIDO Y
PLAN DE ACCIÓN DEL MUNICIPIO
DE GETXO
AYUNTAMIENTO DE
GETXO
AAC
Doc. Nº: AAC101201
Exp.: 10056
MAPA Nº: D.E.-5
OBJETO: PROPUESTA ZONIFICACION ACUSTICA
AREAS ACUSTICAS
Objetivos de Calidad Acustica dB(A)
Ld
Le
Ln
RESIDENCIAL
RESIDENCIAL_FUTURO
RECREATIVO
TERCIARIO
TERCIARIO_FUTURO
INDUSTRIAL
ESPACIOS_NATURALES
65 65 55
60 60 50
73 73 63
70 70 65
65 65 60
75 75 65
" Definir "
Clasificación Edificios
Edificio Residencial
Edificio Sanitario, Docente y Residencias
Otros Edificios
Edificio Industrial
Otras Construcciones
1:8.500
0 65 130 260 390 520 650 780
Meters
1



6.k Irudia: Zonifikazio akustikoaren proposamena

Dokumentu honi erantsitako kartografian, egoera akustikoari buruzko plano bat egin da (16 z. planoa). Bertan, Bizkaiko Foru errepideen Zortasun Eremua mugatzen da (4523/2013 F.A.). Errepideen eta metroaren 50 dB-ko isofonak ere adierazten dira.

213/2012 Dekretuak, etorkizuneko garapen denek, Zortasun Akustikoko Eremukoak eta kanpokoak barne, Inpaktu Akustikoaren Azterketa bat jaso behar dutela finkatzen du. Exekutatu aurretik, kanpoko inguruneak kalitate akustikoaren helburuak betetzen dituela justifikatuko da.

Zortasun Akustikoko Eremuan sartutako etorkizuneko garapenetan, dagokien Inpaktu Akustikoaren Azterketa egiteaz gain, Udal Administrazioak azterketa akustikoaren dokumentazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Lan eta Garraio Sailari igorri beharko dio, honek nahitaezko txostena igor dadin.

INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA

Populazioa eta egitura ekonomikoa

1991. urtean 79.739 biztanle zeuden eta familiaren tamaina 3,46koa zen. Hurrengo 11 urteetan populazioak gorantz egin zuen 84.714 biztanlera iritsi arte. Harrezkero, biztanleria jaisten ari da eta 2014. urtearen hasieran 80.342 biztanle zeuden; familiaren batez besteko tamaina, ordea, 2,75ekoa zen..

Algortak hartzen du biztanleria guz2tiaren %48,8, Areetak %33,6 eta Andra Mariak gainerako %17,6.

1999-2013 denboraldian, Getxok 10 eta 30 urte bitarteko biztanleriaren %34,6 galdu du. Zehatz-mehatz esanda, 9.014 pertsona gutxiago dira.

Getxoko biztanleriaren %20,3ak 65 urte edo gehiago ditu.

Etorkinak %6,8 dira.

2010. urtean Getxon 33.233 pertsona okupatu zegoen, hain zuzen ere, udalerriko biztanleria guztiaren %41,3. Getxon populazio okupatua 9 puntutan gehitu da, 1996. urteko datuekin alderatuz. 2006. eta 2010. urteen artean, berriz, ia 2.200 pertsonatan murriztu da pertsona okupatuen kopurua. Getxon langabezia-tasa 2012ko hirugarren hiruhilekoan %12,5ean kokatzen da.

2008. urtean Getxoko biztanleko BPGa (azkeneko datu eskuragarria) 16.260 eurokoa zen eta 2000 eta 2008 urteen artean %40 gehitu da.

Getxoko udalerriko produkzio-egitura erabat markatzen du zerbitzuen sektorearen garrantziak.

Ildo horri eutsiz, Getxon sortutako aberastasunaren %87,3 sektore honetatik dator. Izan ere, Getxo, Aramarekin batera (Gipuzkoa, 210 biztanle 2010. urtean), zerbitzuen sektorean espezializaziorik handiena duen euskal udalerria da, Donostiako (%85,3) eta Bilboko (%85,1) udalerrien gainetik.

Getxok 1.200 biztanletik gorako euskal udalerrien artean batez besteko errenta pertsonalik handiena du, hain zuzen ere, 26.851 euro 2009. urtean.

2001-2009 denboraldian Getxon batez besteko errenta pertsonala %50ean baino pixka bat gehiagoan gehitu da.

Errenta-motaren arabera, Getxon kapitalen errentatik datorren errenta-ehuneko handia (%17,3) dago.

Getxoko HAPOa berraztertu baino lehen 2009. urtean azterlan sozioekonomikoaren esparruan etxebizitzei egindako galdeketaren emaitzekin bat, urte horretan 10 getxotarretatik ia 8k udalerritik kanpo lan egiten du; bakarrik getxotarren %23k bere jarduera profesionala Getxon garatzen du.

Gainerako getxotar okupatuetatik ia %30a (%28,8) Bilbora joaten da lan egitera eta, neurri txikiagoan, Erandio-Leioara (%10,3), Ezkerraldera (%9,9) eta Uribe Kosta Mungiara (%6,2).

Getxon sortzen den enpleguaren %37 getxotarrek betetzen dute.

Getxoko enpresen tamaina, funtsean, enpresa txiki eta ertain txikiekin bat dator.

Getxon kokatzen diren 6.482 establezimenduek 2012. urtean guztira 18.664 lanpostu sortu zituzten, beraz, 2000. urteko kopuruarekiko %17,1eko hazkuntza.

Sektoreei jarraiki, merkataritzak, garraioak eta ostalaritzak, jarduera profesionalek eta herri-administrazioak, hezkuntzak eta osasunak kontzentratzen dute udalerrian sortutako enplegu gehiena.

Sortutako enplegu guztiaren %35 0 eta 2 langileen arteko establezimenduetan biltzen da; bien bitartean, ia %23k 50 langiletik gorako 34 enpresatan dihardu.

Getxok 2001. urteaz gero du indarrean HAPOa, hasierako dokumentuaren aurreko ataletan aipatzen den bezala.

Hiri-lurzoruari dagokionez, 5,5 km2-ko azalera du; eskaintza, berriz, 3.800 etxebizitzetakoa da (2.900 egikaritze-unitateetan). Lurzoru urbanizagarria 250,9 hektareakoa da, 141,38 hektarea etxebizitza-erabilerarako eta 2.213 etxebizitzen eskaintza (dentsitateak: 9 etxeb./ha eta 30 etxeb./ha) eta 17,81 hektarea enpresa-parkerako.

Hiri-lurzoruan 1.721 etxebizitza gauzatu dira; lurzoru urbanizagarria ez da garatu eta lurzoru ez-urbanizagarri guztia itsasertzeko LPSak, hezeguneei buruzko LPSak eta baso nahiz nekazaritzari buruzko LPSak babesten dute.

Udalerriko azpiegitura nagusiak 17 z. planoan adierazten dira, horietatik errepide sarea eta metroa nabarmentzen dira.

Ondarea

Kultur ondarearen gainean Getxon babesteko agindu eta ebazpen desberdinak daude:

- ORDEN 1993 del 13 de septiembre protección de la CASA AMOROTOENA1993ko AGINDUA, irailaren 13koa, AMOROTOENEA ETXEA babesteari buruzkoa.«
- 1994ko AGINDUA, uztailaren 26koa, ponpatze-estazioari eta mala katesi buruzko espedientea hasten duena.
- 1997ko EBAZPENA, maiatzaren 5ekoa, ustezko arkeologia-zonetarako.
- 89/2001 DEKRETUA, Getxoko Area Berezia babesteko.
- 2001eko AGINDUA, urriaren 3koa, Andra Mariaren eliza babesten duena.
- 108/2003 DEKRETUA, Zubi Esekia babesteko.
- 2007ko AGINDUA, ekainaren 14koa, irina eta ogia egiteko eraikina babesten duena
- ORDEN 2007 del 14 de junio, protección del edificio Harino Panadera

Eusko Jaurlaritzako Ondare Zentroarekin etengabeko harremana dago, HAPOa berraztertzeko orduan.

Erantsitako kartografian (17 z. planoa) iturri, errota eta faroen gisako ondarearen elementu desberdinak adierazten dira. Hirigintza dokumentuan ondare-eraikinen azterketa sakon bat egiten da.

7. INGURUMEN UNITATE HOMOGENEOAK, INGURUMEN KALITATEAREN BALORAZIOA ETA ERABILERA AHALMENA (D/211/2012ren II Eranskina ‘f’)

Getxoko udalerrian ondorengo ingurumen unitate homogeneoak aurkitzen dira:

ITSASERTZEKO JABARIAN ITSASLABARRA; KOSTA; INGURUNE UHINDUA

Itsas ondoan kokatutako itsaslabar harritsu malkartsuak konfiguratzen dituen euskal itsasbazterreko lursail zati estua hartzen du. Lurraldearen iparraldean, udalerriko kostaldea inguratzen, Azkorrin zehar, Barinatxeko hondartzatik, Galea guztitik, Aixerrotako itsaslabarretaraino iritsi arte.

Zonarik malkartsuenetan eta itsas eragina duten horietan landare-estaldura urria da eta, hain zuzen ere, berezitasunik aipagarrienetakoa da hori.

Euskal kostaldean eremuko litologiaren arabera itxura desberdinak agertzen dituzten itsaslabarrak nagusitzen dira. Kostako flyscharen formazioak bereiz ditzakegu nabarmen estratifikatuta, geruzak, oro har, bertikalean edo azpibertikalean jarrita. Aurrekoak bezain orokortuta ez badaude ere, gainerakoekin kolorezko eta ehundurazko alde nabarmena markatuz, kareharri masibozko azaleratzeak konfiguratzen dituzten itsaslabar harritsuak bereizten ditugu; arroka trinkotuta eta tonalitate argiekin agertzen da.

Zenbait kasutan, bloke handiak agertu daitezke itsaslabarraren oinean itsasoaren higadurak edo itsas zabalera zabaltzen den mareartеko zabalguneak botata.

Unitate honek ez du gaitasunik hirigintza erabileretarako. Eremu hauek kontserbaziorako gordeko dira

HONDO IZURTUAREN ETA ISURIALDE-OINARRIEN GAINEAN BELARDI ETA LABORE ATLANTIKOAK NEKAZARITZARAKO. IBAI-JABARIA.

Ibarraren hondoekin eta depresioekin zerikusia duten nekazaritza-paisaiak. Barneko erliebe leuna dute. Horietan belardiak, betiere berdeak, nagusi dira eta labore-lur batzuk daude. Getxoko udalerriaren hego-mendebaldean eta Bolueko ibaitik hurbil aurki daiteke

Ibaiaren ibilbideari loturik daudenez, osagai lineal garrantzitsu batek definitzen ditu, “V” formako haranetan modu nabarmenean. Ezaugarri hau, loturiko osagai linean ezberdinek indartzen dute (ibai ertzeko landaredia, errepideak, elektrizitate-lineak,...) “pasillo” formako nekazaritza paisaia batzuk eratuz

Urbanizazio-maila ez da oso nabarmena, zabaltze sakabanatuarekin (baserriak eta auzo txikiak). Baina nabarmenki gehitzen da hondo eta depresio zabalenetan eta hirigune handietatik edo komunikazio-bide nagusietatik hurbil daudenetan. Bertan biztanleak, industria-nabe sakabanatuak, errepideak… kokatzen dira eta berriz urbanizatzeko prozesuak ematen dira.

Unitate honek ahalbidetutako erabilera gaitasuna baliabide primarioen ustiapena da. Dagozkien neurri zuzentzaileekin, azpiegiturak ere onargarriak izan daitezke. Eraikuntza erabilerak, lehendik dauden herriguneak izan beharko dituzte euskarri edo ustiapenei uztartuta egon beharko dira.

HEGALEN ETA IBAIARTEEN GAINEKO SASIA. IBAI JABARIA

Paisaiaren unitate hau Getxoko udalerriaren hego-ekialdean dago eta Bolueko ibaiaren ibar-mailari dagozkion kurbak igotzearekin bat egiten du. Talde honetan sastraka-mota anitz sartzen da, besteak beste: txilardia, otadia, iralekua, txilardi subkantauriarra, pre-txilardi subkantauriarra eta txilardi mediterraneoa *Erica scoparia* edota *Arbutus unedorekin*.

Euskadi osoan banatuta daude, mendi-kate edo muinoetako hegaletan, zuhaitz-landareak desagertu diren lekuetan.

Giza jardueraren, suaren edo eguraldi txarraren aurrean oso gogorra den landaredia da; horregatik ez du banaketa geografiko argirik eta horregatik topa dezakegu hegalen behealdean nahiz horien estai altuetan.

Higaduraren ondorioz sakonerarik gabeko lurzoruez estalita geratutako lursailetan koka daiteke eta harkaitz inerteen gaineko atal bizidun ñimiñoen modura ere garatu daiteke. Paisaiari dagokionez, ikus-unitate hori oso garrantzitsua da, inguratzen duten baso hostozabalekiko edo basoberritzeekiko jarraitasunik gabe azaltzen delako, kolorealdaketekin, hostotzaren trinkotasunarekin, bolumenarekin eta ehundurarekin islatuta. Oro har, ikusteko modukoak izaten dira, hegaletan duten kokapenagatik, haranaren hondoan dagoen behatzailearen ikus-ardatzarekiko parez pare egoten direlako.

Landaredia mota horrek abeltzaintzaren eragina jasaten du; animaliek jan egiten dute eta, beraz, segidako serie aurreratuagoetara eboluzionatzen ez diote uzten.

Unitate honen erabilera gaitasuna nekazaritza jarduerekin erlazionatuta dago.

IBAI-JABARIAN MOSAIKO MISTOA; MUINOAK ERATZEN DITUZTEN MENDI-MAZELAK ETA IBAIARTEKOAK; INGURUNE IZURTUA.

Getxoko udalerriaren hego-ekialdean dago, Larrañazubi eta Aurrera harrobiaren inguruneetan, alegia. Kategoria honen barruan mosaiko desberdinak sartu dira eta tesela-mota oso desberdinak dituzte: zuhaitzak, sastrakak, belardiak, harkaitzak, baso landaketak….

Oso itxura aldakorra duten mosaikoak dira eta, sarritan, ondo karakterizatuak dauden pasaia-moten artean trantsizio-egoerak irudikatzen dituzte. Trantsizioak zorrozki espazioan nahiz dinamikoak (aldez aurretik dagoenarekiko zati batean erabilera-aldaketak dituzten zonak) izan daitezke.

Lehenengo kasua, adibidez, ibai jabari eta jabari karstikoen arteko eremu batzuetan ematen da, aldiz bigarren egoeraren adibide bat, partzialki utzita dauden mendi eremuetan eratzen diren larre, sastrakadi eta baso landaketen mosaikoak dira.

Unitate honen erabilera gaitasunari dagokionez, natura ondarearen mantentzea egoki gisa aurkezten da, eta duen egoeraren arabera bere kalitatea hobetzeko jarduerak ere.

MUINOAK ERATZEN DITUZTEN MENDI-MAZELA ETA IBAIARTEEN GAINEAN HIRI INGURUKO MOSAIKOA. IBAI-JABARIA

Udalerriaren ipar-ekialdean dago, Getxoko gasolindegien eta Berangoko udalerriaren hasieraren artean, Kurtzeko auzotik hurbil. Area horiek lurzoruaren erabilera mistoa dute; ildo horri eutsiz, landa-paisaien gainean usadioz hirikoak diren elementuak (ekipamenduak, etxebizitza-eraikinak…) kokatzen dira, baita hiri-metabolismoarekin zuzeneko harremana duten bestelakoak (hondakindegiak, aisialdiko baratzeak, lantegiak, azpiestazio elektrikoak…) ere.

Hiri inguruko mosaikoak oso aldakorrak dira, baina landa- eta hiri-elementuak oso desberdinduak gainjarriak egoteagatik ondo karakterizatuak daude.

Batzuetan, baso irla txiki batzuk mosaiko hauetan integratzen dira, unitate honi konplexutasuna areagotuz.

Bilbo hiriaren ekialderantz hedatzen diren hegalak, hiri kanpoaldeko mosaiko mota hauen adibide garbia dira. Pasaia, Lekeitio,... herrietako aldirietan adibide xumeagoak aurkitu daitezke.

Unitate honen erabilera gaitasuna, dagozkien ingurumen integraziorako neurriak hartuz, urbanizazio aukerak dituzten hiri kanpoko espazioen jarduketen araberakoa da.

IBAI-JABARIAN BASO-LANDAKETAK; MUINOAK ERATZEN DITUZTEN MENDI-MAZELA ETA IBAIARTEAK; INGURUNE IZURTUA

Getxoko udalerriaren hego-ekialdean kokatzen dira, hain zuzen ere, Kukullagaren inguruneetan (Berango).

Landaketek oso itxura homogeneoa dute, ia beti espezie eta adin bereko indibiduoek osatzen baitituzte. Osatzen dituzten paisaiak, ordea, alda daitezke, erabateko homogeneotasunetik oso kolore eta egitura desberdinak dituen partzela mosaiko kaotikoraino, basoaren ustiapen-zikloaren etapa desberdinetan baitaude. Honela, zuhaitzik gabeko partzela batzuk agertzen dira, goldatuta eta landaketarako prest non makineriak erabilitako “zig-zag” motako sare dentso bat nabarmentzen den, oin gazteak dituzten partzelak non iratzeak eta muluak hazten diren, tamaina oneko aleak dituzten partzelak non koniferoen adaburuen berde iluna nabarmentzen den. Oraintsu jasandako suteek erretako partzelak oso ugariak dira eremu batzuetan, honela, baso landaketetan marrazten den mosaiko honen barruan, beste kategoria bat osatzen dute.

Partzelen arteko mugak lerrozuzenak izaten dira, egoera ezberdinetan aurkitzen diren lurren arteko kontraste sentsazio bat emanez. Jatorrizko nekazaritza paisaietan gertatzen den ez bezala, baso partzelen arteko mugak hegaletatik zehar kokatzen dira, garrantzi gutxiko ingurumen eraginarekin, hala ere, landaketaren erliebearen ezaugarriekin ez dira oso koherenteak. Erliebearen eta lursailen arteko koherentzia falta horrek paisaiako elementuen arteko harmonia faltaren sentsazio argia igortzen dio behatzaileari.

Harmonia falta horrek adierazpen gorena zenbait eremutan basoko hainbat espezie tartekatuta egindako landaketetan aurkitzen du..

Orokorrean *Pinus radiata* eta *Chamaecyparis lawsoniana* erabili dira, eta kasuren baten hostozabalen bat.

Atlantiar isurialdeko baso landaketak, gehienetan Monterrey pinuen (*Pinus radiata*) monolaboreak dira, Kaliforniako kostaldetik datorren koniferoa, eite erregularra, konikoa, adaburua zorrotza eta zati zuzen eta iluna.

Kanpoaldetik, Monterrey pinuen pinudi helduak, itxura zerratua eta uniformea aurkezten du, hala ere, barrura sartzean, baso nahiko zabalak direla antzeman daiteke, iratze arruntek osatzen duten ondo garatutako oihanpe batekin.

Landaketak kasu gehienetan espezie hostoiraunkorrekin egiten direnez, itxurak ez du urtaroen araberako aldaketa nabarmenik izaten

Unitate honen erabilera gaitasuna, basogintza jarduerari zuzendua dago bere bi alderdietan: basoen ustiapena eta kontserbazioa.

ITSAS JABARIAN KOSTALDEKO HONDARTZA ETA HAREATZAK. KOSTALDEAK. INGURUNE IZURTUA

Euskal itsasbazter malkartsuan metaketa hareatsuak nabarmentzen dira; eta horiek hondartzak eratzen dituzte bokaleetan edo irtendako itsaslabarrek mugatutako senadi txikietan. Areatza, Ereaga, Azkorri eta Barinatxeko hondartzekin bat datoz, azkeneko kasuan mendebaldean. Marearen eraginarengatik euskal hondartzek tamainaren aldaketa nabarmenak izaten dituzte eta hori da beraien berezitasuna.

Euskal kostaldean duten hedadurarengatik, garrantzi erlatiboa urria da, baina beren presentziak itsasertzeko paisaia-aniztasuna aberasten du eta kontraste argiak sortzen dira inguratzen dituzten itsaslabarrekin.

Kostaldeetako hareatzen barruan ordezkaritza urria izan arren, duna-formazioak, hondartza batzuetan agertzen direnak, nabarmendu behar dira. Dunak hondartzaren atzeko aldean kokatzen dira, ohiz garapen eskasa lortuz.

Unitate honen hirigintza erabilera baliogabea da. Bere erabilera gaitasuna unitatearen mantentzea eta hobetzea da.

LAUTADEN GAINEKO UNITATEAK. ITSASERTZEKO JABARIA: NEKAZAL EREMUA LARREEN NAGUSITASUNAREKIN ETA ITSASERTZEKO JABARIAN LANDAKETA ATLANTIKOAK; ITSASERTZEKO JABARIAN SASTRAKADIA; ITSASERTZEKO JABARIAN BASO LANDAKETAK; ETA ITSASERTZEKO JABARIAN HIRI EREMUA; LAUTADAK; INGURUNE UHINDUA

Getxoko udalerriaren iparraldean itsasertzeko jabariko paisaia unitate hauek aurkitu daitezke. Atal honetan baso landaketak, hiri eremua (golf zelaia), sastrakadia eta lautaden gaineko nekazal eremua larreen nagusitasunarekin eta landaketa atlantikoak.

Unitate hauek ezberdintzen dituen alderdi fisionomikoa haien kokapen fisiografikoa da. Honela, Galea lurmuturrean kokaturiko baso landaketek, sega-belardiek, sastrakadiek,...adierazten duten berezitasuna, ia laua den azalera baten kokatzen direla da. Arruntagoa da hegaletan edota ibai-artetan aurkitzea.

Hare metakin eta lurzoru urriko harkaitz-eremu batek osaturiko azalera hau, itsas mailatik hamar metro gorago kokatzen da eta lurraldean kartografiatutako beste baso, nekazal eremu edo sastrakadiekiko izaera bereizle bat finkatzen du.

Unitate hauen erabilera gaitasuna bere ezaugarrien jarraipena edota hauen ingurumen hobekuntza da

HIRIKOA HONDO IZURTUAREN ETA ISURIALDE-OINEN GAINEAN. JABARI ANTROPOGENIKOA.

Paisaiaren unitate hau udalerriko erdialdearekin eta hegoaldearekin bat dator. Bertan Getxon osatzen duten auzoetako populazio-guneak daude. Orokorrean, ibar estuetan kokatzen diren hirigune luzatuekin bat datoz. Horiek hondo gutxi eta mendi-mazela malkartsuak izaten dituzte. Etxebizitzak oso bertikalak dira (eraikinak altueran); kaleak, berriz, estuak.

Batzuetan, industria-guneei lotuak agertzen dira eta lurzoru urbanizagarri gutxi daudenez etxebizitzekin lehia egiten dute.

Unitate horretan, dagozkion paisaia eta ingurumen integrazio neurriekin, hirigintza erabilerarako gaitasuna ematen da.

8. PLANAREN EFEKTUEN BERRIKUSKETA PROGRAMA (D/211/2012 II Eranskina ‘g’)

8.1. KONTROLAREN HELBURUEN DEFINIZIOA

Berrikusketa Programa 211/2012 Dekretuaren arabera eta ingurumen organoak igorritako Erreferentzi Dokumentuak ezarritakoaren arabera idazten da

Mota honetako Programaren helburua ingurumen inpaktua zuzen jarraitzea, zaintzea eta kontrolatzea da, baita zuzentzea ere. Zehazki, hauek adieraz daitezke:

- Planak aurrez ikusitako jardueren exekuzio zuzena egiaztatzea, bai lanen fasean, bai ustiaketan; horrela, aurrez ikusitako neurri zuzentzaileak eta ingurumen inplikazioak beteko dira.

- Plana beste plan batzuekin bat datorren frogatzea, udalerrian ematen diren sinergien sorkuntza eta aurkako ingurumen metatze-efektuak frogatuz.

- Sortutako inpaktuak aurrez ikusitakoak direla egiaztatzea, bai magnitudean, bai kaltetutako ingurumen faktoreetan.

- Proposatutako neurri zuzentzaileen eraginkortasuna kontrolatzea.

- Aintzat hartutako jarduerei jarraiki eta aurrez ikusitakotik eta onartutakotik desberdinak diren inpaktu berrien agerpenaren aurrean, komenigarriak iruditzen diren beste neurriak artikulatzea.

Programak aurrez ikusitako inpaktu negatiboen magnitudea eta gerta daitezkeen aurrez ikusi gabeko kalteak kontrolatzeko tresna izan behar du, bai eraikuntza fasean, bai aurrez ikusitako planeamenduan zehar.

Gainean, aipatutako efektuetan desbideratzeak eta hartutako neurri zuzentzaileen eraginkortasuna antzemango dira. Beharrezkoa den kasuan, neurri berriak proposatu eta

artikulatuko dira edo dagoeneko aintzat hartutakoak aldatuko dira. Horrela, adierazitako helburuak beteko dira, eta ondorioz, ingurunean egindako aldaketak gutxituko dira..

8.2. JARRAITUKO DIREN INGURUMEN ALORRAK IDENTIFIKATZEA

KOLTROL OROKORRA

Plangintzaren onarpenean ezarritako baldintzatzaileak aintzat hartuko dira, baita eskumen sektorialak dituzten erakunde edo administrazioen baimenak eta esparru sektorialetako baimenak, bereziki ondorengoen kontsiderazioak:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Saila
- Uraren Euskal Agentzia
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza saila
- Abar.

Horrez gain, kasuan kasu planeko ingurumen helburuek beste planekin duten elkarrekikotasuna kontrolatuko da, sinergien eta udalerrian kaltegarriak diren ingurumeneko metatze ondorioak egiaztatuta; baita planean aurrez ikusitako jardueren exekuzio maila eta ingurumeneko inplikazioak ere..

NATURA BALIABIDEEN GAINEKO KONTROLA

Lan eta jarduera berriak egiteko esparruen jarraipena egingo da, Landaredi exotiko inbaditzailea ez hedatzea

Gainera, Birlandaketak zuzen egin daitezen jarraitzea, bertako espezieak erabiliz, eta ahal den neurrian, oraingo landaredia errespetatuz.

Natur intereseko landaredia duten eremuak ondo tratatzea zainduko da bereziki, horiek kontserbatzeko eta/edo antolamendu xehatua ahalbidetuko duen eremuetara aldatzeko, hori beharrezkoa izanez gero.

INGURUMENARI DAGOKIONEZ SENTIKORRAK DIREN EREMUAK KONTROLATZEA

Ur puntuak, interes geologikoaren aztarnak, material arkeologikoak edo aztarnategi ezezagunak agertze, zainduko dira.

Ibilguen ondoan obra fasean arriskua ekar dezakeen ekintzarik ez egitea zainduko da. Eremua markatuta edo beharrezkoa izanez gero, barrera fisikoren bat jarrita.

Ondoren, Uraren Euskal Agentziak ibilguen tratamenduari buruz egindako kontsiderazioak beteko dira.

BALIABIDE ESTETIKO, KULTURALEN EDO PAISAJISTIKOEN KONTROLA

Paisaiari dagokionez lanak bere ingurunean txertatzera zuzendutako neurriak behar bezala hartu direla kontrolatuko da; horrela, bere garaian onartuko den proiektura egokitu beharko dira.

Proiektuaren garapenean, eraikinek eta plataformek eremuaren ikusgarritasunean izan dezaketen eragina izango da kontuan.

Gainean, eraikuntzaren kasuan, arreta berezia jarriko zaio eraikinen tipologiari, eta ahal den neurrian, eremuko estetika mantendu edo sustatzen laguntzea izango da helburua.

Aztarnategien aurrean lur mugimenduak zainduko dira, eta kasu horretan, Euskadiko Kultura Ondarearen Legearen 48. artikuluaren arabera jardun beharko da.

BALIABIDE BERRIZTAGARRIEN EDO EZ BERRIZTAGARRIEN KONTSUMOAREN KONTROLA

Funtzionamendu fasean, hondakinen kudeaketarekin, uraren eta energiaren kontsumoarekin, argiztapenarekin eta abarrekin lotuta iraunkortasun adierazleak jarraitzeko beharrezkoak diren datu kuantitatiboak eta kualitatiboak ezarriko dira.

HONDAKINEN SORRERA ETA KUTSADURA KONTROLATZEA

Hirigintza dokumentazioan adierazitako ingurumen neurriak betetzea kontrolatuko da, baita Ingurumen Jasangarritasun Txosten honek jasotako neurriak ere.

Iraunkortasuneko adierazleen jarraipenerako beharrezko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak finkatzea, honako hauekin lotuta: hondakinen kudeaketa, uraren eta energiaren kontsumoa, zarata, hiri-argiztapena eta abar.

Planaren aurreikuspenetan sartutako edo sartu gabeko jardueren kontrola, aurrez ikusi gabeko inpaktuak gertatzen diren egiaztatuz.

Materia eta energia iturrien kutsadurari buruzko kontrol bat egingo da.

Hirigintzako dokumentazioan bertan horri buruz adierazitako ingurumeneko neurriak betetzen direla kontrolatuko da, baita IGEBEren Azterketa honek txertatutako neurriak ere.

Gainera, ondorengo faseetan zehaztuko diren trafikoaren mailak eta lurraren mugimenduek izango dituzten eraginak kontrolatzea.

GIZA OSASUNA KONTROLATZEA

Lanen fasean sortutako hautsak eragindako (batez ere, inguruko eremuei) molestiak saihesteko, kaltetutako azaleren ureztatzea kontrolatuko da; horrela, hautsa zabaltzea saihestuko da, eta bereziki klimatologikoki lehorrenak diren garaietan.

Faktore horien eragina handiena den lanen fasean, honi ekingo zaio:

- Gauetan lanak saihestuko dira. Ezinezkoa baldin bada, sortutako zaratak, etxebizitzen barnealdean, ez du LAeq,1min = 30 dBA (sukaldeak eta bainuak albo batera utzita) gaindituko.

- Bibrazio mailei dagokienez, ISO 2631 2. zatia arauaren arabera, bibrazio pertzepzioko K indizeak ez du K≥10 maila gainditukо; horretarako, bibrazioa nabarmena den kasuetan, kalterik gehien jasotzen duten geletan beharrezko neurriak hartuko dira, hori betetzen dela egiaztatzeko.

Ezarritako epeak betetzen direla kontrolatuko da, obra fasea kalkulatutakoa baino gehiago luza ez dadin.

Lanen fasean, inguruan trafikoaren zirkulazioari kaltea eraginez gero, bideetan gertatuko litezkeen aldaketen seinaleztapen zuzena eta molestiak behar bezain baino gehiago luza ez daitezen epeak betetzen direla kontrolatuko da.

EKOLOGIA ETA NEKAZARITZA PRODUKTIBITATEA GALTZEAREN KONTROLA

Lanen fasean eta funtzionamenduaren fasean aurrez ikusitako garapenekiko ingurune hurbileko nekazaritza ustiapenetan esku hartu ez dadin zainduko da.

ARRISKUEN KONTROLA

Lurren mugimenduen prozesuan kutsadura aztarnak egonez gero, Lurzoruaren Kutsadura Prebenitzeko eta Zuzentzeko 1/2005 Legearen 10. artikulua betez, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio gertaera hori.

Era berean, Ea ibaiaren urak hartzeko arrisku-orbanean eta etorkizunean azterketa hidrologikoaren xede izan daitekeen beste edozein ibai-ibilgutan egokitutako eremuetan Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak jorratutako lurzoruaren erabilerarako irizpideak kontuan hartu beharko dira.

NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO KONTROLA

Baterako Ebaluazioko eta honekin batera doan Ingurumen Inpaktuaren Aurretiazko eta Behin betiko Txostenaren azterketaren ingurumen baldintzak eta muga guztiak betetzen direla kontrolatuko da.

8.3. ADIERAZLEEI JARRAITZEKO BEHARREZKOAK DIREN DATU KUANTITATIBOAK ETA KUALITATIBOAK

Erreferentzia Dokumentuak adierazten duen bezala, honako adierazle hauen bidez balioztatu beharko dira bai adierazitako helburuak kontuan zein mailatan hartu diren, eta, ondorioz, baita zer eragina duten plan nagusiaren berrikusketan planteatutako proposamenek ondorioak izan ditzaketen ingurumen-aldagaietan:

Lurzorua zenbateko intentsitatearekin artifizialdu den.

a- Hiri-lurzorutzat sailkatzen den lurzoru-azaleraren %a
b- Lurzoru urbanizagarritzat sailkatzen den lurzoru-azaleraren %a
c- Lurzoru urbanizaezintzat sailkatzen den lurzoru-azaleraren %a

Ingurumen-balioak berreskuratzea.

d- Kontserbazioa berreskuratu edo hobetu duten natura-habitaten azalera.
e- Berreskuratutako lurzoru kutsatuen azalera.
f- Berreskuratutako ibaiertzaren luzera.
g- «Babes Berezi» gisa kalifikatutako azaleraren %a

Inguruaren kalitatea.

h- Airearen kalitatearen indizea.

i- Uren kalitatearen indizea.

j- Kalitate akustikoaren helburuak baino handiagoak diren zarata-mailen eraginpean dauden biztanleak.

Planaren plangintza eta garapen faseetako agintaritza arduraduna Getxoko Udala izango da.

Proposaturiko hirigintza planen garapenaren exekuzio faseetan Obra Zuzendaritzak jardungo du arduradun gisa eta haren lekuan, kontratatutako Ingurumen Laguntza Teknikoak.

8.4. PARAMETRO KUANTIFIKAGARRIETARAKO MUGAKO EDO ERREFERENTZIAKO MAILAK

Sortutako inpaktuaren magnitudea adierazteko balio duten parametro kuantifikagarrietarako erreferentziako edo mugako mailek indarrean dagoen legedira egokitu beharko dute eraikuntza lanak exekutatzeko orduan.

Jarraian, proiektu honi aplika dakizkiokeen ingurumen alorreko xedapen garrantzitsuenen zerrenda biltzen da.

Natura ondarea eta biodibertsitatea

- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, natur ondare eta bioaniztasunari buruzkoa.
- 33/2015 Legea, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legea aldatzen duena.
- 556/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, Espainiako Natura-Ondarearen eta Biodibertsitatearen Inbentarioa garatzeko dena.
- 1424/2008 Errege Dekretua, abuztuaren 14koa, Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordearen osaera eta funtzioak zehaztu, bere funtzionamendua arautu eta berari atxikitako batzorde espezializatuak ezartzen dituena.

- 1997/1995 Errege Dekretua, abenduaren 7koa, Biodibertsitatea Bermatzen Laguntzeko Neurriak ezartzen dituena, horretarako Habitat Naturalak eta Basoko Flora eta Fauna zainduko dira. Errege Dekretu horren I., II., III., IV., V. eta VI. eranskinak Natur Ondareari eta Biodibersitateari buruzko 42/2007 Legeak indargabetu ditu.
- 1998ko ekainaren 12ko 1193/1998 Errege Dekretua, habitat naturalen eta fauna eta flora basatien kontserbazioaren bidez biodibertsitatea bermatzen laguntzeko neurriak finkatzen dituen 1995eko abenduaren 7ko 1997/1995 Errege Dekretua aldatzen duena.
- 1421/2006 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, habitat naturalen eta basafaunaren eta basafloraren kontserbazioaren bidez biodibertsitatea bermatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 7ko 1997/1995 Errege Dekretua aldatzen duena.
- 1/2014 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena

Urak

- 2000/60/CE Direktiba, uren politikari dagokionez testuinguru komunitarioa finkatzen duena.
- 2006ko ekainaren 23ko Uren 1/2006 Legea.
- 2001eko uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, Uren Legearen testu bategina onartzen duena. Testu bateratua
- 24/2001 Legea, abenduaren 27koa, Neurri fiskalei, administratiboei eta lan-arlokoei buruzkoa. Lege horren 91. artikuluak estatuko uren sozietateak arautzeari buruzko paragrafo bat gaineratu dio testu bateginaren 132. artikuluaren 1. atalari. Paragrafo horren arabera, arautzen diren sozietateek sistema hidraulikoetan integratzeko obra hidraulikoak, publiko nahiz pribatuak, beregana ditzakete.
- 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa, IPPC. Bere bigarren azken xedapenak Uren Legearen testu bateginaren 105.2.a) artikuluari paragrafoa gaineratu dio, baimendu gabeko isurketei buruzkoa; baita hamargarren xedapen gehigarria ere, erkidego arteko arroetako ur kontinentaletara isurtzeari buruzkoa.
- 62/2003 Legea, abenduaren 30ekoa, Neurri fiskalei, administratiboei eta lan-arlokoei buruzkoa. Bere 122. artikuluak interes orokorreko obretarako aldez aurretiko udal

txostenaren edukia, norainokoa eta epeak zehatzago arautzen ditu. Bere 129. artikuluak urei buruzko politikaren arloan erkidegoaren jarduera-esparrua ezartzen duen 2000/60/CE Zuzentaraua Espainiako Zuzenbidera egokitzen du

- 2007ko apirilaren 13ko 4/2007 Lege Errege Dekretua, 2001eko uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uren Legearen testu bategina aldatzen duena.
- Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamendua (849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa). Testu kontsolidatua.
- 1994ko abuztuaren 5eko 1771/1994 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen erregimen juridikoari eta ur, kosta eta ingurumen gaietako prozedura administrativo jakinen ohiko prozedura administratiboari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legea egokitzen duena.
- 995/2000 Errege Dekretua, ekainaren 2koa
- 2003ko maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretua
- 2001eko azaroaren 20ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2455/2001/CE Erabakia, ur politikaren testuinguruan lehentasunezko substantzien zerrenda onartzen duena eta 2000/60/CE Direktiba aldatzen duena.
- 1620/2007 Errege Dekretua, abenduaren 7koa, araztutako urak berriz erabiltzeko araubide juridikoa finkatzen duena. 849/1986 Errege Dekretuaren 272 eta 273 artikuluak idargabetzen ditu.
- 1514/2009 Errege Dekretua, urriaren 2koa, lur azpiko urak kutsaduratik eta hondatzetik babestea erregulatzen duena. 2006/118/CE Zuzentarauaren transposizioa
- 214/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko itsas uretako eta erkidego barruko arroetako inguru kalteberak izendatzen dituena.
- 449/2013 Dekretua, azaroaren 19ko EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa behin betiko onartzen duena.

Airearen kalitatea eta atmosferarako emisioak

- 100/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duena eta bera ezartzeko oinarrizko xedapenak finkatzen dituena.
- 34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzkoa.

- 1975eko otsailaren 6ko 833/1975 Dekretua, ingurumen atmosferikoaren babesari buruzko 1972ko abenduaren 22ko 38/1972 Legea garatzen duena. IV indargabetu egin instalazioetarako Taldea C. ezik.
- 3/1998 Legea, Euskadiko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra (Izenburua II, Kapitulua IV).

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak

- Europar Parlamentu eta Kontseiluaren 2008/98/EB Zuzentaraua, 2008ko azaroaren 19koa, hondakinei buruzko eta hainbat zuzentarau indargabetu dituena. Batzordearen Erabakia, 2001eko urtarrilaren 16koa, hondakinen zerrendari dagokionez, 2000/532/CE Erabakia aldatzen duena
- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa
- Ekainaren 11ko 5/2013 Legea, ondorengo lege hauek aldatzen dituena: 16/2002 Legea, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzkoa eta 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.
- MAM/304/2002 agindua, otsailaren 8koa; horren bidez, hondakinak ezabatzeko eta baloratzeko eragiketak, eta Europako hondakinen zerrenda argitaratzen dira
- Kontseiluaren 1999/31/EB Zuzentaraua, 1999ko apirilaren 26koa, hondakinen isurpenei buruzkoa.
- 2000ko azaroaren 17ko Batzordearen erabakia, hondakinen isuriari buruzko 1999/31/CE Direktibaren aplikazioari buruzko kide diren estatuentzako galdetegiari buruzkoa
- 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren erabakia, 16. artikuluari eta 1999/31/CEE Direktibako II. Eranskinari jarriki zabortegietako hondakinen onarpenari buruzko irizpideak eta prozedurak finkatzen dituena
- 2001eko abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretua; horren bidez, zabortegian utziz hondakinak baztertzea arautzen da. 1999/31 Direktiba indargabetzen du
- AAA/661/2013 Agindua, apirilaren 18koa, hondakinak zabortegian uztea erregulatzen duen 1481/2001 Errege Dekretuaren, abenduaren 27koa, I, II eta III eranskinak aldatzen dituena.
- 1304/2009 Errege Dekretua, uztailaren 31koa, hondakindegian utziaz hondakinak ezabatzeari buruzkoa den 1481/2001 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, aldatzen duena

- 2009ko otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua, zabortegian utziz eta betegarriak exekutatuz hondakinak ezabatzea arautzen duena.
- 20/1986 Legea exekutatzeko araudia onartzen duen 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretua
- 20/1986 Legea exekutatzeko araudia aldatzen duen 1997ko ekainaren 20ko 952/1988 Errege Dekretua
- 1989ko urriaren 13ko AGINDUA; horren bidez, hondakin toxikoak eta arriskutsuak bereizteko metodoak zehazten dira
- 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak zerrendatu eta lurzoru kutsatuak izendatzeko irizpideak eta estandarrak ezartzen dituena.
- 9/2005 Errege Dekretua aplikatzeko Gida Teknikoa. 9/2005 Errege Dekretuak lurzorua kutsa dezaketen jarduerak zerrendatu eta lurzoru kutsatuak izendatzeko irizpideak eta estandarrak ezartzen ditu.
- 4/2015 LEGEA, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.
- 199/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duena, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituena.
- 165/2008 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa.

Zarata

- 2003ko azaroaren 17ko zarataren 37/2003 Legea
- 2005eko abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretua, ingurumeneko zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 2003ko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena
- 2007ko urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretua, zaratari buruzko 2003ko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonifikazio akustikoari, kalitatezko xedeei eta emisio akustikoei dagokienez
- 1038/2012 Errege Dekretua, uztailaren 6koa, zonifikazio akustikoari, kalitatearen helburuei eta emisio akustikoei dagokienez Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretua aldatzen duena.

- 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Legea, Euskadiko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra
- 213/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- HUTSEN ZUZENKETA, honako dekretu honena: «213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa».
- HUTSEN ZUZENKETA, honako dekretu honena: «213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa».

Kultur ondarea

- 1985eko ekainaren 25eko 16/1985 Legea, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa.
- 7/1990 Legea, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa.
- 1996ko urriaren 8ko 234/1996 Dekretua, Presuntzio Arkeologikoko Eremuak xedatzeko erregimena finkatzen duena.
- 317/2002 Dekretua, urbanizatutako eta eraikitako ondarearen birgaitzeko jarduera babestuei buruzkoa.

Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa.
- 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeari buruzko legearen testu bategina onartzen duena
- 1988ko irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; horren bidez onartzen da 1302/1986 Lege Errege Dekretua exekutatzeko araudia .
- 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 legea, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzkoa.
- 211/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.

9. INGURUMENEAN EGON DAITEZKEEN ONDORIO ADIERAZGARRIAK. EKOSISTEMEK EMATEN DITUZTEN INGURUMEN-ZERBITZUAK (211/2012/D II Eranskina 'h')

9.1. JARDUERA DESBERDINETARAKO INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA IRAGARPENA

Dokumentu honen dokumentazio grafikoan, kokatu daitezkeen inpaktu nagusiekin plano bat egin da (23 z. planoa). Kartografia hau lantzerako orduan, hurrengo kapituluetan garatutako alternatiba desberdinek proposaturiko jarduerak erabili dira.

Inpaktuen grafian, izaera ere adierazten da, positiboa (+) edo negatiboa (-), baita tamaina hiru eskalekin (urria, ertaina eta altua) laukien marraduraren arabera.

Inpaktuak zehazteko, ingurumen aldagaiak ondorengo alderdi orokorren arabera elkartu dira:

- Natur baliabideak
- Ingurumeneko eremu sentikorrak
- Giza osasuna
- Produktibitate ekologikoaren eta nekazaritzako produktibitatearen galera
- Arriskuak eragitea

Aintzat hartutako ingurumen aldagaiak ondorengoak dira:

- Natur baliabideak:
    - Natur baliabideak:
        - Biodibertsitatea
        - Geodibertsitatea
        - Landaredia
        - Fauna

- Habitatak
- Espazioen loturak

o Baliabide estetikoak:

- Paisaia

o Baliabide berriztaezinak:

- Lurzorua

- Ingurumen gune sentikorrak:
  - JPH
  - ILJB
  - Akuiferoak kargatzeko eremuak
  - Ingurumen interes handia duten eremuak
  - Ondare historiko-artistikoa

- Giza osasuna:
  - o Giza osasuna:
    - Zarata
    - Bizi kalitatea. Mugikortasuna
  - o Kutsadura sortzea:
    - Hondakinak
    - Kutsadura atmosferikoa
    - Uren kutsadura

- Produktibitate ekologikoaren eta nekazaritzako produktibitatearen galera:
  - Nekazal galerak
  - Lurzoruen kalitatea
  - Ekosistemen zerbitzuak

- Arriskuak eragitea:

- Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak
- Higadura
- Uholde arriskua
- Geoteknia
- Klima-aldaketa

Inpaktu negatibo esanguratsuenen artean, lurzoruaren okupazioa, natura-interesa duten espazioei afekzioak, nekazaritza ekoizpenari afekzioak, hondakinen sorkuntza, baliabideen kontsumoa, kutsadura atmosferikoaren igoera eta mugikortasun jasangarriari ekarpena daude.

Aparteko aipamena merezi du, bere ingurumen efektu positiboei dagokienez, ondorengo taularen arabera antolatu den lurzoru urbanizaezineko kategorizazioak:

LURZORU URBANIZAEZINAREN KALIFIKAZIO OROKORRA	-	**CALIFICACION GLOBAL DEL SUELO NO URBANIZABLE**
ZONAK	-	**ZONAS**
ITSASERTZEKO LAP-EKO ANTOLAMENDU KATEGORIAK	-	**PTS DEL LITORAL. CATEGORIAS DE ORDENACION**
BABES BEREZI ZORROTZA	EPL	ESPECIAL PROTECCION ESTRICTA
INGURUMENAREN HOBEKUNTZA. EKOSISTEMEN HOBEKUNTZA EREMUAK	MA1L	MEJORA AMBIENTAL. AREAS DE MEJORA DE ECOSISTEMAS
INGURUMENAREN HOBEKUNTZA. BERRESKURATZEKO EREMU NARRITUAK	MA2L	MEJORA AMBIENTAL. AREAS DEGRADADAS A RECUPERAR
HIRI HONDARTZAK	PU	PLAYAS URBANAS
ITSAS ERTZEN MUGAKETA	-	**DESLINDES DE COSTAS**
ITSAS BAZTERRA		RIBERA DE MAR
ITSAS-LUR EREMU PUBLIKOAREN MUGAKETA		DESLINDE DEL DOMINIO PUBLICO MARITIMO TERRESTRE
BABES-ZORTASUN GUNEAREN BARNE MUGARTEA		LIMITE INTERIOR DE LA ZONA DE SERVIDUMBRE DE PROTECCION
BABES-ZORPEKO ALDEA ETA ITSAS-LUR EREMU PUBLIKOAREN MUGAKETA BAT DATOZENEKO LERROA		LINEA COINCIDENTE DE LINEA DE SERVIDUMBRE DE PROTECCION DESLINDE DEL DOMINIO PUBLICO MARITIMO TERRESTRE
HEZEGUNEKO KATEGORIAK L.A.P.	-	**P.T.S. DE HUMEDALES. CATEGORIAS DE ORDENACION**
BABES BEREZIKO GUNEAK		**AREAS DE ESPECIAL PROTECCION**
ZINGIRETAKO LANDARETZA/LEZKA ETA CAREX HANDIAK	EP2H	VEGETACION PALUSTRE/CARRIZO Y GRANDES CÁRICES
SAHASTIA-HALTZADIA	EP4H	SAUCEDA-ALISEDA
INGURUMEN HOBEKUNTZA		**MEJORA AMBIENTAL**
EKOSISTEMEN HOBEKUNTZARAKO GUNEAK. HURBILEKO LANDAZABALA	MA1H	AREAS DE MEJORA DE ECOSISTEMAS. CAMPIÑA DE LA BANDA PROXIMA
LEHENERATU BEHARREKO GUNEAK. LANDARETZA ERRUDERALA ETA HARROBI GUNEA	MA2H	AREAS DEGRADADAS A RECUPERAR. VEGETACION RUDERAL Y ZONA DE CANTERAS.
NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAKO GUNEA ETA LANDAZABALA. INGURUNEKO LANDAZABALA	AGH	AREAS AGROGANADERA Y CAMPIÑA. CAMPIÑA DEL ENTORNO.
BASO BABESLEA		**FORESTAL PROTECTOR**
HURBILEKO ZERRENDAKO ETA INGURUNEKO HOSTOZABALAK	FPH	FRONDOSAS DE LA BANDA PROXIMA Y ENTORNO.
MUGAK L.A.P.		**P.T.S. LIMITES**
HEZEGUNEAREN MUGA		LIMITE DE ZONA HUMEDA
HURBILEKO ZERRENDAREN MUGA (50M)		LIMITE BANDA PROXIMA (50M)
INGURUNEAREN MUGA (100M-KO ZERRENDA)		LIMITE DEL ENTORNO (BANDA DE 100M)
ERREKEN ETA IBAIEN ERTZAK ANTOLATZEKO L.A.P.	-	**P.T.S. DE ORDENACIÓN DE MARGENES RIOS Y ARROYOS**
UR SISTEMA OROKORRA		SISTEMA GENERAL HIDRAULICO
LUR GAINEKO URAK BABESTEKO EREMUA		ZONA DE PROTECCIÓN DE AGUAS SUPERFICIALES
LURPERATURAKO UR SISTEMA OROKORRAREN TARTEA		TRAMO SE SGH SOTERRADO

NEKAZARITZA ETA BASOGINTZA ANTOLATZEKO L.A.P -		P.T.S AGROFORESTAL. CATEGORIAS DE ORDENACION
NEKAZARITZA-ABELTZAINTZA EREMUA		AGROGANADERA Y CAMPIÑA
NEKAZARITZA-ABELTZAINTZA, BALIO ESTRATEGIKO ALTUA	AAVE	AGROGANADERA Y CAMPIÑA, ALTO VALOR ESTRATEGICO
NEKAZARITZA-ABELTZAINTZA, TRANTSIZIOKO LANDA PAISAIA	APRT	AGROGANADERA Y CAMPIÑA, PAISAJE RURAL DE TRANSICION
MENDIA		MONTE
BASOA	FO	FORESTAL
INGURU FISIKOAREN ANTOLAKETA. BM LPP -		PLAN TERRITORIAL PARCIAL DEL BILBAO METROPOLITANO
INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDURAKO KATEGORIAK		CATEGORIAS DE ORDENACION DEL MEDIO FISICO
BABES BEREZIKO BERTAKO ESPEZIEEN BASOAK ETA BERDINETSIAK	EPB	ESPECIAL PROTECCION DE BOSQUES AUTOCTONOS O ASIMILADOS
LEHENTASUNEZKO BATASUNAREN INTERESEKO HABITAT NATURALA -		HABITATS NATURALES DE INTERES COMUNITARIO-PRIORITARIOS
ALNUS GLUTINOSA ETA FRAXINUS EXCELSIOR-EN IBARBASOAK		BOSQUES ALUVIALES DE ALNUS GLUTINOSA Y FRAXINUS EXCELSIOR
ERICA VAGANS TXILARDI LEHOR KOSTALDE ATLANTIARRAK		BREZALES SECOS ATLANTICOS COSTEROS DE ERICA VAGANS
BELARDI LEHOR SEMINATURALAK ETA SUBSTRATU KALKAREOTAKO SASTRAKA-EITEKO FORMAZIOAK		PRADOS SECOS SEMI-NATURALES Y FACIES DE MATORRAL SOBRE SUSTRATOS CALCAREOS
LURZORU URBANIZAEZINEAN EKIPAMENDUAK -		EQUIPAMIENTOS EN SUELO NO URBANIZABLE
IRAKASKUNTZA EKIPAMENDU ZONA	ZE_ED	ZONA DE EQUIPAMIENTO EDUCATIVO

Bestalde, batasunaren intereseko habitat naturalak gainjarritako baldintzatzaile gisa definitzen dira, babestu beharreko elementuak errespetatzeko beharra finkatuz, kokatzen diren espazioen kategorien kalifikazioaren zehaztapenei utzi gabe.

Era berean, ingurumen foroak definituriko korridore ekologikoa gainjarritako baldintzatzailetzat hartzen da. Ondorengo kapituluetan deskribatzen da.

Bestalde, inpaktu negatiboen tamaina alternatiba bakoitzaren ezaugarrien arabera izango da. Aukera ugari ematen dira, lurzoru urbanizagarria sailkatzen ez den aukeretatik, 118,5 Ha sailkatzen den aukeraraino.

Arrazoi hau dela eta, eta informazioa ez bikoizteko, alternatiba bakoitzaren inpaktuak alternatiben analisien kapituluan deskribatzen dira.

9.2. EKOSISTEMEN ZERBITZUAK

Ekosistemen zerbitzuen kontzeptuak, ekosistemen egoera eta funtzionamendua (sistema ekologikoak) eta gizakien ongizatearen (sistema sozialak) arteko lotura esplizitu bat egitea ahalbidetzen du. Honek ingurumen aldaketa egoeretan, gizakien ongizatea sostengatu behar duen oinarri biofisikoaren erabilera bideratzen laguntzeko helburua du.

EAErako ezarritako ekosistemen zerbitzuak, hurrengo kapituluetan deskribatzen diren HAPOk aurkeztutako alternatibetan proposatutako garapenekin gainjarri dira.

Karbono biltegi zerbitzuari dagokionez, L4 alternatiba izan ezik, beste alternatiba guztiak balio baxu edo oso baxu/baliogabeak adierazten dituzte. L4 alternatibari dagokionez, kostaldearen alboko eremu batzuetan maila altuak ematen dira.

EAEko Dibertsitate Naturalaren kontserbaziorako ekarpen zerbitzuari dagokionez, egoera aurreko zerbitzuaren antzerakoa da eta balio ertain, baxu eta oso baxu/baliogabeak aurkezten ditu, kostaldearen alboko eremu batzuetan maila altuak ematen dituen L4 alternatiba izan ezik. Gobelaren eremuetan, alternatiba batzuk (L3, T2, T2', T3 y T3') SGEL bat proposatzen duten guneetan, zerbitzu honen mailak altu gisa kuantifikatzen dira.

EAEko atlantiar isurialdeko ziklo hidrologikoaren arauketa zerbitzua, alternatiben garapenak proposatzen diren eremuetan, mailak ertain (%20-40) eta baxu (<%20) artean kokatzen dira, L4 alternatiba salbu, honek maila oso altuko (>%40) eremua aurkezten du.

Jolas zerbitzuari dagokionez, Getxoko udalerriaren gehiengoak, alternatibak proposatzen diren eremuak barne, maila oso altuak ditu

10. NATURA 2000KO TOKIETAN ERAGINDAKO ONDORIOEN BALORAZIOA (211/2012/D II Eranskina ‘i’)

Getxoko HAPOk ez du eragiten Natura 2000 tokirik.

11. ALTERNATIBEN ANALISIA (211/2012/D II Eranskina ‘j’)

11.1. PLANTEATUTAKO GARAPEN EREDUAK

Aurrerakin dokumentuan 7 alternatiba proposatu dira. HAPO-ren erredaktore-taldeak proposatutako hiru aukera teknikoak T1, T2 eta T3, bere T-2’ eta T-3’ aukera osagarriekin.

LANTALDE taldeak landutako lau aukerak dira gainerako laurak, Aurrerapenaren dokumentu honetan L1, L2, L3 eta L4 izena duten aukerak.

Getxoko udalerri osoan alternatiba guztien kalifikazio orokorraren emaitzak jakinarazteko, lurzoruaren sailkapen ezberdin guztietako zona guztien neurketa egin da, zona pribatu eta publikoen eta haien erabilera bereizgarri ezberdinen arabera antolatuz. Emaitzak xehetasunezko taula batzuetan jaso dira, bere edukiaren laburpenekin, honela, zuzkidura publikoen azaleraren edukiaren arabera alternatiba bakoitzaren hirigintza kalitatea neurtu liteke.

Ondoren alternatiba bakoitzeko oinarrizko datuak adierazten dira.

ALTERNATIBA TEKNIKOAK

T1 Alternatiba

Alternatiba hau, 2.413 biztanle galtzen diren hipotesitik abiatzen da. Hau dela eta, **3.043** etxebizitzako eskaintzaren beharrizana planteatzen da, hauetatik 2.387 etxebizitza berrien eskaintza lirateke eta 656, alokairuan kudeatzeko etxebizitza hutsak.

Alternatiba honek hiri lurzorua betetzen du eta lurzoru urbanizagarrian Jarduera Ekonomikoetarako **8 Ha**-tako lurzoru okupazioa proposatzen du.

Bestalde, Espazio Libreen Sistema Orokorretarako 2,46 Ha, sektorearen heren bat, proposatzen dira.

T2 eta T2' Alternatibak

Aukera honetan ere populazioaren beherapen bat kalkulatzen da, baina neurri txikiago baten, 1.046 biztanle galtzen dira. Hau dela eta etxebizitza eskaintza handiagoa izango da, zehatz mehatz **4.330** etxebizitza planteatzen dira, hauetatik 3.674 etxebizitza berrien eskaintza lirateke eta 656, aurreko alternatiban bezala, alokairuan kudeatzeko etxebizitza hutsak.

Alternatiba honek hiri lurzorua betetzen du eta lurzoru urbanizagarrian **39,9 Ha**-tako lurzoru okupazioa proposatzen du (29 Ha etxebizitzetarako eta 10,9 Ha Jarduera Ekonomikoetarako).

Bestalde, Espazio Libreen Sistema Orokorretarako 12,58 Ha, sektorearen heren bat, proposatzen dira.

T2 eta T2' aukera hauetan T1 aukeraren hiri lurzoruko kalifikazio orokorrari dagozkien datuak mantentzen dira eta lurzoru urbanizagarrian jarduera ekonomikoetarako eta etxebizitza erabilera nagusirako sektore berrien azalerak definitzen dira. T2 eta T2' aukera bien arteko desberdintasuna, etxebizitza erabilera nagusiko sektoreen kokapenean datza, aukera bietan lurzoru urbanizagarriko zonen zenbateko guztiak berdin mantenduz.

Lurzoru urbanizagarriko etxebizitza erabilerako azaleren definizio grafikoa gutxi gorabeherakoa dela aipatu nahi da, hurrengo plan orokorraren fasean forma ezberdin batekin definitu daitekelarik.

T3 eta T3' Alternatibak

Alternatiba hauetan, populazioa mantentzen den hipotesitik abiatzen dira. Hau dela eta, **5.314** etxebizitzako eskaintzaren beharrizana planteatzen da, hauetatik 4.658 etxebizitza berrien eskaintza lirateke eta 656, aurreko alternatibetan bezala, alokairuan kudeatzeko etxebizitza hutsak.

Alternatiba honek hiri lurzorua betetzen du eta lurzoru urbanizagarrian **63 Ha**-tako lurzoru okupazioa proposatzen du (51 Ha etxebizitzetarako eta 12 Ha Jarduera Ekonomikoetarako).

Bestalde, Espazio Libreen Sistema Orokorretarako lurzoru urbanizagarrian edota sektoreei atxikita 20,19 Ha, proposatzen dira.

T3 eta T3' aukera hauetan T1 aukeraren hiri lurzoruko kalifikazio orokorrari dagozkien datuak mantentzen dira eta lurzoru urbanizagarrian jarduera ekonomikoetarako eta etxebizitza erabilera nagusirako sektore berrien azalerak definitzen dira. T3 eta T3' aukera bien arteko desberdintasuna, etxebizitza erabilera nagusiko sektoreen kokapenean datza, aukera bietan lurzoru urbanizagarriko zonen zenbateko guztiak berdin mantenduz.

Aurreko kasuan bezala, lurzoru urbanizagarriko azaleren definizio grafikoa gutxi gorabeherakoa da.

LANTALDEAREN ALTERNATIBAK

L1 Alternatiba

Alternatiba honek lurzoruaren okupazioan **0** hazkundea proposatzen du. Etxebizitza eskaintzaren proposamena **2.712** etxebizitzakoa da, hauek ondorengo esku-hartzeei dagozkie: eraikitzen ari diren etxebizitzak, etxebizitzak alokairuan, etxebizitza handien zatiketa, baserri eta erabilera gabeko etxebizitzen birgaitzea eta alokairuan kudeatzeko etxebizitza hutsak.

Etxebizitza berrien eskaintza, eraikitzen ari diren etxebizitzak edota hiri lurzoruan kudeatuta eta okupatu gabe daudenak (2013-2015), hauen kopurua 519 da. Epe honetan etxebizitza bihurtutako lokalak 24 dira. Udalplanen arabera alokairuan kudeatzeko etxebizitza hutsen kopurua 2.169 unitatekoa da.

Bestalde, hiri lurzoruko egikaritze unitateak espazio libre eta zuzkiduretan bilakatzea proposatzen du.

L2 Alternatiba

Aukera honek **2.600** etxebizitza proposatzen ditu, hauetatik 1.944 etxebizitza berrien eskaintza lirateke eta 656, alokairuan kudeatzeko etxebizitza hutsak.

Alternatiba honek hiri lurzorua betetzen du eta lurzoru urbanizagarrian Jarduera Ekonomikoetarako **8 Ha**-tako lurzoru okupazioa proposatzen du.

Espazio Libreen Sistema Orokorren kopurua, dagoen biztanleria eta etxebizitza berrientzako beharrezkoa izango dela adierazten da..

L3 Alternatiba

Aukera honek **3.171** etxebizitza proposatzen ditu, hauetatik 2.515 etxebizitza berrien eskaintza lirateke eta 656, alokairuan kudeatzeko etxebizitza hutsak.

Alternatiba honek hiri lurzorua betetzen du eta lurzoru urbanizagarrian Jarduera Ekonomikoetarako **8-10 Ha**-tako lurzoru okupazioa proposatzen du.

Proposamen honen arabera, kudeatzeko geratzen diren 2001eko HAPOren egikaritze unitateak garatuko dira, eta ez da lurzoru urbanizagarri gehiago sailkatzeko; are gutxiago hiri lurzoru gisa.

Proposamen hau T1 proposamen teknikotik hurbil egongo litzateke, bizitegi kopuruari dagokionez, baina etxebizitza-proportzio handiagoa egongo litzateke ekonomia-jardueren eremu berrian. Bestalde, positibotzat jotzen da L2 aukeran proposatzen den jarduketa isolatuak eta zuzkidura-jarduketak kuantifikatzea.

L4 Alternatiba

Aukera honek etxebizitza kopuru handiena proposatzen du, guztira **8.079,** hauetatik 7.423 etxebizitza berrien eskaintza lirateke eta 656, alokairuan kudeatzeko etxebizitza hutsak.

Alternatiba honek hiri lurzorua betetzen du eta lurzoru urbanizagarrian **118,5 Ha**-tako lurzoru okupazioa proposatzen du.

Bestalde, Espazio Libreen Sistema Orokorretarako lurzoru urbanizagarrian 45 Ha proposatzen dira, Azkorri eremuan kosta parke bat eta paelletarako zelaia kalifikatuz. Sistema orokor eta tokiko sistemetarako lagapen publikoak, lurzoru urbanizagarriko sektorearen %67 dira (80 Ha).

Eraikuntzak 38 hektarea inguru hartuko lituzke.

HAPOren aldirako, eskainitako etxebizitzen herena egin liteke; 2.700 etxebizitza gutxi gorabehera.

Proposamenean hiri lurzorua lohiz betetzea ere jasotzen da, Ibarbengoa geltoki berriaren eremuan, Arteagako antzinako sektorean, eta Sopela eta Berangorekin mugan.

11.2. "0 ALTERNATIBA" EDO "ESKUHARTZE EZA" ETA AURREIKUS DAITEKEEN EBOLUZIOAREN DEFINIZIOA

0 alternatiban, indarrean dagoen plan orokorraren mantentzeak, ez dauka bideragarritasun teknikorik. Hirigintza exekuzioaren tresnak eta zuzkidura publikoei buruzko irizpideak, legedi berriari egokitzeko beharra dago, eta dentsitate baxuaren ondorioz, lurzoruaren okupazioa larregizkoa den antolamendu bat aurkezten du, bere exekuzioa eragotziz.

Plan orokorraren berrikusketa egiteko beharra, indarrean dagoen plan orokorra zaharkiturik egotetik ondorioztatzen da, 14 urteko iraunaldia, baita hirigintzako plangintza lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legera eta lurralde antolamendura egokitzeko.

Aurkitzen diren aukera elementuak, inbertsio pribatuen ahuleziatik eta babes publikoko etxebizitza kopuru jakin baten eskaintza ahalbidetzeko, soluzioen eskakizuna kontsideratzea.

Hirigintza antolamendurako plan oro, bere esanahi zabalenean interes publikoarentzat mesedegarri izan behar da.

11.3. ALTERNATIBAK BALORATZEKO INGURUMEN IRIZPIDEEN DESKRIBAPENA

Proposaturiko alternatibek, lurzoruaren okupazioari dagokionez aukera sorta zabal bat aurkezten dute. Lurzoruaren okupazioa ez handitzea proposatzen duen L1 alternatibatik, 118,5 Ha okupatzen dituen L4 alternatibaraino.

Alternatiben konparaketa egiteko, ondorengo ingurumen irizpideak proposatu dira:

- Hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren azalera vs lurzoru urbanizaezinaren azalera
- Natura-intereseko espazioei afekzioak

        - Alternatibetako lurzoru urbanizaezinean babes eremuak
        - Intereseko eremuei afekzioak
    - Nekazaritza produkzioa
        - Nekazaritza produkzioaren babes eremuak
        - Nekazaritza ustiapenei afekzioak
    - Hondakinen produkzioa
    - Baliabideen kontsumoa
    - Kutsadura atmosferikoa
    - Mugikortasun jasangarria
    - Arriskuak eragitea
    - Egoera akustikoa

Hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren azalera vs lurzoru urbanizaezinaren azalera

Irizpide honek, eraikinek eta azpiegiturek betetzen duten lurzoruaren azalera, lurzoru berriaren okupazioa eta lurzoru urbanizaezinera bideratutako espazioa aintzat hartzen ditu.

Partzela pribatuen okupazio parametroaren arabera, eta ingurumen helburu estrategikoak aintzat hartuz (lurzoruaren erabilera eta kontsumoaren arrazionalizatzea, hirigintza garapenak premietatik haratago ez gaindimentsionatzea), behin planaren bideragarritasuna bermatzeko eta lurralde plangintzaren eskakizunak betetzeko etxebizitza kopurua eta jarduera ekonomikoetarako azalera finkatuta, lurraren okupazio txikiago batek ingurumen inpaktu txikiagoa eragiten duela kontsideratzen da.

Ondoren alternatiba bakoitzeko lurzoruaren sailkapenaren arabera, lurzoru mota bakoitzaren ehunekoa adierazten da.

T2-T2’ eta T3-T3’ alternatibetan, aurretik adierazi den moduan, zenbakiek kode berdina daramate. Okupazio azalera berdina da eta aldatzen dena haien banaketa espaziala da. Ondorioz, T2 eta T3 aukeren datuak bakarrik adierazten dira.

	L1	L2	L3	L4	T1	T2	T3
Hiri lurzorua	47,51	50,05	49,92	50,04	47,63	47,37	48,59
Lurzoru urbanizagarria	0,00	0,66	0,84	10,18	0,66	3,36	5,29
Lurzoru urbanizaezina	52,49	49,29	49,24	39,78	51,70	49,27	46,12
UDALERRIAN GUZTIRA	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**

11.3.1 Taula: % lurzoruaren sailkapena

L1 alternatibak ez du lurzorurik sailkatzen urbanizagarri gisa, ondorioz lurzoru urbanizaezinaren azalera alternatiba guztietatik handiena da. Hau dela eta, ingurumen irizpide honen arabera alternatiba hoberena da.

Aukera honetan sistema orokorren udal jabari publiko gisa proposatzen diren azalerak handiak direla kontuan hartuz, erredaktore-taldeak adierazten du desjabetze-sistemaren bidez lortu beharko dela. Horrenbestez, udal ogasunerako zenbateko ekonomikoa oso handia izango dela uste da.

Horren eraginez, erredaktore-taldeari arrazoizko zalantza bat sortu zaio, aukera hau ekonomikoki eta finantzarioki egingarria al den. Izan ere, baliabide publikoak oso handiak izango direla balioetsi da, eta udal aurrekontuekin ia ezinezkoa da aurre egitea

L2 eta T1 alternatibek lurzoru urbanizagarriaren ehuneko bera dute, hori bai, T1 alternatibak lurzoru urbanizaezinaren azalera handiagoa du, beraz, ingurumen irizpide honen arabera bigarren alternatiba onena da.

Irizpide honen arabera ingurumen afekzio handiena eragiten duena L4 alternatiba da, beste alternatibekin alderatuz lurzoru urbanizagarriaren ehunekoa oso altua da, 1.203.672,11 m² azalerarekin. Bestalde, lurzoru urbanizaezinaren azalera alternatiba guztietatik baxuena da, ingurumen inpaktu handiagoa eraginez.

Natura-intereseko espazioei afekzioak

A) Alternatibetako lurzoru urbanizaezinean babes eremuak

Aurrerakin dokumentuak alternatiba bakoitzeko babes eremuen azalera okupazioa adierazten du. Babes eremu hauek, Lurralde Plan Sektorialek eta Bilbo Metropolitarreko LPPk ezarritakoak dira.

Babes bereziko eremuak berdinak dira alternatiba guztietan, **1.036.009,54 m^2** okupatuz.

Ingurumen hobekuntza kategoriapean ondorengo eremuak jaso dira:

- Ingurumen hobekuntza. Ekosistemen hobekuntzarako guneak
- Ingurumen hobekuntza. Leheneratu beharreko lekuak
- Ingurumen hobekuntza. Ekosistemen hobekuntzarako guneak. Hurbileko landazabala
- Berreskuratzeko eremu narrituak. Landaretza erruderala eta harrobi gunea
- Nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala. Inguruneko landazabala

Babes eremu kategoriapean ondorengo eremuak jaso dira:

- Hiri hondartzak
- Hurbileko hostozabalak
- Gainazaleko urak babesteko eremua

Ondorengo taulan alternatiben azalera datuak adierazten dira:

	L1	L2	L3	L4	T1	T2	T3
Ekosistemen hobekuntzarako guneak	497.142,78	497.142,78	497.142,78	220.894,77	497.142,78	497.142,78	497.142,78
Leheneratu beharreko lekuak	20.544,00	20.544,00	20.544,00	20.544,00	20.544,00	20.544,00	20.544,00
Ekosistemen hobekuntzarako guneak. Hurbileko landazabala	21.667,09	21.667,09	21.667,09	21.667,09	21.667,09	21.667,09	21.667,09
Berreskuratzeko eremu narrituak. Landaretza erruderala eta harrobi gunea	7.828,60	7.828,60	7.828,60	7.828,60	7.828,60	7.828,60	7.828,60
Nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala. Inguruneko landazabala	52.509,56	52.509,56	52.509,56	52.509,56	52.509,56	52.509,56	52.509,56
INGURUMEN HOBEKUNTZA GUZTIRA	**599.692,03**	**599.692,03**	**599.692,03**	**323.444,02**	**599.692,03**	**599.692,03**	**599.692,03**
Hiri hondartzak	249.341,06	249.341,06	249.341,06	249.341,06	249.341,06	249.341,06	249.341,06

Hurbileko hostozabalak	10.373,47	10.373,47	10.373,47	10.373,47	10.373,47	10.373,47	10.373,47
Gainazaleko urak babesteko eremua	210.428,38	210.428,38	194.830,23	210.428,38	194.830,23	210.428,38	128.355,15
BABES EREMUAK GUZTIRA	**470.142,91**	**470.142,91**	**454.544,76**	**470.142,91**	**454.544,76**	**470.142,91**	**388.069,68**
MA ETA ZP GUZTIRA	**1.069.834,94**	**1.069.834,94**	**1.054.236,79**	**793.586,93**	**1.054.236,79**	**1.069.834,94**	**987.761,71**

11.3.2 Taula: Ingurune naturalaren babesa alternatiba bakoitzean m^2 –tan

Aurreko taulan adierazitakoaren arabera, alternatiba guztiek azalera berdina hartzen dute ondorengo eremuetan: *Ingurumen hobekuntza. Ekosistemen hobekuntzarako guneak, Ingurumen hobekuntza. Leheneratu beharreko lekuak, Ingurumen hobekuntza. Ekosistemen hobekuntzarako guneak. Hurbileko landazabala, Berreskuratzeko eremu narrituak. Landaretza erruderala eta harrobi gunea, Nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala. Inguruneko landazabala, Hiri hondartzak, Hurbileko hostozabalak*.

Ekosistemen hobekuntzarako guneak babes eremuaren azalera kopurua L4 alternatiban askoz txikiagoa da. Honen arrazoia babes eremuen gainean proposatutako Parque Costero-Kostaldeko Parkea da.

Bestalde, T3 alternatiba da *Gainazaleko urak babesteko eremuei* dagokienez afekzio gehien eragioten duena. Arrazoi nagusia, Gobela ibaiaren inguruneko zona bat SGEL gisa kalifikatzen dela da, zona hau beste alternatibetan gainazaleko urak babesteko eremu gisa kalifikatzen da.

B) Intereseko eremuei afekzioak

ARRISKUAN DAGOEN LANDAREDIA

Lurzoru urbanizagarririk proposatzen ez duen L1 alternatiba izan ezik, beste guztiak *Juncus acutus*-en presentzia izan duten lauki-sareekin gainjartzen dira. Dagokion atalean deskribatu den bezala, eremuaren antropizazioaren eraginez, azken honen presentzia ez da antzeman 1997 urtetik. Hala ere, HAPO-ren geroagoko garapen faseetan, espezie hau detektatzeko lur zabaleko ikerketak egin ahalko dira.

Gainera, L4 alternatibak *Chamaesyce peplis* eta *Hockenya peploides* espezieetan afekzioak sortzen ditu, espezie hauek flora mehatxatu gisa jasotzen dira

FAUNA MEHATXATUA

Landarediaren kasuan gertatzen den bezala, Lurzoru urbanizagarririk proposatzen ez duen L1 alternatiba izan ezik, beste guztiak arrain hiruarantzaren (*Gasterosteus aculeatus aculeatus*) babes eremuan aurkitzen dira. Gobelaren eremuan espezie hau interes bereziko arean aurkitzen da. Hau dela eta, L3, T2, T2', T3 eta T3' aukeretan proposatutako SGEL-ren jarduketen barnean, espezie honen kudeaketa planaren neurriak jaso beharko dira. Edonola, JPH-ren babes bandaren bidez espezie honi eragindako afekzioak murriztuak izango direla aurreikusten da.

Gobela ibaia bisoi europarrarentzat (*Mustela lutreola*) ere babes eremua da, ondorioz aurreko arrain hiruarantzaren kasuan bezala L3, T2, T2', T3 eta T3' aukeretan espezie honen kudeaketa planaren neurriak jaso beharko dira.

Hegaztiei dagokienez, L4, T2', T3 eta T3' aukerek Belatz handiaren (*Falco peregrinus)* babes eremuetan afekzioak eragiten dituzte, hau dela eta 1/2014 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena aplikatzen da.

KATALOGATUTAKO ESPAZIOAK

L4 alternatibak "*Galea-Barrikako paleozabalgunea*" izeneko interes geologikoko bereizgarrian afekzioak eragiten ditu.

L4 alternatibak "Punta-Galea-Barrika" izeneko itsaso paisaiaren espazioan ere afekzioak eragiten ditu, alde batetik Parque Costero-Kostaldeko Parkearen proposamenarekin eta bestetik SGEL baten alboan kokaturiko lurzoru urbanizagarriaren proposamenarekin. Ondorengo irudian adierazten da:



11.3.I. Irudia- L4 alternatibak “Punta Galea-Barrika” espazioari eragindako afekzioak

INTERESEKO HABITATAK

Kasu honetan ere L4 alternatibak, 6210* eta 4040* lehentasunezko interes komunitarioko habitatetan afekzioak eragiten ditu, ondorioz, espazio hauek babesteko beharrezko neurriei ez bazaie heltzen proposamen honek ez du beteko biodibertsitatea mantentzeko ingurumen helburua.

Bestalde, L4 ,T2 eta T3 alternatibek Kandelu errekastoaren eremu bat ikutzen dute, hala ere, Aurrerakinean finkaturiko JPH-ren babes bandaren bidez habitat honi eragindako afekzioak murriztuak izango direla aurreikusten da.

Nekazaritza produkzioa

A) Nekazaritza produkzioaren babes eremuak

Ingurune naturalaren babes eremuetan bezala, Aurrerakinak alternatiba bakoitzerako nekazaritza produkzioaren babes eremuak zehazten ditu.

Ondorengo taulan **nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala** eta **mendia** kategoriei dagozkien datuak adierazten dira.

	L1	L2	L3	L4	T1	T2	T3
Nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala. Balio estrategiko altua	126.133,47	126.133,47	126.133,47	126.133,47	126.133,47	126.133,47	126.133,47
Nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala. Trantsizioko landa paisaia	2.867.285,29	2.509.701,54	2.525.592,88	1.673.112,81	2.786.555,25	2.553.017,99	2.259.742,41
NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAKO GUNEA ETA LANDAZABALA GUZTIRA	**2.993.418,76**	**2.635.835,01**	**2.651.726,35**	**1.799.246,28**	**2.912.688,72**	**2.679.151,46**	**2.385.875,88**
Basoa	352.469,29	352.469,29	352.469,29	352.469,29	352.469,29	352.469,29	352.469,29
BASOA GUZTIRA	**352.469,29**	**352.469,29**	**352.469,29**	**352.469,29**	**352.469,29**	**352.469,29**	**352.469,29**
NEKAZARITZA PRODUKZIOAREN BABES EREMUA GUZTIRA	**3.345.888,05**	**2.988.304,30**	**3.004.195,64**	**2.151.715,57**	**3.265.158,01**	**3.031.620,75**	**2.738.345,17**

11.4. Taula- Nekazaritza produkzioaren babes eremuak m^2 -tan

Kategoria hauen azalera ezberdintasuna *Nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala. Trantsizioko landa paisaia* kategoriari bakarrik dagokio. Kasu honetan ere, lurzoru urbanizagarriaren proposamenak okupatzen dituen lurrak direla eta L4 alternatiba da kaltegarriena.

Bigarrenik, eta aurreko kasuaren arrazoi berarengatik, T3 alternatiba da kaltegarriena.

B) Nekazaritza ustiapenei afekzioak

Alternatiba teknikoetatik T2'-k baratze eremu jakin bat ikutzen du eta T3-T3' alternatibek nekazaritza ustiapenak eta zenbait baratze eremu.

L4 alternatibak nekazaritza ustiapen bi eta zenbait baratze eremu ukitzen ditu.

Hondakinen produkzioa:

Biztanle bakoitzeko egunean 1 kg hondakin produzitzen direla kalkulatzen da. Etxebizitza bakoitzean (gutxi gorabehera etxebizitza 1/bizitegi erabilerako 100m2) 2,8 pertsonaren batazbestekoa ezartzen da, ondorioz etxebizitza bakoitzak gutxi gorabehera eguneko 2,8 kg produzitzen ditu, hau da etxebizitza baliokidearen kontzeptua. Jarduera ekonomikoei dagokienez ere, baliokidetasuna 100 m2-tan finkatzen da.

Hau dela eta, eraikuntza dentsitatea gero eta handiagoa izan, hondakinen produkzioa handiagoa izango da eta hondakinen kudeaketa eraginkorragoa izan beharko da.

Alternatibentzako, etxebizitza berrien eskaintza bakarrik hartuko da aintzat, alokairuan kudeatzeko etxebizitza hutsen kopurua berdina baita kasu guztietan, 656 etxebizitza. L1 aukeran salbu, honek Udalplanek emandako datua jasotzen du, 2.169 etxebizitza. Hau dela eta kasu honetan diferentzia hartzen da, 1.513 etxebizitza.

Emaitzak ondorengo taulan adierazten dira:

ALTERNATIBAK	ETXEBIZITZA BERRIEN ESKAINTZA	HONDAKINEN PRODUKZIOA / eguneko
L2	1.944	5.443,2
L1	519 + 1.513	5.689,6
T1	2.387	6.683,6
L3	2.515	7.042,0
T2	3.674	10.287,2
T3	4.658	13.042,4
L4	7.423	20.784,4

11.3.4 Taula: Hondakinen produkzioaren estimazioa

Taulan adierazten den bezala, L4 alternatibak laukoiztu egiten du hondakinen produkzioa, gutxien sortzen dituen alternatibarekiko.

Baliabideen kontsumoa:

Hondakinen produkzioan bezala, kontsumoa dentsitate urbanistikoarekin (etxebizitza kopurua eta jarduera ekonomikoen azalera) zuzenean erlazionaturik dago. Hau dela eta, gutxien eraikitzen duten alternatibek baliabideen kontsumo txikiagoa izango dutela ondorioztatzen da.

ALTERNATIBAK	ETXEBIZITZA BERRIEN ESKAINTZA
L1	519
L2	1.944
T1	2.387
L3	2.515
T2	3.674
T3	4.658
L4	7.423

11.3.4 Taula: Baliabideen kontsumoaren estimazioa

Aurreko irizpiderako egindako hierarkizazioa, L1 eta L2 alternatibetan salbu, baliozkoa da. L1 alternatibak baliabideen kontsumo txikiena du eta L4 alternatibak baliabideen kontsumo handiena.

Kutsadura atmosferikoa:

Hasiera batean, eta kutsatzaileen dispertsioaren arabera, trafiko dentsitatea gero eta handiagoa izan, kutsatzaileen kontzentrazioa eta zarata handiagoa izango da. Jarduera ekonomikoen kasuan, industria garbiaren irizpideak aplikatu beharko dira.

Alternatiba desberdinen arteko analisi konparatiboa egiteko, LEBER, Planificación e Ingeniería S.A.- k egindako *"Getxoko Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren Aurrerakinean planteaturiko alternatiben Mugikortasunaren Azterketa (2015 Uztaila*)" dokumentuan agertzen diren datuak erabili dira.

Aipaturiko azterketan, proposatutako egoera edo alternatiba bakoitzaren mugikortasunari lotutako emisioak kalkulatzeko, *berotegi-efektuko gasen* isuriekin erlazionaturiko bolumena eskuratu da. Honetarako, Eusko Jaurlaritzak eskatuta, 2008-ko datuekin Eusko Jaurlaritzaren enkarguz eginiko garraioaren kanpo kostuen azterketatik jasotako emisio koefizienteak erabili dira. Koefizienteek zirkulazioan ari diren ibilgailuen emisio zuzenak eta ibilgailuen eraikuntza eta desegiteko (eta atxikitako azpiegitura) zeharkako emisioak aintzat hartzen dituzte.

MODO	Emisiones directas	Emisiones indirectas	Total	
Turismos	196	81	278	g/vehículo-Km
Transporte público en general	32	48	80	g/viajero-Km

Koefiziente hauek egindako distantziei aplikatu zaizkie eta egoera bakoitzerako emisio bolumenak erdietsi dira.

Konparazioa egiteko ondorengo egoerak erabili dira:

- Erreferentzi egoera: Egungo abiatze egoerari dagokio. Alternatiba ezberdinak eraikitzeko dagozkien gehikuntzak finkatzeko kalibraketa egoera da.
- BASE egoera: Base egoerari dagokio, hau da, 2001-ko HAPO
- L1 egoera: L1 alternatibari dagokio.
- L3 egoera: L3 alternatibarentzat deskribaturiko gehikuntza sozioekonomikoak jasotzen ditu. Bere emaitzak L2 eta T1 alternatiben emaitzen baliokideak dira (handixeagoak izango dira).
- T3 egoera. T3 alternatibaren gehikuntzekin eraikitzen dugu eta bere emaitzak T2 alternatibaren berdintsuak izango dira.
- Azkenik, L4 egoerak L4 alternatiban proposaturiko gehikuntzak jasotzen ditu.Erreferentzi egoera: Kalibrazio egoera da eta aztertutako alternatiba ezberdinen konparaketetarako erreferentzia puntu gisa erabiltzen da.

Mugikortasun orokorraren emisio, egoera guztiek emisio gehikuntza bat adierazten dutela ikusten da, bereziki ibilgailu pribatuen aldetik, arrazoia, familia kopuru handiagoak mugikortasun handiagoa eragiten duela izan daiteke.

Analisi zehatzagoan, barne bidaietan, T3, Base eta L4 egoeretan eta bereziki azken honetan, emisioak modu nabarmenean areagotzen direla frogatzen da. Hauek dira familia berri kopuru handiena duten alternatibak. Gainera, haiek garatzen dituzten zonak, egungo eremu kontsolidatuen kanpoaldean daude, erdialdetik urrunago, beraz autoaz egin beharreko ibilbide luzeagoengatik baldintzatuta daude. Dena dela, barne bidaiek eragindako emisioak oso baxuak dira beste bidaia moten aurrean.

Kanpo bidaiek ere, aurrez aipaturiko arrazoiak direla medio, emisioak modu nabarmenean areagotzen dituztela frogatzen da. Ostera, erakarritako bidaiei dagokienez emisioek aldaketa gutxi jasaten dute, honen arrazoia, Getxorako proposatutako enplegu kopurua –erakarpen elementua- ez dela asko aldatu izan daiteke.



Ondorioz, CO_2 isurien inpaktuari dagokionez, txikiagotik handiagora, alternatiben ordena ondorengoa da:

1. L1 Alternatiba

2. L3, L2 eta T1 Alternatibak
3. T3 eta T2 Alternatibak
4. L4 Alternatiba

Mugikortasun jasangarria:

Irizpide honentzat ere, LEBER, Planificación e Ingeniería S.A.- k egindako *"Getxoko Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren Aurrerakinean planteaturiko alternatiben Mugikortasunaren Azterketa (2015 Uztaila*)" dokumentuan agertzen diren datuak erabili dira. Ondoren ondorioak azaltzen dira.

Alternatiba guztiek planteatzen duten jardunbideetako bat, neurri handiago edo txiki baten, hiri lurzoru kontsolidatuan etxebizitza hutsak eta eraiki gabeko partzelak erabiltzea da. Alde honetatik intentsitate gehien duena L1 alternatiba da.

Eremu urbanoen dentsifikazio honek ez dio bide sistemaren gaitasunari eragiten. Ez da afekziorik sortzen eta erabil daitekeen bide sarea sortutako intentsitateak xurgatzeko gai da.

L1 alternatiba honetan, Getxok gaur egun jasaten duen barne/kanpo/erakarritako mugikortasunaren arteko desoreka handitu egiten dela nabarmentzen da. Ondorio honek, kanpo mugikortasunaren gehikuntza murrizteko (edo gutxienez dagoen bezala uzteko) **Getxon enplegua sortzeko beharra** nabarmentzen du, mugikortasun eta jasangarritasun aldetik premiazko arazoa delako.

Hazkunde ertaina duten alternatibetan (L2, L3, T1, T2 eta T3) ondorioak antzerakoak dira. Garraio sisteman eta mugikortasunean ez dute eragiten aldaketa aipagarririk, hala ere, aipatu dugun lez, ez dute hobetze joera bat finkatzen.

Ezberdinak dira **Base eta L4** alternatiben ondorioak**. Mota bidezko banaketak okerrera** (ehunekotan) egiten du kasu hauetan, oinezkoen mugikortasuna galduz, motordun bidezko mugikortasunaren alde. Hau da, beste alternatibekin alderatuta, ibilgailu pribatuen erabilera indartzen duen mugikortasun modu baten hazten dira, desiragarria litzatekeenaren aurkakoa.

Alde honetatik, L4 alternatibak Base alternatibak baino dentsitate handiagoko hazkundeak proposatzen ditu, baina hazkunde hauek trafiko intentsitate jakin batzuk sortzen dituzte, Sarrikobaso, Ormaza, Maidagan, etab. inguruetan eragin negatiboak sortuz. Egungo bidegurutze batzuen funtzionamendu egokia kolokan jarriz. Alternatiba honek eragiten duen motordun bidezko mugikortasunari soluzioa aurkitzeko beharrezko bide diseinu bat egiteko, xehetasun azterketa egoki bat beharrezkoa da.

Ondorioz, mugikortasunaren inpaktuari dagokionez, txikiagotik handiagora, alternatiben ordena ondorengoa da:

1. L1, L2, L3, T1, T2 y T3 Alternatibak
2. L4 Alternatiba

Arriskuak eragitea

L2, L3, L4, eta alternatiba tekniko guztiek kutsatuta egon daitezkeen lurrak dituen partzela bat aurkezten dute. Zehatz mehatz, Evitime gasolindegiaren kokapena da 48044-00002 kodearekin. Ondorioz, kutsatutako lurzoruetarako aplikagarri den legediak finkaturiko prozedurak jarraitu beharko dira.

Akuiferoen urrakortasunari dagokionez, L4 alternatibak bakarrik eragiten ditu afekzioak urrakortasun oso altuko eremuetan. Arriskuak eragitearen inguruan ez da beste aldaketa nabarmenik ematen.

Egoera akustikoa

Azkenik, L1 izan ezik, beste alternatiba guztiak *Foru Errepideen Zortasun Akustikoari dagokion Gunean (4523/2013 FA)* kokatzen dira, hau dela eta 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoak finkaturikoa bete beharko da.

ALTERNATIBEN INGURUMEN-ANALISIA

Alternatiben irizpide anitzeko analisirako, aurretik aipaturiko ingurumen irizpideen arabera, metodologia kualitatibo bat aukeratu da

Lehenik eta behin, inpaktuen matrize baten bidez, ingurumen irizpideen analisiaren arabera alternatiben egokitasuna adierazten duen balio bat eman zaie.

Izaera negatiboko afekzioen balioak ondorengoak dira:

0: Afekziorik gabe
1: Afekzio ez esanguratsua
3: Afekzio esanguratsua
5: Afekzio oso esanguratsua

Bigarrenik, irizpideen haztapena egin da, garrantziaren balioak ez baitu eragin berdina analizatu diren irizpide bakoitzean.

Ezarritako ponderazioak ondorengoak dira:

INGURUMEN IRIZPIDEA	PONDERAZIOA
Hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren azalera vs lurzoru urbanizaezinaren azalera	3
Alternatibetako lurzoru urbanizaezinean babes eremuak	5
Intereseko eremuei afekzioak	5
Nekazaritza produkzioaren babes eremuak	5
Nekazaritza ustiapenei afekzioak	3
Hondakinen produkzioa	1
Baliabideen kontsumoa	1
Kutsadura atmosferikoa	3
Mugikortasun jasangarria	3
Arriskuak eragitea	3
Egoera akustikoa	3

11.3.5 Taula: Ingurumen irizpideen ponderazioa

Kasu batzuetan bi alternatibak balorazio berbera azaltzen dute. Honen arrazoia, alternatiba biek ingurunearen gain antzerako afekzioa eragiten dutela da, eta beraz, aukera biak egokiak dira

Ingurumen irizpiderako jasotako emaitzen arabera, alternatiba bakoitzerako ondorengo ingurumen afekzioen matrizeak lortu dira:

	ALTERNATIBAK						
INGURUMEN IRIZPIDEA	L1	L2	L3	L4	T1	T2	T3
Hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren azalera vs lurzoru urbanizaezinaren azalera	0	1	1	5	1	3	3
Alternatibetako lurzoru urbanizaezinean babes eremuak	1	1	1	5	1	1	3
Intereseko eremuei afekzioak	0	0	3	5	0	3	3
Nekazaritza produkzioaren babes eremuak	1	3	3	5	1	3	5
Nekazaritza ustiapenei afekzioak	0	0	0	5	0	3	3
Hondakinen produkzioa	1	1	3	5	1	3	5
Baliabideen kontsumoa	1	3	3	5	3	3	5
Kutsadura atmosferikoa	1	3	3	5	3	5	5
Mugikortasun jasangarria	1	1	1	5	1	1	1
Arriskuak eragitea	0	1	1	3	1	1	1
Egoera akustikoa	0	3	3	3	3	3	3
GUZTIRA	**6**	**17**	**22**	**51**	**15**	**29**	**37**

11.3.6 Taula: Alternatiben afekzioen matrizea

	ALTERNATIBAK						
INGURUMEN IRIZPIDEA	L1	L2	L3	L4	T1	T2	T3
Hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren azalera vs lurzoru urbanizaezinaren azalera (3)*	0	3	3	15	3	9	9
Alternatibetako lurzoru urbanizaezinean babes eremuak (5)*	5	5	5	25	5	5	15
Intereseko eremuei afekzioak (5)*	0	0	15	25	0	15	15
Nekazaritza produkzioaren babes eremuak (5)*	5	15	15	25	5	15	25
Nekazaritza ustiapenei afekzioak (3)*	0	0	0	15	0	9	9
Hondakinen produkzioa (1)*	1	1	3	5	1	3	5
Baliabideen kontsumoa (1)*	1	3	3	5	3	3	5
Kutsadura atmosferikoa (3)*	3	9	9	15	9	15	15

Mugikortasun jasangarria (3)*	3	3	3	15	3	3	3
Arriskuak eragitea (3)*	0	3	3	9	3	3	3
Egoera akustikoa (3)*	0	9	9	9	9	9	9
GUZTIRA	**18**	**51**	**68**	**163**	**41**	**89**	**113**

* Ponderazioak

11.3.6 Taula: Alternatiba ponderatuen afekzioen matrizea

Ingurumen inpaktuaren arabera alternatiben hierarkizazioa, txikiagotik handiagora, alternatiben ordena ondorengoa da:

- L1 Alternatiba
- T1 Alternatiba
- L2 Alternatiba
- L3 Alternatiba
- T2 Alternatiba
- T3 Alternatiba
- L4 Alternatiba

Ondorioz, ondorengoa adierazten da:

- Ingurumen ikuspegitik L4 alternatiba kaltegarriena da, inpaktu mailari dagokionez beste alternatiben aldean diferentzia handiaz gainera.

- L1 alternatibak, lurzoru berririk kontsumitu gabe, afekzio gutxien aurkezten du, hala ere, lurzoru urbanizaezinean L2 eta T2 alternatibek kalifikatutako babes eremu kopuru berdina dute, eta ez du konpontzen, l4-k salbu gainerako alternatibek egiten duten bezala, mugikortasunaren arazoa.

  Aipatu den bezala, L1 alternatiba honek bere bideragarritasun akustikoari dagokionez zalantzak sortzen ditu.

- T1 eta L2 alternatibak inpaktuei dagokienez antzerakoak dira, nahiz eta L2 aukerak nekazaritza produkziorako babes eremu gutxiago duen.

- L3 eta T2 alternatibak, antzemandako inpaktuei dagokienez erdibideko posizio baten aurkitzen dira, nahiz eta T2 aukerak lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako azalera gehiago duen, baita ingurune naturalaren babes eremu gehiago.

- T3 alternatibak inpaktu maila handietara iristen da, funtsean nekazaritza produkziorako babes eremuen kalterako lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurren ondorioz. Hondakinen produkzioa, baliabideen kontsumoa eta kutsadura atmosferikoari dagokionez ere inpaktu esanguratsuak sortzen dira.

- T2-T2' eta T3-T3' alternatiben arteko ezberdintasun aipagarriena, T2 eta T3 alternatibek Kandelu errekastoan eragiten duten afekzioa da.

- T2 eta T2' alternatibek, T3 eta T3' alternatibek baino gainazaleko uren babes eremu handiagoa dute.

- T2 alternatibak ez du nekazaritza jardueran afekziorik eragiten, aldiz T2' alternatibak baratze eremuren baten afekzioak eragiten ditu. T3 eta T3' alternatibek nekazal ustiapenetan eta baratze eremuren baten afekzioak eragiten dituzte.

11.4. BESTE PROPOSAMENAK

11.4.1. INGURUMEN FOROA

2014. urtean foroak udalerriko ingurune fisikoa antolatzeko proposamena aurkeztu zuen eta HAPOaren bulegoak legeztatzen lagundu zuen. Horren ondorioz, proposamen-planoa, memoria eta espezie aipagarrien taula eratu ziren. Dokumentu hau eduki urbanistikoan jaso da, eta Ingurumen Jasangarritasun Txosten honetan foroak egindako proposamenak aipatzen dira.

A) Boluako ibarrean (ikusi 1. planoa):

Boluako hezegunea jada Hezeguneen LPSan araututa dago eta planoan mugatuta agertzen da, beraz, habitat bikain bezala Boluako hezeguneaz gain, espezie autoktonoez osatutako basoen edo parekoen babes bereziko kategorian planoan adierazitako landaretza-masak sartu behar dira: hariztia, haltzadia, lertxundia eta natur istiltzeetako landaretza nahiz flora.

Jatorrizko landaretzatik abiatuta, antolaketa bat proposatzen da, Ingurumenaren Hobekuntza kategoriarekin, masa horiek zabaldu eta planoan jasotzen diren areak (hobetzekoak) kolonizatzeko. Proposatzen diren Ingurumen Hobekuntzak honakoak lirateke: **MA1** hariztirako, **MA2** haltzadirako, **MA4** natur istiltzeen landaretza nahiz florarako eta **MA5** landazabal eta belardi ihitokien landaretzarako.

B) Zubilleta ikastetxearen eta Errotatxuko jarduera-gunearen arteko zonarako (2. planoa):

Ingurumen Hobekuntza bezala berreskuratzeko lurzoruaren kategorian hurrengoak sartzen dira: haltzadia (**MA2**) eta natur istiltzeen landaretza nahiz flora (**MA4**). Lurzorua erabilera publikorako lortzea eta ingurumenaren ikuspegitik berreskuratzen hasi ostean, ingurumen-ibilbideak zehaztea ezin hobetzat joko lirateke. Azkenekoen kasuan, hobekuntzan eraginik izan gabe, zonari balio didaktiko handia emango liokete, Boluako hezegunean landutakoaren antzera..

C) Kostaldean (3. planoa):

Kostaldearen babes berezia itsaslabarren ezpondaren bururaino marrazten da, kostaldeari buruzko LPSak bere araudian, 19.2.a) artikuluan, alegia, adierazten duen bezala.

Ezponda gainditu ondoren, jada zabalgunean, Sopelarekin egiten den mugatik Arrigunagaraino, LPSak xedatutako jarraibideekin bat, Ingurumen Hobekuntzarako zona desberdinak proposatzen dira eta lurraldea berreskuratu nahi den landaretzaren arabera bereizten dira.

Ingurumen Hobekuntzarako lehenengo lerroa, Sopelatik Arrigunagako skate-parkeraino, txilardi atlantikoa berreskuratzera bideratuko da (**MA8**). Izan ere, landaretza oso murriztuta dago, baina oraindik zona batzuetan (Aixerrotako zelaiaren aurrealdean) agertzen da. Lurralde-lerro honetan hiru ekipamendu daude eta kalifikazioa errespetatuko zaie: Bilboko Salbamenduaren Koordinazio Zentroaren mendeko itsas segurtasunerako sistema orokorra, gotorlekuaren ondoko aparkalekua eta gotorlekua bera.

Ingurumen Hobekuntzarako zona honen gainean, bai golf-zelaiaren aurrean, bai Aixerrotako zelaian, bi zona mugatu direla azpimarratu behar da eta horietan *Stachys Ocimastrum* (landare berezia) aurkitu da.

Txilardia berreskuratzeko zonaren atzean, baita Sopelatik golf-zelairaino ere, lurraldearen zati bat mugatzen da Kantauriko artadiarekin basotzeko (**MA7**). Bere atzetik, Sopelari itsatsia, haritz azidofiloa berreskuratzeko zona gordetzen da (**MA1**).

Lehorrean barrena jarraituz, nekazaritza- nahiz abeltzaintza-zonaren eta kostaldearen artean deskonpresio-lerroa proposatzen da. Horretan, landazabala eta belardi ihitokia kontserbatu eta sendotzeko Hobekuntza egokitzat (**MA5**) jotzen da.


BERANGO
LEIOA
MA1
MA2
MA3
MA4
MA5
MA6
MA7
FLORA
FAUNA
MASAS DE VEGETACIÓN
HABITATS RELEVANTES
CATEGORIAS DE SNU
CORREDOR ECOLOGICO
ORDENACIÓN DEL MEDIO NATURAL
PROPUESTA DEL FORO DE MEDIOAMBIENTE MUNICIPAL
PARA LA REVISION DEL PGOU
Plano 1 de 3
Getxo

PIES DISPERSOS
FLORA
MASAS DE VEGETACIÓN
FAUNA
HABITATS RELEVANTES
CATEGORIAS DE SNU
CORREDOR ECOLOGICO
ORDENACIÓN DEL MEDIO NATURAL
PROPUESTA DEL FORO DE MEDIOAMBIENTE MUNICIPAL
PARA LA REVISIÓN DEL PGOU
Plano 2 de 3
Getxo

FLORA
FAUNA
CATEGORIAS DE SNU
CORREDOR ECOLOGICO
ORDENACIÓN DEL MEDIO NATURAL
PROPUESTA DEL FORO DE MEDIOAMBIENTE MUNICIPAL
PARA LA REVISION DEL PGOU
Plano 2 de 3
BERANGO

D) Igarobide ekologikoaren proposamena eta hautabideak:

Lehenengo puntuan deskribatzen den antolamenduarekiko baldintzatzaile gainjarriaren modura, Bolueko ibarra eta kostaldea konektatzeko igarobide ekologikoa mugatzea proposatzen da. Hala, udalerrian dauden natur espezieen banaketari jarraipena ematen zaio.

Igarobidearen araudia eta kudeaketa HAPOan jaso daiteke, faunaren iragaitea kontserbatzen duten neurriekin. Gainera, gainjarri ostean, lurzoru ez-urbanizagarriaren kategoria desberdinetan gara daitezkeen jarduerak ez dira saihestuko.

Igarobidea sortzeko, euskarri fisiko bezala sistema orokor hidraulikoa, hau da, Gobela ibaia eta Kanderu nahiz Larrainazuri/Bolua errekak eta Boluako hezegunea erabiltzen dira. HAPOaren idazleek mugatu duten sistema orokor hidraulikoari 15 m-ko distantziakidetasuna aplikatzen zaio alde bakoitzean, beraz, lursailaren lerro horrek hartuko du igarobidea. Modu berean, mugaketa hori erabiltzen du LPSak gainazaleko urak babesteko orduan lurzoru ez-urbanizagarriaren kategoria mugatzeko.

Larrainazubin toki batzuetan erreka oso-osorik Berangoko udalerrira pasatzen da, beraz, zona horietan 30 m-ko lerroa arinki zabaltzen da, igarobideak gure udalerrian zehar jarraipena izateko. Dena den, Berangon egiturazko antolamenduak zona horiek gainazaleko urak babesteko gune bezala definitu ditu (memoria honen amaieran Berangoko HAPOak xedatutako araudia erantsi da).

Larrainazubi eta Andra Mariaren artean, igarobideak udalerriko hiri lurzorua zeharkatzen duenean, SOHaren gainean mugatzen da, zabaldu gabe.

Zubilletako zonan, istiltzeen kasuan Ingurumen Hobekuntzari buruz, igarobideak 30 metroko gutxieneko zabalera berreskuratzen du. Eta Kandaruerrekaren gainean Andra Marian sartzen da Zientoetxeraino.

SOHa mugatzeko ibilgua eta lursaila sartzen dira. Horrela marrazten da sistema ezpondaren bururaino, bideratuta ez dagoen tokietan. Berdin dio hamar urteko uholdea zein den, betiere txikiagoa baita.

2 Berangoko HAPOaren 2.10.15. artikulua: GAINAZALEKO URAK BABESTEKO ZONA

1. Gobela ibaiaren ibilgua eta uraren gainazaleko ibilgu guztiak sartzen dira. Horrez gain, bakoitzak 15 metroko zabalera duen bi lerro mugakide daude. Horiek herri-ibilguaren mugaketa-lerrotik edo ibaiaren ohiko uholde-lerro handienetik neurtzen dira.

Halaber, udalerriko ur-puntuak erantsiak daude. 00 kategoriako ibai-ibilguen kasuan, babes-lerroen erregulaziorako Uraren Legeari erreparatuko zaio.

2. Kontserbaziorako eta ingurumen-hobekuntzarako jarduerak baimenduta daude; gauza bera gertatzen da ingurunearen ezagutza hobetzera, populazioaren hornidura eta sarbideak bermatzera, kalitatea hobetzera eta natur arriskuak minimizatzera bideratuak dauden azpiegitura hidraulikoekin.

3. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren erabilerak baimenduak daude, garatzen ari badira eta betiere uren babesa bermatzeko beharrezko baldintzak betetzen badituzte.

4. Arau hauek onartzen direnean dauden etxebizitzetarako eraikinek gainazaleko uren babes-zonak menderatzen badituzte, antolamenduaren barruan daude eta, ondorioz, horietan birgaitze- eta modernizazio-obrak egin ahal izango dira, betiere egungo erabilera mantentzen badute. Ezingo dira egin, ordea, hedapen-lanak 15 metroko lerroaren barruan.

5. Gainazaleko uren babes-zonan nekazaritza-industriak, obra-hondakindegiak eta zabortegiak nahiz eraikuntza-erabilera berri oro debekatuak daude.

Andra Marian, Kandaruerreka Getxotik berriz itzuli baino kilometro erdi baino gutxiago ateratzen da. Tarte horretan Berangoko hiri lurzorutik igarotzen da. Sailkapen hau eta ibilgua baino igarobide zabalagoa ezartzeko izan dezakeen ondorioa pixka bat arintzen da aipatu lurzoruan antolamendu xehatuak herri-erabilerako espazio libreak kudeatu baititu, beraz, erreka zati batean antropizazioaz babestua gelditzen da.

Zientoetxeko errepidearen ondoan Kandaruerrekaren iturburua gainditu ostean, igarobidea amaitu eta kostalderaino iristeko, euskarri hidraulikorik gabe hiru hautabide aurkezten dira. Helburua, Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostenean ebaluatu ondoren, etorkizuneko HAPOaren antolamenduan bat aukeratzea da.

FOROAREN PROPOSAMENAREN INGURUAN HAPO-REN ERREDAKTORE-TALDEAREN IRUZKINA

Udal ingurumen foroaren proposamenean jasotako lurzoru urbanizaezineko kategoriei lotutako antolamendu zehaztapenek, informazio izaera ez loteslea dute, Aurrerakinean proposatzen den kategorizazioa lurralde antolamenduaren tresnetan finkaturikoaren ondorio baita, Aurrerakin honek eransten duen jasangarritasun txostenak zehaztu eta osatuta.

Bolue harana eta itsasertza lotzeko proposaturiko korridore ekologikoa, espezieen banaketari ahalmena emanez, Aurrerakin honetan 3. Korridoreko aukera jasoz eransten da eta kokatzen den lurzoruko kategorien erabilerei buruzko zehaztapenen gainjarritako baldintzatzaile gisa ezarriko da.

FOROAREN PROPOSAMENAREN INGURUAN IJT-REN ERREDAKTORE-TALDEAREN IRUZKINA

Udalerriaren barnean korridore ekologiko bat formalizatzearen proposamena eta HAPO-ren erredaktore taldeak bere gain hartzea, Getxoko ondare naturala zaintzeko eta bultzatzeko apustu garbia dira.

Horregatik, Getxoko azpiegitura berdeari eta lotura ekologikoari ekarpen garrantzitsu bat egiten dion heinean, IJT honek proposamen hau guztiz babesten du.

11.4.2. ANDRA MARI GURE LURRA ELKARTEA

Andra Mari Gure Lurra elkarteak 2011. urtean legez hasi baino lehen berraztertze-prozesuan parte hartu du.

2008. eta 2010. urteen bitartean Andra Maria auzoaren etorkizunari buruzko eztabaidetan parte hartu zuten eta horien ondorioz 130. erabakiaren erakunde-aitorpena egin zen 2010eko irailaren Osoko Bilkuran.

2012. eta 2015. urteen artean lantaldearen eta Kontseilu Aholkulariaren kide izan da. Gainera, HAPOaren berraztertzeari dagokion ingurumen-ebaluazioaren prozesuan jende interesduna da.

2015eko udan, uztailaren amaieran, Andra Mari Gure Lurra elkarteak, elkarte bezala proposamena entregatu zuten, Erregistroan inskribaturik, idatzizko memoria bat eta antolamendu plano batez osatua. Ondoren aipaturiko memoria hitzez hitz transkribatzen da eta dokumentazio grafikoan.

Duela hamabost bat urte idatzi eta onartu zen plan orokorrean, hau da, egun oraindik indarrean dirauenean, zenbait eremu hiri lurzoruaren kalifikazioarekin definitu ziren eta banaketa-areatan antolatu ziren. III. zonan 43. banaketa-area Santa Maria hirikoa deritza eta zazpi etxe-uharte eten ditu. Andra Mariaren bi zati desberdinetan kokatzen dira: 1. eta 2. etxe-uharteak Metroko egungo trenbidetik gertuago eta gainerakoak kostaldetik hurbilago.

Zazpi etxe-uharteen multzoak pribatiza daitezkeen aprobetxamenduetarako 192.549 m2-ko azalera du. Dena den, itxuraz, etxe-uharte bakoitzaren mugak oinarri topografiko eguneratuan kokatuz gero, neurketa guztira 203.038,94 m2-koa da. Partzelaren gainean 0,19 m2/m2-ko sabai-koefizientea du eta guztira eraikigarritasun geometrikoa 36.584 m2-koa da. Gehiena familia bakarreko etxebizitzetara bideratuta dago.

Andra Maria auzoari dagokion eremuaren barruan aipatu plangintzak, batetik, 46 area hipikaren izenez definitzen du 27.772 m2-ko azalerarekin eta kirol-ekipamendu pribatura bideratuta dago. Eraikigarritasuna 0,25 m2/m2-koa da, eraikigarritasun geometrikoa, berriz, 6.943 m2-koa. Bestetik, Azkorri 45 areak 20.589 m2 ditu eta neurketa eguneratua eginez gero, 20.907 m2. Irakaskuntza-ekipamendu pribatura bideratuta dago, 0,30 m2/m2-ko eraikigarritasunarekin eta 6.177 m2-ko eraikigarritasun geometrikoarekin.

Hala eta guztiz ere, Andra Mariaren hiri lurzorua osatzen duten etxe-uharteetatik kanpo, familia bakarrerako etxebizitza ugari agertzen da. Dirudienez, lurzoru urbanizagarrian egin dira, dagokion plan partzialik gabe. Are gehiago, batzuk lurzoru ez-urbanizagarrian daude eta emaitza anarkikoa eta ia kaotikoa eskaintzen dute. Itxuraz behintzat, ez du azalpenik, baina plangintzaren bidetik dagozkion neurriak hartu behar dira, ahal den neurrian egoera hori arintzeko, ez baita inolaz ere desiragarria.

Baliteke arrazoi honengatik edo bestelako antzekoengatik, Udalbatzak, bere egunean une horretan Getxoko Udalean zeuden talde politiko guztiek onartu ostean, erakunde-aitorpena formulatu eta onartzea. Zenbait puntu ditu eta dauden etxebizitzak mantentzearena azpimarra daiteke. Eta ondorengoa eransten du: irizpide hau dauden etxebizitzak kontuan hartuta espazioan integrazio eta kohesio ezin hobearekin konbinatuko dela. Ildo horri eutsiz, hirigintza-antolamendu berriaren ondorioz ingurune berritua eratuko da.

Ondoren erantsitakoaren arabera, hirigune berri bezala kalifikatzeko aukera aurrez ikusi behar da. Horrez gain, jada existitzen diren guneetan sartuko dira, etxebizitzak horien mugetatik hurbil

kokatuak badaude. Egiaz elkarteko kideek eta Andra Maria auzoko egoiliar gehienek oso-osorik partekatzen dituzte Udalbatza guztiak onartu adierazi eta onartutako irizpideak.

1 eta 2 etxe-irlentzako 0,19 m2/m2 eraikigarritasuna da eta besteentzat 0,40 m2/m2 aintzat hartuz kalkuluak egin ostean, ondorengo emaitzak azaltzen dira:

Beraz, ehuneko horiek aplikatu ostean, honako azalerak lortzen dira:

Bestelako erabilerak ..... 29.871,49 m^2
Etxebizitza librea ..... 41.820,00 m^2
Etxebizitza tasatua ..... 13.940,00 m^2
Babes ofizialeko etxebizitza ..... 13.940,00 m^2

Talde idazlearen estimazioak aplikatuta, etxebizitzen kopuruan hazkuntza hurrengoa izango dela esan daiteke:

Etxebizitza librea ....41.820,00 m^2 …….. 209 etxebizitza
Etxebizitza tasatua ....13.940,00 m^2 …… 139 etxebizitza
Babes ofizialeko etxebizitzak 13.940,00 m^2 …… 145 etxebizitza
Guztira ....493 etxebizitza

GURE LURRAREN PROPOSAMENAREN INGURUAN HAPO-REN ERREDAKTORE-TALDEAREN IRUZKINA

Aurrerakinean azterketa berri bat egin da proposamen hau topografikoarekin gainjarriz eta lehendik dauden elementu fisikoetara egokitzapen txikiak burutuz.

Honela, irizpide teknikoen arabera, eraikigarritasunaren eta etxebizitza kopuruaren kalkulu berri bat egiten da. Eraikigarritasun koefizienteak, etxebizitza erregimena eta eraikitako etxebizitzaren m2 ratioa nabarmentzen dira. Emaitzak, aurkeztutako proposamenarekin alderatuta, modu esanguratsuan handitzen dira.

GURE LURRAREN PROPOSAMENAREN INGURUAN IJT-REN ERREDAKTORE-TALDEAREN IRUZKINA

Hasiera batean, eta analisi xehatuagorik ezean, proposamen hau ondorengo ingurumen helburu estrategikoetatik aldentzen da:

- Beharrak aztertzea, aurreikusitako garapenak ez daitezen izan neurriz kanpokoak.
- Lurzoru antropizatuak berrerabiltzea sustatu eta horri lehentasuna ematea, lurzoru natural urbanizatu gabeak artifizialdu ordez. Herriko jatorrizko guneetan eraikita eta urbanizatuta dagoen ondarea berroneratu eta hutsik dauden etxebizitzak erabili.
- Erabilera ugariko hiri-egitura itxi, trinko eta konplexuak sustatzea. Hurbiltasunezko hirigintza indartzea eta joan-etorriak egiteko beharrak murriztea.
- Udal-plangintzan paisaiaren faktorea sartzea. Natura- eta/edo landa-paisaia zainduz; Katalogatutako Ikus Arroak bereziki nabarmenduz.


SANTA MARÍA URBANO
PROPUESTA AMPLIACIÓN SUELO URBANO
SUELO URBANO NO EDIFICADO
SISTEMA GENERAL DE ESPACIOS LIBRES
SISTEMA LOCAL DE ESPACIOS LIBRES
DOTACIÓN PRIVADA
DOTACIÓN PÚBLICA
SISTEMA GENERAL VIARIO
AMPLIACIÓN DOTACIONES PÚBLICAS
ASOCIACION ANDRA MARI GURE LURRA
PROPUESTA DE ACTUACIÓN URBANÍSTICA
ANDRA MARI (GETXO)
PROPUESTA
01

11.5. HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA

Hirigintza prozeduraren fase honetan ez da alternatiben aukeraketarik egin.

Hasierako Onarpenerako dokumentuan aztertu ahal izango da aukeratutako soluzioa.

12. AURREIKUSITAKO INGURUMEN-INTEGRAZIOKO NEURRIAK (D/211/2012 II Eranskina 'k')

12.1 GORAGOKO PLANIFIKAZIO ESKALETAKO INGURUMEN INPAKTUAREN EBALUAZIOTIK ETORRITAKO BABES NEURRIAK, NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA KONPENTSATZAILEAK

LAG-en Aldaketaren ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioan jasotako neurri batzuen aplikazioa beharrezkoa dela deritzogu:

- Energia-kontsumoa minimizatzera bideratutako arkitektura bioklimatikoen sistemak bultzatzea.
- Hiri-mugikortasunaren hobekuntza:
    - Tokiko bideak, oinezkoen eta txirrindularien lehentasunaz; aukera ezberdinak batera existitzea.
    - Garraio ibilgailuen eta ingurumen inpaktu txikiko motordun zerbitzu publikoen erabileraren inguruan esperientzia pilotuen garapena.
- Energia berriztagarriak bultzatzea
- Hiri hondakinen kudeaketan berrikuntzak (berrerabiltzea, birziklatzea,...)
- Biodibertsitatearen hobekuntza:
    - Hiri-inguruneetan zona berdeen hedapena
    - Bertako landare espezieen hedapena

Bestalde, 2020ko Ingurumeneko Esparru Programaren helburuak barneratzea proposatzen da, ahal den neurrian, HAPOk landutako jarduerak irizpide hauetara egokitzeko asmoz:

1. Helburu Estrategikoa	*Gure ondasun naturala babestu, zaindu eta berreskuratu, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak gordez.*
2. Helburu Estrategikoa	*Karbono gutxi isurtzen duen eta baliabideen erabilera eraginkorra duen ekonomia lehiakor bat bultzatzea*
3. Helburu Estrategikoa	*Gure herritarren osasuna eta ongizatea bultzatzea eta zaintzea*

4. Helburu Estrategikoa *Lurraldearen jasangarritasuna hobetzea*

5. Helburu Estrategikoa *Politikaren koherentzia bermatzea, ingurumen integrazioa areagotuz*

IEPn besteak beste, ondorengo jarduerak proposatzen dira:

- Plangintza eta arautegi sektorial desberdinak berrikustea eta lerrokatzea, ekosistemak, haien fluxuak eta zerbitzuak (bereziki, nekazaritza-, basogintza- eta arrantza-politikan eta lurraldea antolatzeko plangintza-politiketan) kontserbatzea ahalbidetuko duten ingurumen-aldagaiak gehitzeko. Garrantzi bereziko kasu bat Natura 2000 Sarea eta ekosistemen zerbitzuak integratzea da.

- Eskumenak dituzten eragile guztien artean ikuskapen koordinatu bat potentziatzea.

- Lurralde-antolamendu adimentsu baten ezarketa bultzatzea, populazio-dentsitate handiagoak saritu ditzan, eta erabileren konbinazioa (lana, aisialdia, etxebizitza) eta lurzoru-kontsumoaren optimizazioa indartu ditzan, lurzoru horren berrerabilpena eta lehengoratzea lehenetsiz.

- Ekosistemen zerbitzuak indartzea eremu degradatuak lehengoratzeko (2017rako lehentasuna).

- Azpiegitura berdeen kontzeptua gehitzea gure Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan (2017rako lehentasuna).

12.2. INGURUMEN KOSTUA ERAGOZTEKO EDO MURRIZTEKO NEURRIEN DEFINIZIOA

Ingurumeneko esku-hartzeek eragindako inpaktuak ingurumen alderdiei emandako kontsiderazioaren eta proposatutako ekintza zuzentzaileen kalitatearen eta kopuruaren mende daude.

Aplikagarritasuna hirigintza garapenarekin aurrera egin ahala gertatuko diren planeko alderdi jakinen mende dago. Hori horrela, kontuan izan beharko da aplikazioaren denborazko eta espaziozko eskala; izan ere, zenbat eta lehenago aplikatu, orduan eta arinago lortuko dira txertatutako neurriekin lortu nahi diren ondorioak.

Jarduerek –oro har, neurri zuzentzaile deituak– planak eragindako inpaktuak ezabatzeko, arintzeko edo konpentsatzeko joera duten neurriak biltzen dituzte eta honelakoak izan daitezke:

- Prebentziozkoak edo babestekoak
- Zuzentzaile orokorrak edo espezifikoak
- Konpentsatzaileak

Neurri zuzentzaileek inpaktua eragiten duen prozesua aldatzeko aurrez ikusi gabeko elementuak sartzen dituzte.

Neurri konpentsatzaileek zuzenketarik onartzen ez duten inpaktu negatibo saihestezinei egiten diete erreferentzia eta, beraz, beste ondorio positibo batzuekin baino ezingo dira konpentsatu. Ohikoenak suntsitutako landare espezieen birlandaketak, zarataren eragin konponezinengatiko kalte-ordain ekonomikoak eta abar dira.

12.3. INPAKTU ESANGURATSUENEI BURUZKO NEURRI ZUZENTZAILEAK

Lanen fasea da inpaktuen iturri handiena, batzuetan ez intentsitateagatik, lanetan gertatu ohi den aurreikuspen faltagatik baizik. Prebentzio neurri egokienak izango dira eragin beharreko azalera murrizten duten planteamenduetan oinarritzen direnak, obra egutegiak egokitzen dituztenak, diseinua eta eraikuntzako materialak egokitzen dituztenak eta abar.

Hauek izan daitezke kontuan hartu beharreko neurri zuzentzaile batzuk:

- Izaera orokorrarekin, lanen fasean, besteak beste, alderdi hauek arintzera bideratutako neurri zuzentzaileak hartu behar lirateke: hautsa barreiatzeak eragiten dituen eragozpenak, lanek eragindako zarata, hondakinen sorrera eta kudeaketa eta abar.

- Bideetan eta eraikuntza berrien inguruan farolen instalazioak ekar dezakeen argi kutsadura murrizteko hartuko diren neurri jakinak zehaztuko dira. Argi kutsaduratzat joko da gaueko iturri artifizialen argi fluxuaren igorpena, eremuan aurrez ikusitako jardueretarako beharrezkoak ez diren intentsitateetan, norabideetan eta espektro mailetan.

- Arreta berezia eskainiko zaio lehendik dagoen tokiko landarediaren eraginari, bereziki harizti azidofiloaren baso mistoari, ibilgailuen igarobiderik edo zuzeneko beste edozein eraginik gabe mantenduko dira.

- Arreta berezia eskainiko zaie sortutako hondakin arriskutsuei zein ez arriskutsuei. Hondakin hauek modu egokian kudeatuko dira, baimendutako kudeatzaileen bidez, eta ez dira inolaz ere ibaietako uretara helduko.

- Instalazio berriek sortutako isurketa-urak (eraikuntza prozesuan zehar) eta hondakin-urak kontrolatu beharko dira, eta ez dira ibaietara helduko tratatuak izan gabe.

- Aldi baterako okupazio eremua balizatu egingo da, ezinbestekoa den eremutik harago eraginak saihesteko.

- Lanetatik datozen hauts partikulen eta kutsatzaileen barreiaketa mugatuko da hauen bidez: makinen mantentze egokia, ibilgailuen garbiketa, garraiatutako kargen estalketa, sarrera eta irteera eremuen kontrola, obrako materialen biltegiratze zuzena eta lan eremuak bustitzea, ahal denean edota beharrezkoa denean.

- Kamioiak eta erabilitako komunikazio bideak ureztatu edo garbituko dira, hauts igorpenak eta hurbileko biztanleriaren eragozpenak saihesteko; jarduera hori zorroztasun handiagoarekin egingo da klimari dagokionez garai lehorrenetan.

- Kamioekin kargak olanaztatuko dira, atmosferan dauden partikulak ez areagotzeko eta hauek ingurunean ez baztertzeko.

- Materialen zamalanak, indusketen exekuzioa eta, oro har, hautsa edo partikulak igortzea/mugitzea eragin dezaketen jarduera guztiak haizearen abiadura (bektore sakabanatzailea) 10 km/h baino txikiagoa den tarteetara mugatuko dira. Hori horrela, jarduera horien eguneroko planifikazioan, obrako zuzendaritzak kontuan hartu beharreko faktoreen artean jaso behar luke aurreikuspen meteorologikoa. Arau orokor gisa, jarduera horiek egitea saihestuko da ezegonkortasun handiko egun edo aldietan edo fronteen aurreikuspena dagoen egunetan.

- Garapenak proposatzen diren eremuetan, Lurzoruaren Kutsadura Prebenitzeko eta Zuzentzeko 1/2005 Legearen II eranskinean jasotako kutsatuta egon daitezkeen lurzorurik dagoen aztertuko da. Hala bada, gai honetarako indarrean dagoen araudiaren arabera kudeatu beharko da.

- Induskatu eta dragatutako materialen kudeaketa lurrean utziz egiten bada, lehortzeko eremu bat prestatu beharko da, lixibiazioa eta solidoen dekantazioa jasotzeko sistemak barne. Kutsatuta ez dauden material guzti hauek, betelanak egiteko erabili ahal izango dira.

- Hondakinen kudeaketa egokia egingo da, araudiari jarraiki eta obran sortutako hondakinen (hiri hondakin solido eta asimilagarriak, inerteak eta arriskutsuak, horiek daudenean) gaikako berrerabilpen, birziklapen eta bilketako praktikari jarraiki.

  Indusketetatik etorritako hondakinen kudeaketa araudiari jarraiki egingo da, kontrolatutako zabortegira edo baimendutako kudeatzaileari eramanda. Eraispenetan, eraikuntzako hondakinen berrerabiltze planak aintzat hartuko dira.

- Lursailaren gainean isuriak egitea saihestuko da. Instalazio lagungarrietara eta obrako makinen parkeetara bideratutako azalerak iragazgaiztutako zolatuarekin eta istripuz gertatutako isurien bilketa bermatuko duen drainatze sistemarekin prestatu beharko dira.

- Aparkalekuei dagokienez, plataforma, zolata iragazgaiztuz prestatzeari garrantzia ematen zaio. Drainatze sistema bat aurreikusiko da, lixibiatuen jasotzea bermatzeko, tratamendu egoki bat izateko eta honela, urekin interakzioa ekiditeko.

- Lanak hasi aurretik, ekintzen programazioa egitea komeni da, denboran bat etortzea eragozteko, beharrezko desbideratzetak programatu eta seinaleztatu egingo dira.

- Proiektaturiko obren izapide/egikaritzean zehar, hondakindegi bat jartzeko edo betetze bat egiteko beharra planteatuko balitz, ondorengoetan finkaturikoa bete beharko da: 2009ko otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua, zabortegian utziz eta betegarriak exekutatuz hondakinak ezabatzea arautzen duena eta 1304/2009 Errege Dekretua, uztailaren 31koa, hondakindegian utziaz hondakinak ezabatzeari buruzkoa den 1481/2001 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, aldatzen duena.

- Eraikinetako eraikuntza materialak ahalik eta iraunkorrenak eta ahalik eta gutxien kutsatzen dutenak izateko ahalegina egingo da. (Europako energiari buruzko direktibak eta 3E-2010 Euskadiko estrategia energetikoa)..

- Lur mugimenduak egiterakoan, material arkeologikoa edo aztarnategi ezezagunen bat antzemanez, Euskal Kultura Ondarearen Legearen 48 artikuluaren arabera jokatu beharko da. Honela, lur mugimenduak eta eraikuntza ekintzak eragiten dituzten esku-hartzeek, arkeologia inpaktuen aurre azterketa bat egin beharko dute, edo haren lekuan Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailaren baimena eskatu.

- Obrako Segurtasun eta Higiene Proiektuak hondakinen manipulazioari, laneko higieneari eta garbiketa orokorrari eta makinei buruzko neurri espezifikoak jaso beharko ditu.

- Lanen faseko erreferentziazko soinu mailaren kontrolak aplikatuko dira, beharrezkoa denean zarata murrizteko neurriak betetzeko xedearekin.

Erkidego mailan, 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoak, estatuko legedia lege esparru autonomikora iraultzen du.

Ondoren I Eranskineko A Taula aurkezten da, 31 artikuluak aipatzen duena:

Tipo de área acústica		Índices de ruido		
		L_d	L_e	L_n
E	Ámbitos/Sectores del territorio con predominio de suelo de uso sanitario, docente y cultural que requiera una especial protección contra la contaminación acústica.	60	60	50
A	Ámbitos/Sectores del territorio con predominio de suelo de uso residencial.	65	65	55
D	Ámbitos/Sectores del territorio con predominio de suelo de uso terciario distinto del contemplado en c).	70	70	65
C	Ámbitos/Sectores del territorio con predominio de suelo de uso recreativo y de espectáculos	73	73	63
B	Ámbitos/Sectores del territorio con predominio de suelo de uso industrial.	75	75	65
F	Ámbitos/Sectores del territorio afectados a sistemas generales de infraestructura de transporte, u otros equipamientos públicos que los reclamen.	(1)	(1)	(1)

(1): serán en su límite de área los correspondientes a la tipología de zonificación del área co la que colinden.

213/2012 Dekretuak, zaratari sentikor diren erabilerak dituzten eraikinen barneko espazioen kalitate akustikoaren helburuak ere finkatzen ditu. Ondorengo taulan adierazten dira:

ERAIKINAREN ERABILERA	**GELA MOTA**	**ZARATA INDIZEAK dB(A)**		
		L_d	**L_e**	**L_n**
Etxebizitza	Egonlekuak	45	45	**35**
	Logelak	40	40	**30**
Osasuna	Egonlekuak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Hezkuntza edo kulturala	Ikasgelak	40	40	40
	Irakurketa gelak	35	35	35

12.3.1.Taula**: Eraikinen barruko aldeko esparru bizigarriei aplikatzeko zarataren kalitate akustikoko helburuak (213/2012 Dekretua –I Eranskina, B Taula)**

- Eraikinetan erabiliko diren eraikuntza materialak isolamendu termiko maila handia izan dezatela ahalbidetuko da, ahalik eta iraunkorrenak eta gutxien kutsatzen dutenak izanez.

- Jarduketak garatuko diren eremuetan hiri hondakinen gaikako bilketarako espazio egokiak aurreikusiko dira. Ondorioz, birziklatzeko edukiontziak (beira, ontziak, papera eta kartoia, ehun-gaiak, materia organikoa,...) aurreikusi beharko dira bizitegi eta jarduera ekonomikoetarako area desberdinetan.

- Energia aurrezteko eta energia berriztagarrien erabilera txertatzeko ekintzak erraztuko dira, jarduera berrietan. Eguzki instalazioak planteatuko dira ekipamendu berrietarako. Eskastzat jotzen diren argi puntuen aldaketa bultzatuko da, bereziki, argi kutsadura murrizten dutenean.

- Kontuan izango da sektoreen eguzki bilketaren eraginkortasuna eraikuntza berriko eraikinen orientazioa definitzerakoan eta, horrela, horien jokaera energetikoa hobetzeko, batez besteko tenperatura altuagoa lortzeko eta eguzki argia aprobetxatzeko, kontsumo elektriko txikiagoa egite aldera.

- Ekipamendu berrietan ura eta energia kontsumoa aurrezteko sistemak ezartzeko aukera aztertuko da. Adibidez etxeko ur beroaren hornikuntzarako, eguzki kolektore eta metagailuen bidez sistema mistoak ezartzea.

- Euri uren birziklatze sistema bat ezartzea ahalbidetuko da, ur gris gisa erabiltzeko (adibidez komunen zisternetarako)

- Banaketa sareen eraikuntzan edo aldaketan sare diseinua izatea ahaleginduko da, ahal den neurrian, bukaerako lineak eragotziz. Sareak, era berean, sektoreka ixtea ahalbidetuko duten mekanismo egokiak eta purgatze sistemak izango ditu.

- Saneamendu sare berriek hondakin urak eta euri urak bereizi behar dituzte.

- Hondakin uren sarea beti, edateko ur-hornidura sarearen eta euri uren ebakuazio sarearen azpitik bideratuko da

- Legionelosia prebenitzeko eta kontrolatzeko irizpide higieniko sanitarioak xedatzen dituen 865/03 Errege Dekretuari jarraiki, kontuan hartuko dira legionela kolonizatzeko arriskua ekar dezaketen instalazioak (hoztorreak, etxeko ur beroa, ihinztaduragatiko arriskua, iturri apaingarriak eta abar) eta araudi horri jarraiki diseinatu eta mantenduko dira.

- Argiteria publikoaren diseinu, exekuzio eta mantentze-lanen baldintza teknikoak, 1890/2008 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Kanpoko argiteria instalazioen energia eraginkortasunaren araubideari buruzkoak eta bere EA-01etik EA-07ra bitarteko jarraibide tekniko osagarriak finkaturikoak izango dira

- Bideetan eta eraikuntza berrien inguruan farolen instalazioak ekar dezakeen argi kutsadura murrizteko hartuko diren neurri jakinak zehaztuko dira. Argi kutsaduratzat joko da gaueko iturri artifizialen argi fluxuaren igorpena, eremuan aurrez ikusitako jardueretarako beharrezkoak ez diren intentsitateetan, norabideetan eta espektro mailetan.

12.4. LURZORUAREN KOKAPENARI, SAILKAPENARI ETA KALIFIKAZIOARI BURUZKO BABES NEURRIAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

- Udalerriko ingurune baliotsuak, haien kalitatea zaintzeko helburuarekin lurzoruaren babes kategoria baten edo *gainjarritako baldintzatzaile* gisa sartuko dira

- Udalerriaren izaera babesteko beharrezko babes neurriak finkatuko dira, berezko balioak galdu beharrean, bultzatzeko helburuarekin.

- Lurzoruaren erabilera eta eraikuntza erregulatuko duen araudi bat finkatuko da, tradiziozko elementu eta eraikuntza motetan oinarrituz.

12.5. NATUR BALIABIDEEN KONTSERBAZIORA BIDERATUTAKO NEURRI ZUZENTZAILEAK

- Gauzatuko diren jarduketa guztiek, landaredi naturala arretaz zainduko dute, afekzioak ekidinez.

- Proposaturiko garapenek *Juncus acutus* landarea kokatzen den lauki-sarean afekzioak eragiten dituztenean, aurretik ikerketa bat egingo da.

- *Chamaesyce peplis* eta *Hockenya peploides* espezieetan afekzioak eragiten dituen L4 alternatibari dagokionez, edozein jarduketa gauzatu aurretik, espezie hauek babesteko helburuarekin azterketa bat egingo da.

- Kentzea ezinbestekoa ez den zuhaitzen oinak errespetatuko dira, haiek hondatzea eragotziz eta paisaiaren lehengoratze proiektuan jasoko dira. Ahal den heinean tokiko zuhaitz orbanak errespetatu beharko dira.

- Ahal den heinean, zehaztapenak finkatzea paisaiako eta naturako elementu interesgarriak, heskaiak, zuhaitz zaharrak eta abar aldez aurreko katalogazioaren bidez mantentzeko.

- Ahal den neurrian ingurunean dauden espezie inbaditzaileak kenduko dira. Ahal bada, lur mugimenduak hasi aurretik. Ezabaketarako, kontuan hartu ahal izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako azken saiakuntzak eta Ingurumeneko Ministerioak 2004an argitaratutako “Atlas y Libro Rojo de la Flora Vascular Amenazada de España” laneko gomendioak.

- Landare lurra kenduko da, birlandaketa lanetarako aprobetxatzeko. Era berean, lanetako ekintzek trinkotutako eremuak berreskuratuko dira, ingurunean haien txertaketa bultzatzeko. Aurrez aipatu bezala, ateratako landare lurra lurzoruen hobekuntzarako edo bazterreko lursailei balioa emateko erabili ahal izango da.

- Landareztatzeetan, nahiz eta ingurunea urbanizaturik egon, prozesu inbaditzaileak (adibidez *Cortaderia selloana*, *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia*, *Acacia dealbata*, etab.) sortu ditzaketeen landare espezieen erabilera debekatuko da eta ingurunean lehendik dagoen landarediarekin bat etorri beharko dira.

- Gomendatutako landaredia mota hariztiaren (proportzio handienetik txikienera: *Quercus robur, Quercus rubra, Castanea sativa, Prunus avium, Acer campestre, Acer pseudoplatanus, Betula celtiberica, Fraxinus excelsior eta Tilia platyphillos*) eta haltzadi kantauriarraren (Alnus glutinosus, Fraxinus excelsior, Corylus avellana) antzeko espezieek osatuko dute.

- Birlandaketek naturalizatutako habitaten sorrera bultzatuko dute, tokiko zuhaitzen eta zuhaixken taldeak eta formazio linealak finkatzen eta inguruan dagoen natur landarediarekin lotzen ahaleginduz.

- Lur-mugimenduak kontrolatu eta zainduko dira, ezaugarri geologiko interesgarrien agerpenaren aurrean. Ezaugarri horien eragina atzematen den eremuetan gaian aditua den norbait egongo da, behar bezala kontserbatzeko beharrezko neurriak finka ditzan.

- Indusketako edo lur mugimenduetako eragiketetan lurzoruaren kutsadura aztarnak topatuko balira, jardueren zuzeneko arduradunak udalari eta eskumena duen ingurumeneko organoari jakinarazi beharko dio.

- Iragazgaitzak diren eremu zolagarriak mugatzeko ahalegina egingo da, lurraren berezko iragazpen gaitasuna mantentzeko.

- Eraikinetan erabili beharreko eraikuntzako materialek isolamendu termiko handia izateko eta ahalik eta iraunkorrenak eta ahalik eta gutxien kutsatzen dutenak izateko ahalegina egingo da. (Europako energiari buruzko direktibak eta 3E-2010 EUSKADIKO estrategia energetikoa)..

12.6. HIRIKO PAISAIA, MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA HOBETZEKO NEURRIAK

- Lurzoru urbanizagarriko esparru berrien garapenerako, dagokion *Ingurumen Leheneratze eta Paisaiaren Integrazio Plana* idatzi beharko da.

- Egindako diseinuek eta eraikinek kontuan izango dute paisaiaren itxura, planifikatutako esku-hartzeen behar bezalako integrazioa ahalbidetzeko.

- Aparkalekuen diseinua kokatzen den inguruneakin bat etorriko da eta landaredia erabiliko da

- Hiri itxuraren defentsa eta horren balorazioaren eta hobekuntzaren sustapena udalari dagokio, bai eraikinei dagokienez –multzoka edo banaka–, bai eraiki gabeko eremuei dagokienez, hortaz, udalerriaren pertzepzioari eragin diezaiokeen edozein jarduera dagoen irizpidera egokitu beharko da.

- Plangintzan, lehendik dagoen bide sarea eta proiektaturikoa aintzat hartuko dira hiri ingurunean inpaktuak (inpaktu akustikoa, irisgarritasuna, ezbehar-tasa, etab.) saihesteko. Mugikortasun Plana aintzat hartuko da.

- Eremuaren irisgarritasuna eta ikuspuntu intermodal batetik joan-etorrien eta zirkulazioaren antolamendua “Mugikortasun Plan” baten bidez aztertuko dira. Helburua garraio publikoa sustatzea da. Aisialdirako jarduketek bizikleta aparkalekuak izango dituzte.

- Oinezkoen edo motorrik gabeko garraiobideen irisgarritasuna hobetzeko beharrezko jarduerak egingo dira, horrek mugikortasun motorizatua areagotzea ekarri gabe, hala nola oinezkoentzako eta bizikletentzako bideak eta abar.

- Garapenak Euskadiko irisgarritasunaren sustapenerako 1997ko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen xedapenei jarraiki egokitzeko beharrezko jarduerak egingo dira.

12.7. AURREZ IKUSITAKO INGURUMENAREN ERAGINARI AURRE EGITEKO BALIABIDE BERRIAK SORTZERA BIDERATUTAKO NEURRI KONPENTSATZAILEAK

Hasiera baten, ez da definitu osabidezko neurririk, hala ere, proposaturiko jarduketen etorkizuneko garapenek, natura eta produkzio alderdietan eragindako afekzioak orekatzeko aukera aintzat izan beharko dute.

Hau dela eta, Bolueko harana itsasertzarekin lotzeko **korridore ekologiko** bat sortzeko proposamena modu oso positiboan baloratzen da. Honela, udalerrian dauden espezieen banaketari jarraipen bat ematen zaio.

Aipaturiko korridorearen araudia eta kudeaketa HAPO-n jaso ahal izango dira. Lurzoru urbanizaezineko kategoria ezberdinetan ematen diren jarduerak eragotzi gabe, fauna igarotzea ahalbidetzen duten neurriak ezarriko dira.

13. LABURPEN EZ TEKNIKOA (D/211/2012 II Eranskina 'm')

Dokumentu hau JASANGARRITASUN TXOSTENA da, aipaturiko Erreferentzia Dokumentuaren xedapenen arabera idatzia, 211/2012 dekretuaren arabera, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.

Dokumentu hau, **KIMAR, Consultores Ambientales S.L.** enpresak egin du. Hirigintzari dagozkion alderdiak **Arkitektura eta Hirigintza Bulegoa E.A.** enpresak idatzitako Aurrerakin dokumentuarekin aztertu dira

Getxoko **plan orokorraren** berrikusketak ondorengo **funtsezko helburuak** ditu:

- Hiri-lurzoruaren antolamendu xehakatua berregin, berritu eta osatzea.
- Hiri-lurzoruaren ekipamendu-maila, maila publikoa eta pribatua eta espazio libreen maila hobetzea.
- Sustapen publikoko etxebizitzen politika aurreratu bat ahalbidetzeko hirigintza-oinarriak hobetzea.
- Neurtutako beharren arabera definitzea bizitokien garapenaren eta ekonomia-jardueren kuantifikazio egokia.
- Udalerriko natura-balioen, ingurumen-balioen, natura-baliabideen eta kultura-ondarearen babesa ezartzea.

Plan orokorrak 8 urteko denbora tarte bat finkatzen du.

Plan orokorraren berrikusketa gauzatzeko beharra, 14 urtez indarrean daroan plan orokorraren antzinatasunaren ondorioz eta hirigintza plangintza 2/2006 Lurzoru eta Hirigintza Legearen eta lurralde antolamenduaren zehaztapenetara egokitzeko beharraren eraginez dator.

Plan orokorraren espazio-izaerako zehaztapen nagusiak, udalerriaren lurretan lurzoruaren erabileren antolaketa finkatzeko dira, betiere lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako lurretan lurralde antolamenduaren plangintzak ezarritakoa errespetatuz.

Aipaturikoa laburbilduz, planak udalerriko lurretan zona ezberdinen mugak jarriko ditu eta zona bakoitzaren espazio-eremuan hirigintza kalifikazio orokorra edo erabilera nagusiak, zein ahalbidetutako eta debekatutako erabilerak zehaztuko ditu.

Planaren elaborazioan ondorengo ingurumen irizpide estrategikoak gehitu beharko direla:

1. Beharrak aztertzea, aurreikusitako garapenak ez daitezen izan neurriz kanpokoak.
2. Lurzoru antropizatuak berrerabiltzea sustatu eta horri lehentasuna ematea, lurzoru natural urbanizatu gabeak artifizialdu ordez. Herriko jatorrizko guneetan eraikita eta urbanizatuta dagoen ondarea berroneratu eta hutsik dauden etxebizitzak erabili.
3. Lurraldearen harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak etab. ebaluatzeko aukera ematen duen udalerriaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egitea.
4. Erabilera ugariko hiri-egitura itxi, trinko eta konplexuak sustatzea. Hurbiltasunezko hirigintza indartzea eta joan-etorriak egiteko beharrak murriztea.
5. Lurzoruaren neurriak ezarri eta lurzorua sailkatu eta kalifikatzean eskuragarri dauden ur-baliabideak eta lurraldearen zama-edukiera aintzat hartzea. Uretako baliabideak eta ingurunea babestu, zaindu eta oneratzea (ur kontinentalak, lurpeko edo lurrazaleko urak, ibai-oheak, ibilguak, ur-bazterrak eta ertzak, trantsizioko urak eta kostaldeko urak).
6. Hiriguneko berdeguneen eta ibai-tarteen kalitatea hobetzea.
7. Lurralde-plangintzan, hirigintza-plangintzan eta plangintza sektorialean sartu eta onartzea 500 urteko errepikatze-aldirainoko uholde-orbanak, eta hirigintza-garapen berriak ezartzea saihestea.
8. Landa-lurzoru urbanizaezinaren erabilera-araubide bat ezartzea, zeina bat datorren lurraldearen natura- eta kultura-balioekin, lurraldearen kontserbazioa bultzatuz. Erabileren araubidetik, tokiko ekoizpena eta jarduera tradizionalak zaindu eta/edo sustatzea (nekazaritza eta abeltzaintzakoak, basozaintzakoak,

etab.) Argi eta garbi ezartzea aisialdiko erabileren eta lurraldeko erabilera tradizionalen arteko aukerak eta bateragarritasun-mugak.

9. Dibertsitate biologikoaren galera geldiaraztea, ekosistemak leheneratzea eta zoruaren artifizialtzeari mugak jartzea.
10. Udal-plangintzan paisaiaren faktorea sartzea. Natura- eta/edo landa-paisaia zainduz; Katalogatutako Ikus Arroak bereziki nabarmenduz.
11. Hondakinak tratatzeko eta kudeatzeko eremu-kopuru egokia aurreikustea.
12. Inguru garbi eta osasungarri bat bermatzea, airearen kalitatea hobetuz.

Aurrerakinaren proposamenen edukian plan orokorraren 7 alternatiba jasotzen dira, 4 herritarren partehartze foroaren Lantaldeak proposaturikoak (L1, L2 L3 eta L4) eta 3, beste bi osagarrirekin, planaren erredaktore taldeak landutakoak (T1, T2/T2' eta T3/T3').

Lantaldeak proposaturiko alternatiben ardatzak ondorengoak dira:

L1 aukera

- Iraunkortasuna gizartea, kultura, ingurumena eta ekonomia arloak biltzen dituen kontzeptua da. Denak bermatu behar egin behar dira iraunkorrak izan daitezen.
- Gaur egun munduko biztanle kopurua behera egiten ari da.
- Ez da lurzoru gehiago bete behar. Hiri lurzoruan, etxebizitzetarako bideratuta dauden eta bete gabe dauden lurzoruak libre utzi behar dira. Horrez gain, espazio libreak eta ekipamenduak ere diseinatu egin behar dira.
- Gaur egungo higiezinen parkearen aukerak maximizatzea: Hutsik dauden etxebizitza guztiak merkatura ateratzea,etxebizitzen zatiketa erraztea, atikoak etxebizitza bihurtzea eta erabiltzen ez diren baserriak edo etxebizitzak birgaitzea.
- Udalerriko kultura-paisaia berreskuratzea.
- Kapital naturala eta biodibertsitatea mantentzea eta aztarna ekologikoa murriztea.
- Ekosistemen zerbitzuak hobetzea.
- Modu egokian kudeatzea eta Getxok turismoaren eta kulturaren arloetan dituen aukerei etekina ateratzea.
- Daukaguna zaintzeak du lehentasuna: dauden baliabideei etekina ateratzea, ondare historiko eta artistikoa berreskuratzea eta babestea. Horrez gain, landa-sektorea sustatzea.

L2 aukera

- Ingurumenean oinarritutako iraunkortasuna.
- Lurzorua hartzeko batez besteko dentsitatea (50 eta 70 etxebizitza artean hektareako).
- Hiri lurzoruaren lohiz betetzea eta Andra Mariako/Azkorriko lurzorua ez ukitzea. Dagoen eskaintza kontuan hartzen denean, etxebizitzak banatzean sortzen diren etxebizitzak, hutsik daudenak, atiko eta lokalen aprobetxamendua eta bestelakoak kontuan hartu behar dira, eraikuntza berriaren bolumena murrizteko. Gutxi gorabehera 1.900 etxebizitzako eskaintza guztira.
- Ekonomia-jarduerak bizitegi-erabilerekin bateragarriak izango dira (I+G+b, merkataritza, ostalaritza, hirugarren sektorea...), erabileren irtenbide trinkoago baten bidez.
- Garrantzitsutzat jotzen dugu ekonomia-jardueretarako bideratutako lurzorua merkataritza-zentroak sortzeko ez erabiltzea.
- Ez da proposatu behar zerbitzurik gabeko eremurik.

L3 aukera

- Biztanleria zaintzeko beharrezkoa den gutxieneko etxebizitza kopurua sortzea, lurzoruan ahalik eta eraginik txikiena izan dezan, eta gazteak kanporatzea saihesteko.
- Getxoko erabilera produktiboa, ekonomikoa, eta enpresa-erabilera sustatzeak lehentasuna du.
- Getxoko ondare historikoaren erabilera sustatzea, ekonomia-jardueraren eragile gisa: Portu Zaharra, Andra Mariako eliza.
- Getxo metropolitzat hartzea.
- Aztarna ekonomikoa muturrik gabe murriztea saiatzea.

L4 aukera

- Biztanleriaren hazkundea bilatzea.
- Lurzorua kudeatuz, urbanizatuz, lurzoru-masa handiak lortzea erabilera publikoko espazio libreetarako eta ekipamendu onetarako.
- Hiri lurzorua lohiz betetzea + 108 hektareako bizitegi-sektorea + 12 hektareako ekonomia-jarduerak. Gutxi gorabehera 9000 etxebizitzako eskaintza guztira.

- Hiri lurzorurako proposatutako dentsitateak murriztu beharko lirateke hiri lurzorua desasetzeko. Hiri lurzoruan batez besteko dentsitatea baino handiagoa den dentsitaterik ez erabiltzea.
- Askorriko eremuan kostaldeko parke bat proposatzea arlo publikoaren barruan.

L1, L2 eta L3 alternatibak, neurri handiago edo txikiago baten ingurumen irizpide estrategikoekin bat datoz. L4 alternatiba lurzoruaren okupazio adierazgarri baten oinarritzen denez helburu hauetatik aldendu egiten da.

Bestalde, erredaktore taldearen alternatiba teknikoen helburua da hiri lurzoruaren kalifikazio orokorraren berezko alderdiak zehaztea, eta biztanleriaren bilakaeraren irizpideak aplikatzea, helburu horretarako Eusko Jaurlaritzak lurraldearen antolamenduko gidalerroak aldatzeko egin duen azken dokumentuan ezarritakoa kontuan hartuz, biztanle kopurua mantentzeko aukera barne

Halaber, aukera hauetan, foroak hiri lurzoruan ekipamenduak eta zuzkidurak ezartzeko ezarritako irizpideak erabili dira, bereziki sistema orokorrak, ekipamendu publikoak, oinezkoen bide-sistema eta bidegorriak definitzeko irizpideei dagokienez. Horrela, hiri lurzoru osoan oinezkoen komunikazio-sare handia sortuko da, hala badagokie, oinezkoen eta ibilgailuen bideen plataformei gainjarrita, plataforma independente bat izatea ezinezkoa denean, oinezkoen eta bizikleten ibilbide independente bat egitea posible den tarte gutxietan izan ezik

Ondorioz, alternatiba teknikoek ere ingurumen irizpide estrategikoak aintzat hartzen dituzte hainbat soluzio aurkeztuz.

Azterlanaren eremua Bizkaian Getxoko udalerri guztia da eta Bilbo Metropolitarra area funtzionalean sartuta dago. Getxo kostaldeko udalerri bat da eta EAEko ipar-mendebaldean kokatuta dago. Ipar-ekialdean Sopelarekin muga egiten du; ekialdean, Berango eta Erandiorekin; hego-ekialdean, Leioarekin nahiz Kantauri itsasoarekin eta gainerako mugetan Bilboko itsasadarrarekin.

Erabat hiritarra da udalerria, jendetsua eta bere hiriguneek (Getxoko Andra Maria, Algorta, Areeta, Neguri eta Romo) hiri-jarraipena osatzen dute. Nolanahi ere, udal-lurzoru

gehiena hartzen dute eta eraikuntzarik gabe bakarrik iparraldean kokatutako lurzoruak gelditzen dira, hain zuzen ere, itsasertzaren bigarren lerroan, itsaslabar eta hondartzen ondoan.

Ia udalerri guztia Oizko Unitate Tektonikoaren (Gernikako Sektorea) gainean kokatzen da, kostaldeko lerroa, ibaiertzaren eremua eta itsas eta ibai-tartea izan ezik. Sistema Tertziario (Flysch Tertziarioa) (eremuan nagusia), Kretazeo Tertziario (Maastrichtiense-Danienseko Kareharrizko Erak.) (udalerriko ipar-hegoalde ardatzarekiko zeharkako bi lerro txikitan), Kretazeo (kareharrizko flysch detritikoa) (portuko ekialdeko kai-muturraren ondoko zona txikia) eta Kuaternarioak (ibai-inguruneen eta kostaldeko lerroaren nahiz hondartzen gainean) osatzen dute.

Identifikatu diren ingurumen-arriskuei dagokienez, Getxok hondartzaren, dunen eta ibai-ibilbidearen zonetan baldintza geotektoniko oso desfaboragarriak ditu: urpetze-arazoak, putzuak, sostengu-ahalmena eta asentuak. Urpetze-arriskuak 10, 100 eta 500 urteko denboraldietan dira Gobela ibaiari erreparatuz. Muturreko higadura-prozesuak ematen dira udalerriaren barruan oso eremu puntualetan eta akuiferoen poluzioarekiko kaltebera altua eta oso altua da.

Udalerriaren kartografian guztira poluituak egon daitezkeen 42 kokaleku daude, nahiz eta, hasieran, arrisku teknologikoen eraginik ez antzeman.
Udalerriko landaretzari dagokionez, kartografia kontuan hartuta, unitate-barietate zabala definitzen da, presentzia handiena landaretzarik gabeko zonena edo landaretza erruderal nitrofiloarena izan arren. Halaber, belardien eta labore atlantikoen azalerak daude. Garrantzi ekologikoari dagokionez, harizti azidofilo-harizti baso mistoaren, haltzadi kantauriarraren formazioak eta kostaldeak nahiz estuarioak berezkoak dituzten landaretza-konplexuak azpimarra daitezke.

Era berean, Getxoko udalerrian aurkitzen diren flora mehatxatuaren aipamenak nabarmendu behar dira. Eusko Jaurlaritzak kokatzeko kanpainak egin ditu edo EAEko Floraren Zerrenda Gorrian agertzen dira. Hurrengo espezieak agertzen dira: *Honckenya peploides, Euphorbia peplis, Olea europaea, Chamaesyce peplis eta Juncus acutus*.

Modu osagarrian, kartografiak hurrengo habitatak identifikatzen ditu: 1210 Itsas hondar metatuen gainean urteko landaretza, 1230 Itsaslabarrak kostalde atlantiko eta baltikoetako landaretzarekin, 4030 Txilardi lehor europarrak (txilardi lehor azidofiloak), 4040* Erica vagans espezieaz osatutako kostaldeko txilardi lehor atlantikoak, 6210* Belardi lehor sasinaturalak eta kareharrizko substratuen gainean sastrakaren faziesa (Festuco –Brometalia) (orkideak garrantzitsuak diren lekuak), 6510 Sega-belardi pobreak behe altitudean (Alopercus pratensis, Sanguisorba officinalis) eta 91E0* Alnus glutinosa eta Fraxinus excelsiorren baso alubiala (haltzadiak eta lizardiak EAEn).

Getxoko faunari dagokionez, kartografiari erreparatuz, azterketaren eremuan ondorengo espezieak azpimarra daitezke, Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartuak baitaude:

- Schreiber muskerra (*Lacerta schereiberi*) eta baso-igel iberiarra (*Rana iberica*), biak interes berezikoak eta udalerriko azalera guztian zehar banatuak.
- Bisoi europarra (*Mustela lutreola*), iraungitzeko arriskuan, Gobelan, Boluan edo Larrañazubin zehar banatua.
- Txilinporta lepo-beltza (*Podiceps nigricollis*), interes berezikoa.
- Txenada mokobeltza (*Gelochelidon nilótica*), bitxia.
- Belatz handia (*Falco peregrinus*), bitxia.
- Arantzarraina (*Gasterosteus aculeatus*), kaltebera. Interes bereziko gunea
- Benarriz arrunta (*Acrocephalus schoenobaenus*), iraungitzeko arriskuan.

Zona osatzen duten paisaiaren unitate homogeneoak aipatuz, jabari antropogenikoan, hondo izurtuan eta ingurune izurtuaren isurialdearen oinetan hiriko paisaiaren unitatearen nagusitasuna argia da.

Ez dira natur espazio babestuak identifikatzen, ez Igarobide Ekologikoen Sareko elementuak, ezta erabilera publikoko mendiak ere.

"Galeako Lurmuturra - Barrika" eta "Getxo" izenez katalogatutako itsas paisaia gune bi daude.

Kultur ondareari dagokionez, zenbait elementu aurkitzen dira eta horien artean Bizkaiko Zubi Esekia azpimarra daiteke. Izan ere, 2006. urtetik UNESCOren Munduko Ondarea da.

Azkenik, ingurunearen bizi kalitate orokorrari dagokionez, positibotzat hartzen da, kalitate atmosferiko egokiaz. Zarataren foku sortzaile nagusi bezala metroaren komunikazio-azpiegiturak, gainazaleko tarteetan, eta BI-637, BI.3737 eta BI-3730 errepideak identifikatzen dira. Analisiarekin bat, batera hartuta, 65 eta 75 dB(A) mailekin eragiten ari zaio gutxi gorabehera 1.100 biztanleri eta 300 etxebizitza ingururi.

Indarrean dagoen plangintzan lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoru azalera handia dago, beraz, HAPO-ren Berrrikusketa egin gabe, udalerriak izan dezakeen eboluzioa, alderdi natural esanguratsuenen babesa murriztea eta lurzoruaren okupazio handiago bat eragitea da.

211/2012 Dekretuan adierazitakoa eta ingurumen organoak igorritako Erreferentzi Dokumentuan finkaturikoa betez, dokumentuan **Gainbegiratze Programa** sartzen da

Mota honetako Programaren helburua ingurumen inpaktua zuzen jarraitzea, zaintzea eta kontrolatzea da, baita zuzentzea ere.

Honako adierazle hauen bidez balioztatu beharko dira bai adierazitako helburuak kontuan zein mailatan hartu diren, eta, ondorioz, baita zer eragina duten plan nagusiaren berrikusketan planteatutako proposamenek ondorioak izan ditzaketen ingurumen-aldagaietan:

